



# PISA 2009 EUSKADI

## 2. Txostena: Aldagaien azterketa eta ikasleen irakurketako emaitzan duten eragina

**Irakurketari, Matematikari eta Zientziei  
dagokien 15 urteko Ikasleen Nazioarteko  
Ebaluaziorako Proiektua.**



**ISEI-IVEI**

IRAKAS-SISTEMA EBALUATU  
ETA IKERTZERAKO ERAKURDEA  
INSTITUTO VASCO DE EVALUACION  
E INVESTIGACION EDUCATIVA



**OECD  
PISA**

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE  
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACION  
UNIVERSIDADES E INVESTIGACION

2011 Maiatza

## **ISEI-IVEI**

Irakas-sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea

Asturias, 9 3.- 48015 BILBO

[info@isei-ivei.net](mailto:info@isei-ivei.net) - [www.isei-ivei.net](http://www.isei-ivei.net)

### **Txostenaren egileak:**

Amaia Arregi Martínez

Alicia Sainz Martínez

José Ramón Ugarriza Ocerin

### **Aholku eta gainbegiraketa teknikoa:**

Eduardo Ubieta Muñuzuri



## AURKIBIDEA

1.- SARRERA .....	5
2.- IKASLEEN EZAUGARRIAL IRAKURKETAREKIN LOTUTA .....	9
NOLA SORTZEN DIRA INDIZEAK .....	11
INDIZE BAKOITZA AZTERTZEKO MODUA.....	12
IKASLEEN JOKAERAK ETA IRAKURKETA KONPETENTZIAKO ERRENDIMENDUA.....	12
3. IRAKURKETAREKIKO MOTIBAZIÓ FAKTOREAK ETA ERRENDIMENDUAN DUEN ERAGINA .....	12
3.1. Irakurketarekiko interesa eta zaletasuna .....	17
3.2. Zaletasunez edo dibertsioz irakurketari eskainitako denbora .....	21
3.3. Zaletasunez edo dibertsioz irakurritako materialen aniztasuna.....	24
3.4. Irakurketa digitaleko jarduerak .....	28
4. IKASKUNTZA ESTRATEGIAK.....	33
4.1. Metakognizio- estrategiak .....	35
4.1.1. Ulertzeko eta gogoratzeko estrategien indizea.....	35
4.1.2. Laburtzeko estrategien indizea .....	38
4.2. Estrategia mnemoteknikoak .....	41
4.2.1. Memorizazio eta prestatze-estategien indizeak .....	42
4.2.2. Kontro-estategien indizea .....	43
5. ALDEAK IKASLEEN SEXUAREN ARABERA.....	49
5.1. Irakurketarako motibazio-faktoreak, sexuaren arabera.....	51
5.2. Estrategia metakognitiboak erabiltzea sexuaren arabera .....	52
6. IKASLEEN ALDAGAI INDIBIDUALAK. AZTERKETA ALDERATZAILEA BESTE EBALUAZIOEKIN .....	55
6.1. Aitaren eta amaren ikasketak, eta irakurketako errendimendua .....	57
6.2. Ikasleen familia-jatorria eta irakurketako errendimendua .....	61
6.3. Ikasleen jaiotze-hiruhilekoaren eragina irakurketako emaitzetan .....	62
7. HEZKUNTZA IKASTETXEETAKO EZAUGARRIAK.....	65
7.1. Ikastetxeko giroa.....	67
7.1.1. Ikasleak diziplinarekiko eta ikasgelako giroarekiko duen pertzepzioa .....	67
7.1.2. Irakasleak-ikasleak harremanen pertzepzioa eta errendimendua .....	72
7.2. Metodologia alorrak.....	77
7.2.1. Irakurketaren estimulazioan irakasleek duten rolari buruzko indizea.....	77
7.3. Inbertsioa hezkuntzan.....	79
8. ERRENDIMENDU BAXUA PISA 2009N ETA ESKOLA UZTEA.....	81
1. ERANSKINA: Euskadi 15 urteko ikasleen irakurketa-ohiturak.....	95
2. ERANSKINA: Indizeetan balio baxua duten ikasleen banaketa irakurketako errendimendu mailen arabera .....	107



1

SARRERA



## I. SARRERA

PISA 2009ko emaitzen gainean egindako lehen txostenean<sup>1</sup> Euskadiko 15 urteko ikasleek Irakurketa, Zientziak eta Matematika ikasgaietan lortutako errendimendu orokorra aztertzen zen. Era berean, errendimendu maila desberdinetako ikasleen banaketa deskribatzen zen, bai ELGAko herrialdeetako, bai komunitate autonomoetako.

Txosten horretan ageri zen moduan, PISA 2009 ebaluazioak –batez ere Irakurketa alorrean oinarrituta- 15 urteko ikasleek Irakurketan duten errendimendua ezartzea ahalbidetzen du eta idatzizko materialak izan ditzakeen modu ugariak aztertzen ditu. Ebaluazioak, emaitzez gain, irakurketarekin lotutako 3 konpetentziak neurtzeko eskalak eta edukiak ere finkatzen ditu, eta bestalde, horiei gehitu behar zaie irakurketaren testuingurua, erabilera pertsonalekoa, publikokoa edo lanekoa den kontuan hartuta.

Era berean, aurreko zikloetan bezalaxe, beste hainbat alderdi ere aintzat hartu dira: motibazioa, auto-kontzeptua eta ikasleek edozein testu irakurtzeko (formatu elektronikoan daudenak barne) erabiltzen dituzten estrategiak.

Ikastetxei buruzko informazioa ere biltzen du bi galdetegiren bidez. Galdera sorta horietariko bat zentroko zuzendaritzak osatu beharrekoa da eta eskolako antolaketa eta ikasketa-irakaskuntza prozesuak aztertzen ditu. Bestea, aldiz, ebaluatutako ikasleak bete beharrekoa da eta prestakuntzako eta hezkuntza arloko interesen inguruko informazioa jasotzen du.

Euskadiren kasuan, bertako laginarekin jarraian hirugarren aldiz parte hartu denez proiektuan, denboratarte horretako alderaketa-neurriak ere ezar daitezke, 3 arloetako bakoitzean neurketa zehatza egiteko PISA zikloa itxiko da horrela. Beraz, 2012ko hurrengo ebaluazioan, zikloa errepikatuko da berriz, Matematika arloan interesa jarrita. Partaidetza jarraituari esker, ikasleek arlo bakoitzean duten prestaketaren inguruko luzetarako ikuspegia eta sistemaren bilakaerak izan duen joera eskura daiteke.

Aurrekoaren osagarria den txosten honek galdetegiaren bildutako informazioa deskribatu eta aztertu nahi du. Ondorioz, ikasleen pertzepzioetatik abiatutako erantzunetan oinarritzen da, eta ondorioz, arretaz interpretatu behar da. Ezin dezakegu esan kausa-efektu harremana dagoenik.

---

<sup>1</sup> PISA 2009. Euskadi. Ebaluazio-txostena. 2011ko otsaila. [www.isei-ivei.net](http://www.isei-ivei.net)





2

**IKASLEEN EZAUGARRIAK  
IRAKURKETAREKIN  
LOTUTA**



## 2. IKASLEEN EZAUGARRIAK IRAKURKETAREKIN LOTUTA

Kapitulu honetan, PISA 2009 Irakurketaren ebaluazioa zela eta Euskadiko 15 urteko ikasleei eta bertan parte hartu zuten hezkuntza-zentroei egin zitzairen galdeketaren informazioa deskribatu eta aztertzen da.

Egindako galderak taldekatu egin dira balio estandarizatuak dituzten indizeak osatzeko; horrela, ikasleen ezaugarriak deskriba daitezke eta irakurketa-gaitasuna ikasi eta garatzen dutenean erakusten dituzten jokoerak azter daitezke, ikaskuntzan dituzten jokoaren eragina egiaztatuz. Indizeak sortzeak, gainera, ikasleen artean eraginak alderatzeko aukera ematen du.

Sortutako indizeetatik abiatuta, batetik, 15 urteko ikasleek irakurketa-gaitasunarekin lotuta dituzten ideiak, iritziak eta pertzepzioak deskribatzeko faktore taldea osatu da: motibazio-faktoreak, ikaskuntza eta errendimendu-estrategien faktoreak, ohitura-faktoreak eta abar; bestetik, ikastetxeetako zuzendaritzek eskolako giroari, baliabideei eta abarri buruz duten iritzia.

### NOLA SORTZEN DIRA INDIZEAK

Irakaskuntzan eta ikaskuntzan garrantzitsuak izan daitezkeen alorrak aztertzeko, indizeak sortzen dira ikasleek galdetegian eskaintzen duen zuzeneko informaziotik abiatuta. Indize bakoitza definitu eta eraikitzeko, informazio adierazgarria eskaintzen duten galdera jakin batzuk egiten dira

Galdera horien puntuazioak, IET (Itemarekiko erantzunaren teoria) puntuazio<sup>2</sup> bihurtu ostean, eskala estandarizatu batean adierazten dira; bertan, ELGAko herrialdeetako batez besteko puntuazioa “0” izatea eta puntuazioaren bi heren “-1” eta “+1” balioen artean egotea adostu da. Hau da, PISAk ezartzen du indize bakoitzeko ELGAren neurketa 0n kokatzen dela, leko desbideratze tipikoarekin. Horrela, indizearen balio positiboak adierazten du ikasleek ELGAko batez bestekoa baino balio altuagoa erdiesten dutela. Erantzun dikotomizatuaren (bai-ez) galderak ere kontuan hartzen dira. Haztatutako probabilitate-estimazioak dira indize horietarako kategorizazio-emaitzak.

Herrialdeen artean alderaketak egiteko unean, indizeen balio absolutuak alderatzeak dituen zailtasunak hartu behar dira kontuan; gainera, ateratzen den ondorio oro herrialde parte-hartzaileetako kultura- eta hezkuntza-testuinguruei erreferentzia eginez hartu behar da aintzat. Hori dela eta, kapitulu honetan ikasleen eta Euskadiko zentroko indizeetako emaitzak alderatzen direnean, Europako herrialde eta ELGAkoak izatearen ezaugarri komuna duten kopuru jakin bat aukeratu da.

Herrialde hauetako emaitzekin alderatuko dira Euskadiko emaitzak:

- |             |               |                  |
|-------------|---------------|------------------|
| • Finlandia | • Luxenburgo  | • Erresuma Batua |
| • Alemania  | • Herbehereak | • Italia         |
| • Frantzia  | • Espainia    |                  |

<sup>2</sup> IET: Puntuazioen bihurteta Itemarekiko erantzunaren teoriaren metodologia erabiliz

## INDIZE BAKOITZA AZTERTZEKO MODUA

Indize bakoitzean aurkezpen bat egiten da eta sortzeko kontuan hartu diren galderak eta aldagaiak deskribatzen dira bertan. Euskadiko indize bakoitzaren balioa adierazten da eta ELGAko eta erreferentzia gisa hartu diren beste herrialdeetako batez besteko balioarekin alderatzen da.

Indize bakoitzaren balioak ondoren analisia egiteko datuak barne hartzen dituzten taula batean adierazten dira; horien artean hauek nabari dira:

- **Kuartilak:** Indize bakoitzaren eta Irakurketa-konpetentziaren errendimenduaren artean egon litekeen harremana erakusteko, ikasleak lau taldetan banatzen dira, indize bakoitzean puntuaziorik handienekoen edo txikienekoen arabera. Horrela, lau talde osatzen dira, eta talde bakoitzak ikasleen % 25 izango du; bertan, beheko kuartilak baliorik baxuenak dituztenak biltzen ditu; bigarrenak eta hirugarrenak erdiko balioak dituztenak, eta goiko kuartilak indizean puntuaziorik altuenak dituztenak. Modu paraleloan, talde bakoitzak Irakurketan lortu duen batez besteko puntuazioa adierazten da, eta horri esker alderaketak ezar daitezke indizearen balioaren arabera. Kasu honetan, muturreko balioen, beheko kuartilaren eta goiko kuartilaren puntuazioak soilik erakusten dira.
- **Puntuazio-aldaketa:** Indize bakoitzaren balioak adierazten dituzten tauletako azken zutabeak indize-unitate bakoitzak puntuazioan izan duen aldaketa adierazten du. Esan beharrik ez dago balioa handitu edo txikitzen denean, Irakurketa konpetentziako emaitza orokorrak handitu edo txikitu egiten dituela indize honetan eta herrialde horretan zehazten diren puntuazioak.

## IKASLEEN JOKAERAK ETA IRAKURKETA KONPETENTZIAKO ERRENDIMENDUA

PISA ebaluazioaren helburuetako bat 15 urteko neska-mutilen artean ikasteko garaian agerian jartzen diren banako ezaugarrien inguruan aztertzea da. Jakina da ezaugarri jakin batzuek ikaskuntza modu positiboagoan bidera dadin laguntzen dutela; beraz, ikasleen galdetegian motibazioarekin lotutako galderen inguruan eta irakurketarekin lotuta dituzten ikaskuntza-estrategien inguruan galdetzen zitzairen. Erantzunetatik abiatuta, ikasleek ikaskuntzari nola aurre egiten dieten neurtzeko indizeak sortu dira.

INDIZEA	ITEMAK
<p><b>IRAKURKETARAKO MOTIBAZIOA ETA ZALETASUNA</b></p> <p>Motibazioa da ikaskuntzaren indargune nagusia. Jarduerako dibertsioa eta interesa horri eskaintzen zaion denborarekin lotu ohi da. Azterketek eta ikerketek erakusten dute irakurketarako motibazioa motibazio orokorretik urrun samar dagoela.</p>	<p><b>1. Irakurketarekiko interesa eta zaletasuna</b> Interesatuta egotea eta irakurtzen dibertitzea irakurketa-errendimendu altuarekin eta ikaskuntza-estrategia konplexuen erabilerarekin dago lotuta (Schiefele, 2009). Irakurle onenek asko irakurtzeko joera izan ohi dute oso motibatuta daudelako.</p> <p><b>2. Irakurketari eskainitako denbora</b> Atseginez irakurketari eskainitako denbora kopurua irakurketarekiko interesaren adierazlea da eta maiztasuna irakurmenarekin edo idatziaren ulermenarekin oso lotuta dago (Baker eta Wigfield, 1999; Cipielewski eta Stanovich, 1992). Irakurle onek asko irakurtzeko joera dute, motibatuta daudelako, eta horrek beren hiztegia eta idatziaren ulermena hobetzea eragiten du.</p>

## IKASKUNTZA ESTRATEGIAK

Ikasleek beren helburuak erdiesteko aukeratzeko dituzten jarduera-planak dira ikaskuntza-estrategiak: testua buruz ikastea, xehetasunen informazioa ateratzea, dagoeneko erdietsitakoei ezagutza berriak txertatzea, eta eskola-testuinguruan eta alor pertsonalean aplikatzea, irakurketa-ulermena egiaztatzea eta abar.

Informazioa prozesatzeko trebeziak eskatzen dituen ikaskuntzako estrategia kognitiboen artean, testua "ulertu eta gogoan izatea" eta "laburbiltzea" daude; horiei "estrategia metakognitiboak" deitu zaie eta norbere ikaskuntzaren auto-erregulazio kontzientea dira. "Estrategia mnemoteknikoak" edo memorizazio-, kontrol- eta prestaketa-estrategiak dira beste hiru estrategia orokorrenak eta PISA 2009ko datuetatik abiatuta aztertzen direnak.

### 3. Irakurketako materialak

Irakurketa-testu aukera zabala dutela dioten ikasleek atera dituzte emaitza onenak PISA 2009an. Fikziozko testuak irakurtzen dituztela diotenek ere emaitza onak lortu dituzte. Irakurketako materialaren eta emaitzen artean kausa-harremana ezarri ezin den arren, irakurtzen dituztela edo irakurtzea gustatzen zaiela dioten testu motaren gaineko eta PISA 2009an lortutako emaitzen gaineko informazioa eskaintzeko balio du.

### 4. Irakurketa digitaleko jarduerak.

Ordenagailua eta teknologia berriak erabiltzeak gazteek egiten dituzten irakurketa digitaleko jarduerak irakurketan lortzen dituzten emaitzekin nola lotzen diren aztertzeko aukera ematen du. Jarduera jakin batzuk zer maiztasunekin egiten dituzten galdetu zitzaizen ikasleei: *txateatu*, Interneten informazioa bilatu eta abar.

### Estrategia metakognitiboak:

#### 5. Ulertzeko eta gogoan izateko estrategiak

Ikasleei galdetu zitzaizen ba al zekiten zer estrategia erabili behar zituzten irakurritako testu bat ulertzeko eta gogoan izateko.

#### 6. Laburbiltzeko estrategiak

Ikasleei galdetu zitzaizen ba al zekiten zer estrategia erabili behar zituzten testu luze eta konplexu bat laburbiltzeko.

### Estrategia mnemoteknikoak:

#### 7. Memorizazioa

Eduki orokorreko alorrei, xehetasunen memorizazioari, testuaren alor orokorrei eta abarri dagokionez testuen informazioa memorizatzeko zer teknika erabiltzen dituzten galdetu zitzaizen ikasleei.

#### 8. Prestatzea

Informazio berria aurretiazko ezagutzetara transferitzeko zer estrategia erabiltzen zituzten galdetu zitzaizen. Testuinguru orotan eskuratutako ezagutza informazio berriarekin nola erlazionatzen den eta ikastetxetik kanpo nola transferitzen den aztertu nahi da.

#### 9. Kontrola

Ikasleek lanaren helburuaren edo testuaren eta kontzeptu nagusien gainean zer kontrol duen ezagutzea da helburua. Baita ikasketa-jardueretan duen norbere buruarekiko kontrola ere, eta batez ere, irakurketa-materiala ulertzeko kontrola.



3

**IRAKURKETAREKIKO  
MOTIBAZIO FAKTOREAK  
ETA ERRENDIMENDUAN  
DUEN ERAGINA**





### 3. IRAKURKETAREKIKO MOTIBAZIO FAKTOREAK ETA ERRENDIMENDUAN DUEN ERAGINA

Errendimenduari buruzko hainbat azterketek agerian jarri dute ikasleen aldagai pertsonalen eta arrakasta akademikoaren artean dagoen harremana<sup>3</sup>. Horien artean, ikastearekiko motibazio positiboak, ikasgai batekiko interesak edo autokontzeptu ona izateak ikaskuntzan nola eragiten duen aztertu da. Egiaztatu da elementu horiek subjektua ikaskuntzan inplikatzeko moduan eragina dutela, eta emaitza onen adierazleak eta iragarleak izan ohi dira.

Hala eta guztiz ere, jakinarazi behar da faktore horien eta errendimenduaren arteko bat-etortzeak ez duela kausalitate-harremana eragiten; hau da, irakurketarekiko motibazio eta interes handia izateak ez du beti emaitza onak lortzea bermatzen. Hala eta guztiz ere, gerta liteke Irakurketan errendimendu handia izateak materiarekiko motibazioa eta inplikazioa handitzea.

Irakurketarako konpetentzia ebaluatzeko garaian, PISA 2009k irakurketarekiko motibazioa eta interesa aztertu ahal izateko galdera jakin batzuk egin dizkie ikasleei; hori PISA 2000n ere aztertu zen jada. PISA 2000ko proban egiaztatuta gelditu zen irakurketa-errendimenduaren hobekuntzak eragin handia duela ikasleen etorkizuneko bizitzan, bai izan ditzaketen aukera akademikoetan, bai lan-aukeretan. Gainera, errendimenduaren eta beste faktore batzuen artean lotura dagoela ondorioztatu zen, esate baterako, irakurketarekiko interes maila, irakurtzeari eskainitako denbora eta irakurtzen dituzten materialen aniztasuna.

Elk<sup>4</sup> PISA 2000 azterketan egindako txostenean aipatzen den moduan, irakurketarako konpetentziaren eta irakurketarekin izandako konpromisoaren (jokaerak, interesak eta praktikak) arteko korrelazioa irakurketarako konpetentziaren eta maila sozioekonomiko eta kulturalaren artekoa baino handiagoa izan zen. Hortik, ondoriozta daiteke ikastetxe batek gara dezakeen zereginik eraginkorrenetako bat irakurketarako estrategiak eta irakurketarekiko interesa bultzatzea dela, distantzia sozialak eta kulturalak murrizte aldera, betiere.

#### 3.1. IRAKURKETAREKIKO INTERESA ETA ZALETASUNA

**Zaletasunez edo dibertsioz irakurtzea oso lotuta dago irakurmeneko errendimenduari. Euskadiko ikasleek ELGAko ikasleen batez bestekoak baino interes gutxiago erakusten dute irakurketarekiko, eta neskek mutilek baino interes handiagoa erakusten dute; gauza bera gertatzen da herrialde eta komunitate autonomo gehienetan ere.**

<sup>3</sup> ACOSTA, E.S. (2001): The relationship between school climate, academia self-concept and academia achievement. *Dissertation Abstracts International Section A: Humanities and Social Sciences*, 62.

VILLARROEL, V.A. (2001): Relación entre auto concepto y rendimiento académico. *Psykhé: Revista de la escuela de Psicología* 10(1): 3-18.

<sup>4</sup> Ebaluazio Institutua. PISA 2009. Espainiako txostena. 4. Irakurketaren eta ikaskuntzaren aurrean ikasleek dituzten jokaerak

Irakurketarekiko interesa eta irakurketarekin gozatzeko gaitasuna da motibazioaren alorretako bat eta ikaskuntzan eragin handia duela dirudi. Irakurketarekin gozatzeak efektu positiboa du zereginean irauteko denboran, ikaskuntza-estrategien ulermenean eta etorrako zaizkion ikaskuntzako egoera desberdinak ebazteko jarduera egokiak aukeratzeko garaian. Gainera, nahiko segurua da ikasleek materia zehatz batekiko edo ikasketarekiko oro har duten motibazioak efektu positiboak dituela irakasleengan eta ikasgelako giroan.

Gazteen berezko motibazioa ebaluatzeko, ikasleen galdetegian hainbat galdera egin zituzten eta horietatik abiatuta egin zen "Irakurketarekiko interesa eta zaletasuna" indizea. Galderetan adostasun mailaren araberrako aukera bat hautatu behar zen: "gutziz ados" "ados" "desados" eta "gutziz desados"; hauek ziren galderak:

*Irakurketari buruzko baieztapen hauekin zenbateraino zaude ados edo desados?*

- a) Derrigorrezkoa bada soilik irakurtzen dut
- b) Irakurtzea da nire zaletasunik handienetako bat
- c) Beste pertsonekin liburuez hitz egitea gustatzen zait
- d) Liburuak amaitzea kostatu egiten zait
- e) Opari gisa liburuak jasotzea asko gustatzen zait
- f) Nire ustez, irakurtzea denbora galtzea da
- g) Asko gozatzen dut liburutegietara eta liburu-dendetara joanez
- h) Behar dudan informazioa lortzeko soilik irakurtzen dut
- i) Minutu gutxi batzuetan soilik lasaitu eta irakur dezaket
- j) Irakurri ditudan liburuei buruz nire iritzia ematea gustatzen zait
- k) Nire lagunekin liburuak trukitzea gustatzen zait.

Indizeko balio positiboek irakurketarekiko interes maila handia erakusten dute, eta balio negatiboek, berriz, interes maila txikiagoa islatzen dute. Euskadin, indizearen balioak -3,23 (irakurketarekiko interes maila baxuena dutenen balioa), eta 3,50 artean daude (interes mailarik handiena dutenena). Indizearen batez besteko balioa -0,04koa da.


**PISA 2009. Euskadiko "Irakurketarekiko interesa eta zaletasuna" Indizearen balioak**

Kopurua	Gutxienekoa	Gehienekoa	Batez bestekoa	Akats tipikoa
15.110	-3,23	3,50	-0,04	0,02

"Irakurketarekiko interesa eta zaletasuna" eta emaitzen arteko lotura erakusteko, ikasleak lau taldetan banatu dira, erakutsitako interesaren arabera (handia edo txikia), talde bakoitzak lortzen duen batez besteko puntuazioa zehaztuz: beheko kuartilean interes mailarik baxuena dutenak, bigarren eta hirugarren kuartilean erdi mailako interesa dutenak, eta azken kuartilean irakurketarekiko interes maila altuena erakusten dutenak<sup>5</sup>. Hurrengo grafiko honetan ikus daitekeen moduan, interesa zenbat eta handiagoa izan, irakurketako emaitzak orduan eta hobek dira.

<sup>5</sup> Lehen adierazi da alderaketak egiteko garaian PISAk ELGAren indize guztietarako batez bestekoak 0 balioan ezartzen dituela, 1eko desbideratze tipikoarekin. Ondorioz, ELGAko herrialdeetako batez bestekoa alderatu nahi denean, indizearen puntuazioa 0 balioarekin alderatu beharko da.

### I. grafikoa. PISA 2009. Irakurketarekiko interesa eta zaletasuna eta errendimendua



Euskadiko eta beste herrialde parte-hartzaileetako ikasleek indize honetan dituzten balioak erakusten ditu hurrengo taulak; gainera, ELGAko batez bestekoa erakusten du taulak.

#### PISA 2009. "Irakurketarekiko interesa eta zaletasuna" eta errendimendua

HERRIALDEAK	Irakurketarekiko interesa eta zaletasuna						Puntuazioa Irakurketan				Indizeko unitate bakoitzeko aldaketa puntuazioan
	Ikasleak, guztira		Interes eta zaletasun maila baxua		Interes eta zaletasun maila altua		Interes eta zaletasun maila baxua		Interes eta zaletasun maila altua		
	Batez b	AT	Batez b	AT	Batez b	AT	Batez b	AT	Batez b	AT	
Alemania	0,07	0,02	-1,33	0,01	1,63	0,02	451	4,0	562	3,0	36,6 (1,36)
Italia	0,06	0,01	-1,10	0,01	1,27	0,01	445	2,3	544	2,1	40,4 (1,02)
Finlandia	0,05	0,02	-1,25	0,02	1,35	0,02	475	2,7	596	2,7	43,3 (1,17)
Frantzia	0,01	0,03	-1,26	0,01	1,30	0,02	435	4,9	562	4,1	47,1 (2,28)
<b>ELGA</b>	<b>0,00</b>	<b>0,00</b>	<b>-1,17</b>	<b>0,00</b>	<b>1,27</b>	<b>0,01</b>	<b>450</b>	<b>0,6</b>	<b>553</b>	<b>0,6</b>	<b>39,5 (0,28)</b>
Espania	-0,01	0,01	-1,15	0,01	1,22	0,01	439	2,6	537	1,9	38,4 (0,97)
<b>Euskadi</b>	<b>-0,04</b>	<b>0,02</b>	<b>-1,15</b>	<b>0,02</b>	<b>1,15</b>	<b>0,02</b>	<b>449</b>	<b>4,6</b>	<b>549</b>	<b>3,4</b>	<b>40,3 (1,59)</b>
Erresuma Batua	-0,12	0,02	-1,29	0,02	1,13	0,02	446	3,2	562	2,7	45,0 (1,52)
Luxenburgo	-0,16	0,02	-1,43	0,02	1,25	0,02	426	2,7	537	2,7	39,9 (1,34)
Herbehereak	-0,32	0,03	-1,69	0,03	0,88	0,02	464	5,1	560	5,7	38,5 (1,88)

Datu horiek aztertuz, ondorio hauek atera daitezke:

- Euskadiko 15 urteko ikasleek irakurketarekiko ELGAko batez bestekoak baino askoz ere interes maila baxuagoa erakusten dute. Hala eta guztiz ere, lortutako batez besteko puntuazioa ELGAkoarenaren antzekoa da.
- Interes mailarik baxuena dutela dioten ikasleek lortzen dituzte emaitzarik baxuenak; aldiz, interes mailarik altuena erakusten dutenek dute errendimendurik altuena. Konstante hori berdin gertatzen da aukeratutako herrialde guztietan.
- Indizearen balioan (hau da, desbideratze estandarra) puntu bateko aldakuntzaren eraginez, irakurketako emaitzek ELGAN batez beste % 39,5eko gorabehera dute, eta Euskadin, batez beste

% 40,3 puntuko gorabehera. Aldea estatistikoki ez da adierazgarria; hau da, “Irakurketarekiko interesa” indizearen balioa handitzeak edo murrizteak eragin berbera du Euskadiko eta ELGAko emaitzetan.

- Aukeratutako herrialde gehienak Euskadiren egoera bereberean daude; Indizearen balioa aldatzeak Frantzia eta Erresuma Batuen kasuan soilik du eragina emaitzetan (47 puntu Frantzian eta 45 puntu Erresuma Batuan).

Indize honek PISA 2009an parte hartu duten komunitate autonomo desberdinetan dituen balioak erakusten ditu hurrengo taulak, baita horietako bakoitzak irakurketan lortutako batez besteko puntuazioa ere. Taula hau batez besteko puntuazioaren arabera, handienetik txikienera ordenatuta dago.

Emaitzen lehen txostenean ageri zen moduan<sup>6</sup>, Euskadiko batez besteko puntuazioa Espainiako eta beste komunitate batzuetako batez bestekoa baino nabarmen altuagoa da.

**PISA 2009. “Irakurketarekiko interesa eta zaletasun” maila eta Irakurketako errendimendua komunitate autonomoetan**

EE.AA	INDIZEAREN BATEZ BESTEKO BALIOA		IRAKURKETAKO BATEZ BESTEKO PUNTUAZIOA		Indizeko unitate bakoitzeko aldaketa puntuazioan
	Batezb.	A.T.	Batezb.	A.T.	
Madril	0,05	0,03	503	4,4	39,4 (2,64)
Gaztela eta Leon	0,10	0,03	503	4,9	37,0 (2,03)
Katalunia	0,07	0,02	498	5,2	33,2 (2,32)
Errioxa	-0,04	0,03	498	2,4	43,1 (2,33)
Nafarroa	-0,09	0,04	497	3,1	39,1 (2,58)
Aragoi	-0,09	0,03	495	4,1	38,5 (2,24)
<b>Euskadi</b>	<b>-0,04</b>	<b>0,02</b>	<b>494</b>	<b>2,9</b>	<b>40,3 (1,56)</b>
Asturias	-0,02	0,03	490	4,8	39,4 (2,34)
Kantabria	-0,07	0,03	488	4,1	41,6 (2,44)
Galizia	-0,04	0,03	486	4,4	46,2 (2,45)
Spainia	-0,01	0,01	481	2,0	39,9 (0,97)
Murtzia	0,02	0,05	480	5,1	33,4 (2,44)
Andaluzia	-0,11	0,04	461	5,5	39,9 (2,72)
Balear uharteak	-0,02	0,03	457	5,6	39,4 (2,88)
Kanariar uharteak	-0,03	0,03	448	4,3	41,4 (2,56)
Ceuta eta Melilla	0,03	0,03	412	2,5	23,2 (3,22)

**Euskadi** Euskadiko batez bestekoa baino batez besteko puntuazio nabarmen baxuagoak. Gainerako komunitate autonomoekiko aldea ez da adierazgarria.

Oro har, irakurketan puntuaziorik altuenak dituzten komunitateek indize honetan ere balio altuak dituzte; hori da Madril, Gaztela eta Leon eta Kataluniaren kasua Euskadin, unitate bateko indizeak gora egiten duenean (40,3), errendimenduaren aldaketa ELGAren batez bestekoan (39,5), Espainian (39,9) eta beste zortzi komunitate autonomotan gertatzen den aldaketaren oso antzekoa da; horrek adierazten du kasu hauetan, indizea aldatzen denean emaitzen eragina oso antzekoa dela.

<sup>6</sup> PISA 2009. *Lehen txostena*. Emaitzak Euskadin. ISEI-IVEI. [www.isei-ivei.net](http://www.isei-ivei.net)

### 3.2. ZALETASUNEZ EDO DIBERTSIOZ IRAKURKETARI ESKAINITAKO DENBORA

**Irakurketako errendimenduak gora egiten du zaletasunez edo dibertsioz irakurtzeari eskaintako denborak gora egiten duen heinean; hala eta guztiz ere, egunero denboratarte jakin bat irakurtzeari eskaintzeak zehazten du puntuazioetako aldea. Euskadin, ikasleen ehuneko altu batek ez du irakurtzen (% 43,4); talde honen eta egunero irakurtzen dutenen arteko puntuazio-aldea 52 puntukoa da.**

Zaletasunez edo dibertsioz irakurtzeari eskaintzen zaion denbora kopurua da irakurketarako interesaren adierazleetako bat. Hainbat ikerketak erakutsi dute irakurtzeari eskaintako denborak idatzizko ulermenarekin zerikusia duela, eta agirian jarri dute irakurle onek gehiago irakurtzeko joera dutela, oso motibatuta daudelako; ondorioz, era berean, hiztegia aberasten da eta irakurtzeko gaitasuna hobetzen da (Baker eta Wigfield, 1999; Cipielewski eta Stanovich, 1992). Bestalde, irakurle txarrek irakurtzea derrigorrezkoa den egoerak saihesteko joera dute, eta hobekuntza-aukerak mugatzen dituzte.

Ikasleen galdetegiko hurrengo galderaren bidez aztertu zuen PISAk gaia; horrela, ikasleek dibertsioz edo aisialdi gisa irakurketari eskaintako denboraren berri izan dezakegu.

*Zenbat denbora eskaintzen diozu plazerez irakurtzeari?*

- a) Ez dut dibertsioz irakurtzen
- b) Egunean 30 minutu baino gutxiago
- c) Egunean 31 eta 59 minutu artean
- d) Egunean 1 eta 2 ordu artean
- e) Egunean 2 ordu baino gehiago

Hurrengo taulek ikasleen ehunekoa eta irakurketan lortu duten batez besteko puntuazioa erakusten dute, irakurketari eskaintako denboraren arabera, betiere. Datuak Euskadiko eta beste herrialde parte-hartzaile batzuetako ikasleen ehunekoetan erakusten dira; gainera, ELGAko batez besteko ehunekoa ere ageri da.


**PISA 2009. Ikasleen ehunekoa, “Zaletasunez edo dibertsioz irakurketari” eskaintako denboraren arabera**

HERRIALDEAK	Ikasleen ehunekoa				
	Ez dut irakurtzen	Egunean 30 minutu	Egunean 30 eta 60 minutu artean	1 eta 2 ordu artean	2 ordu baino gehiago
Finlandia	33,0	32,4	18,6	12,7	3,2
Italia	33,9	28,5	18,9	13,7	5,0
<b>ELGA</b>	<b>37,4</b>	<b>30,3</b>	<b>17,2</b>	<b>10,6</b>	<b>4,5</b>
Frantzia	38,8	31,1	16,4	9,8	3,9
Espainia	39,6	25,6	19,5	11,3	3,9
Erresuma Batua	39,6	31,5	15,5	9,8	3,6
Alemania	41,3	24,7	16,8	11,3	5,9
<b>Euskadi</b>	<b>43,4</b>	<b>25,9</b>	<b>18,4</b>	<b>9,4</b>	<b>2,8</b>
Luxenburgo	48,2	24,6	13,9	8,8	4,4
Herbehereak	48,6	30,8	12,6	6,3	1,8

Datuek hau adierazten dute:

- Euskadiko ikasleen % 43,4ren arabera, ez du zaletasunez irakurtzen; ehuneko hori Finlandia edo Italiakoa baino % 10 altuagoa da, baita Espainiako batez bestekoa -% 39,6- baino altuagoa ere.
- Aukeratutako herrialdeen artean, Euskadi da irakurle gogotsuak (2 ordu baino gehiago) diren ikasleen ehuneko baxuena duenetako bat. Ikus daitekeen moduan, Euskadiko ehunekoak, denbora-tarte guztietan, Alemaniakoaren antzekoak dira, oso irakurle gogotsuak diren ikasleen kasuan izan ezik; kasu horretan, Euskadiko ehunekoa bikoiztu egiten du.

**2. grafikoa: PISA 2009. "Irakurketari zaletasunez edo dibertsioz" eskaintako denbora eta errendimendua.**



Aurreko grafikoak erakusten du ikasleek zaletasunez edo dibertsioz irakurtzen dutela dioten denbora kopuruak gora egin ahala, irakurketako errendimenduak gora egiten duela ia kasu guztietan. Hala eta guztiz ere, atari jakin batetik aurrera badirudi ez dagoela bateragarritasun hori. Irakurtzen egunean 2 ordu baino gehiago egiten dituen ikasleak emaitzetan ez du proportzio horretan hobetzen; oro har, egunean 30 eta 60 minutu artean irakurtzen duen taldearen antzeko emaitzak lortzen ditu. Ondorioz, garrantzia denbora-kopuruaren arabera izan beharrean, zaletasunez edo dibertsioz egunero denbora kopuru bat irakurketari eskaintzean dago gakoa.

**PISA 2009. Irakurketako batez besteko puntuazioa, "Zaletasunez edo dibertsioz irakurketari" eskaintako denboraren arabera**

HERRIALDEAK	Puntuazioa Irakurketan									
	Ez dut irakurtzen		Egunean 30 minutu		Egunean 30 eta 60 minutu artean		Egunean 1 eta 2 ordu artean		2 ordu baino gehiago	
	Batez	A.T	Batez	A.T	Batez	A. T	Batez	A.T	Batez	A.T
Finlandia	492	2,5	545	2,7	569	3,3	572	4,0	568	9,1
Italia	449	2,3	489	1,8	516	2,7	521	2,2	528	3,5
<b>ELGA</b>	<b>460</b>	<b>0,6</b>	<b>504</b>	<b>0,6</b>	<b>527</b>	<b>0,7</b>	<b>532</b>	<b>0,8</b>	<b>527</b>	<b>1,3</b>
Frantzia	450	4,4	545	2,7	569	3,3	572	4,0	568	9,1
Espainia	453	2,4	484	2,5	510	2,5	515	3,1	517	4,2
Erresuma Batua	458	2,6	505	3,2	531	4,3	549	4,7	539	7,5
Alemania	457	3,5	513	3,3	545	3,5	548	4,5	532	6,8
<b>Euskadi</b>	<b>465</b>	<b>3,6</b>	<b>508</b>	<b>3,1</b>	<b>527</b>	<b>3,5</b>	<b>527</b>	<b>4,2</b>	<b>517</b>	<b>10,8</b>
Luxenburgo	437	1,9	493	3,3	516	3,7	524	4,8	519	7,2
Herbehereak	478	4,5	534	5,9	552	5,5	541	8,5	514	10,6

Dibertsioz batere irakurtzen ez duten eta zerbait irakurtzen duten (egunean 30 minutu inguru) ikasleen artean gertatzen da alderik handiena puntuazioei dagokienez; talde horietan, aldeak 43 puntukoak dira Euskadin eta 44 puntukoak ELGAN.

Zaletasunez edo dibertsioz egunero irakurketari denbora-tarte bat eskaintzeak puntuazioan aldea markatzen duenez, Europako herrialdeetan eta komunitate autonomo parte-hartzaileetan, indize honen azterketa irizpide hauen arabera egiten da: batere irakurtzen ez duten ikasleak eta zaletasunez edo dibertsioz irakurketari denbora jakin bat eskaintzen dioten ikasleak.

**PISA 2009. Ikasleen ehunekoa eta batez besteko puntuazioa Irakurketan, "Zaletasunez edo dibertsioz irakurketari" eskaintako denboraren arabera**

HERRIALDEAK	Ez du zaletasunez irakurtzen			Zaletasunez irakurtzen du <sup>7</sup>		
	Ehunekoa	Batezb.	A.T	Ehunekoa	Batezb.	A.T
Finlandia	33,0	492	2,5	67,0	558	2,3
Italia	33,9	449	2,3	66,1	506	1,6
<b>ELGA</b>	<b>37,4</b>	<b>460</b>	<b>0,6</b>	<b>62,6</b>	<b>517</b>	<b>0,5</b>
Frantzia	38,8	450	4,4	61,2	526	3,3
Espainia	39,6	453	2,4	60,4	500	2,0
Erresuma Batua	39,6	458	2,6	60,4	521	2,6
Alemania	41,3	457	3,5	58,7	530	2,7
<b>Euskadi</b>	<b>43,4</b>	<b>465</b>	<b>3,6</b>	<b>57,6</b>	<b>517</b>	<b>2,7</b>
Luxenburgo	48,2	437	1,9	51,8	507	2,1
Herbehereak	48,6	478	4,5	51,4	539	5,4

Irakurketako emaitzetan alde handia dago irakurtzen duten eta irakurtzen ez duten ikasleen artean; alde hori 70 puntu baino handiagokoa da Frantzia, Alemania eta Luxenburgoren kasuan. Espainian gertatzen da alderik baxuena; izan ere, irakurtzen ez dutenen eta irakurtzen dutenen artean 47 puntuko aldea dago.

Euskadin, egunero zerbait irakurtzeak puntuazioan 52 puntu igotzea eragiten du; ELGAN ere antzeko igoera gertatzen da (57 puntu).

Egunero irakurtzeak emaitzetan eragiten duen eragina PISAn parte hartu duten komunitate autonomoetan ere aztertzen da; datu horiek hurrengo taula honetan erakusten dira.

**PISA 2009. Ikasleen ehunekoa eta batez besteko puntuazioa Irakurketan, komunitate autonomoak "Zaletasunez edo dibertsioz irakurketari" eskaintako denboraren arabera**

EE.AA	Ez du zaletasunez irakurtzen			Zaletasunez irakurtzen du		
	Ehunekoa	Batezb.	A.T	Ehunekoa	Batezb.	A.T
Madril	35,9	470	6,0	64,1	522	4,5
Gaztela eta Leon	32,6	469	5,9	67,4	520	4,7
Katalunia	40,3	471	5,6	59,7	516	5,6
Errioxa	39,2	469	3,9	60,8	516	3,0
Nafarroa	40,9	472	4,1	59,1	514	3,7
Aragoi	36,5	465	5,1	63,5	513	4,2
<b>Euskadi</b>	<b>43,4</b>	<b>465</b>	<b>3,6</b>	<b>57,6</b>	<b>517</b>	<b>2,7</b>
<b>ELGA</b>	<b>37,4</b>	<b>460</b>	<b>0,6</b>	<b>62,6</b>	<b>517</b>	<b>0,5</b>
Asturias	37,0	450	4,6	63	514	5,0
Kantabria	40,8	454	4,3	59,2	511	4,6

<sup>7</sup> Kategoria honek zaletasunez edo dibertsioz egunero gutxi gorabehera 30 minutuz irakurtzen duten ikasleak, 30 eta 60 minutu artean irakurtzen dutenak, 1 eta 2 ordu artean irakurtzen dutenak eta egunero 2 ordu baino gehiago irakurtzen dutenak biltzen ditu

<b>Galizia</b>	38,1	447	4,2	61,9	509	4,8
<b>Espainia</b>	39,6	453	2,4	60,4	500	2,0
<b>Murtzia</b>	37,9	458	5,3	62,1	493	5,5
<b>Andaluzia</b>	43,0	435	5,7	57,0	480	5,3
<b>Balearr uharteak</b>	43,7	432	6,2	56,3	476	6,2
<b>Kanariar uharteak</b>	38,7	424	4,7	61,3	463	4,7
<b>Ceuta eta Melilla</b>	34,5	401	4,8	65,5	417	3,6

Egunero irakurtzeak errendimenduan antzeko eragina du Euskadin, Madrilen eta Gaztela eta Leonen (52 eta 51 puntuko aldea irakurtzen ez dutenen eta irakurtzen dutenen artean). Eragina askoz ere baxuagoa da Ceuta eta Melillan (16 puntu), Murtzian (35 puntu) eta Kanarietan (39 puntu). Asturias eta Galiziako irakurleen eta irakurle ez direnen artean gertatzen da alderik handiena, irakurtzen ez dutenen eta irakurtzen dutenen artean 64 eta 62 puntuko aldearekin hurrenez hurren.

Jakinarazi den moduan, Euskadik du irakurtzen ez duela dioten ikasle kopururik handiena. Ehuneko hori (% 43,4) Espainiako batez besteko ehunekoa eta ELGAkoa baino handiagoa da; hala eta guztiz ere, talde horrek Irakurketan (465 puntu) lortzen duen batez besteko puntuazioa ELGAkoaren berdina eta Espainiako batez bestekoa (453 puntu) baino nabarmen altuagoa da.

Horrek adieraziko luke zaletasunez edo dibertsioz irakurtzea errendimendurako oso garrantzitsua izan arren, ez dela emaitzetan eragina duen elementu bakarra eta irakurlearen errendimenduan indar berberarekin esku hartuko duten beste aldagai batzuk egotea derrigorrezkoa izango dela.

### 3.3. ZALETASUNEZ EDO DIBERTSIOZ IRAKURRITAKO MATERIALEN ANIZTASUNA

**Emaitzei begira, garrantzitsua ez da material mota jakin bat irakurtzea, material aukera zabala irakurtzea baizik. Oro har, borondatez zenbat eta material-aukera handiagoa erabili, emaitzak orduan eta hobekak izango dira. Euskadin, indize honen balioa ELGAko batez bestekoa baino nabarmen baxuagoa da. Material aukera zabala irakurtzen dutenen eta irakurtzen ez dutenen artean 55 puntuko aldea dago irakurketako puntuazioan.**

Testu mota desberdinak, komikiak, nobela, fikzioa, kontakizunak eta abar barne hartuko dituzten irakurketako materialen aukera zabala erabiltzea irakurketa-konpetentzia handiagoak garatzearekin lotu daiteke. Lehenetsitako irakurketako materialaren eta emaitzen artean kausa-harremana ezarri ezin daitekeen arren, mota bateko baino gehiagotako liburuak irakurtzen dituztela dioten ikasleek oso emaitza onak atera dituzte PISA 2009an.

Aisialdian irakurtzeko beren borondatez aukeratzen duten material motari buruzko informazioa ematen du ikasleen galdetegiak; horrela, aldagai horren eta irakurketako errendimenduaren arteko lotura azter dezakegu.

Zaletasunez edo dibertsioz zer material mota irakurtzen duten eta zer maiztasunekin egiten duten galdetu zitzaizen: “inoiz ez edo ia inoiz ez”, “urtean gutxitan”, “hilean behin”, “hilean hainbat aldiz” edo “astean hainbat aldiz”. Material mota hauen inguruko iritzia eskatzen zitzaizen:



Zer maitasunarekin irakurtzen dituzu material mota hauek zuk nahi duzulako?

- Aldizkariak
- Komiki-liburuak
- Fikzioa (nobelak, narratiba, kontakizunak)
- Fikziozkoak ez dirten liburuak
- Egunkariak

Jarraian ageri den taulak zaletasunez edo dibertsioz irakurketako material mota desberdinak irakurtzen dituztela dioten ikasleen ehunekoa erakusten du: "hilean hainbat aldiz" edo "astean hainbat aldiz". Egunkariak maiztasun horrekin irakurtzen dituztela dioten ikasleen ehunekoa duten herrialdeen arabera dago taula ordenatuta, handitik txikira.

**PISA 2009. Ikasleen ehunekoa hauen arabera: "zaletasunez edo dibertsioz irakurtzen duen material mota", "hilean hainbat aldiz" edo "astean hainbat aldiz"**

HERRIALDEAK	Ikasleen ehunekoa									
	Aldizkariak		Komiki-liburuak		Fikzioa (nobelak, narratiba, kontakizunak)		Fikziozkoak ez diren liburuak		Egunkariak	
	%	A.T.	%	A.T.	%	A.T.	%	A.T.	%	A.T.
Finlandia	64,9	0,8	60,1	0,9	26,1	0,8	15,5	0,5	75,4	0,8
Luxenburgo	68,7	0,8	20,3	0,7	28,8	0,7	19,3	0,5	70,7	0,6
<b>ELGA</b>	<b>58,2</b>	<b>0,1</b>	<b>22,4</b>	<b>0,1</b>	<b>30,6</b>	<b>0,1</b>	<b>18,7</b>	<b>0,1</b>	<b>62,3</b>	<b>0,1</b>
Erresuma Batua	59,6	0,8	7,8	0,4	31,5	0,7	19,5	0,5	61,2	0,8
Alemania	54,9	0,8	11,3	0,5	32,4	0,8	17,2	0,8	61,8	1,0
<b>Euskadi</b>	<b>58,5</b>	<b>0,8</b>	<b>12,1</b>	<b>0,5</b>	<b>30,7</b>	<b>0,7</b>	<b>22,0</b>	<b>0,6</b>	<b>56,3</b>	<b>0,9</b>
Italia	48,8	0,5	17,4	0,3	35,0	0,5	4,9	0,2	53,4	0,5
Herbehereak	57,2	1,4	23,1	0,9	21,5	1,0	12,6	0,6	48,5	1,5
Frantzia	62,5	0,8	30,4	0,8	28,9	1,0	12,0	0,5	46,7	1,1
Espainia	51,3	0,7	12,0	0,4	30,1	0,5	18,3	0,4	45,1	0,7

Euskadiko 15 urteko ikasleen % 58,5ek hilean edo astean hainbat aldiz irakurtzen ditu aldizkariak; % 56,3k egunkariak irakurtzen ditu; % 30,7k, fikziozko liburuak; % 22k, beste liburu mota batzuk, eta proportzio txikiagoan, % 12,1ek komiki-liburuak irakurtzen ditu. Oro har, ehuneko horiek ELGARi dagozkionak baino baxuagoak edo antzekoak dira, "fikziozkoak ez diren liburuak irakurtzea" izan ezik; izan ere, Euskadiko gazteek ELGAkoek baino gehiago irakurtzen dute. Espainiako batez bestekoarekin lotuta, aldizkariak, fikziozkoak ez diren liburuak eta egunkariak irakurtzen dituzten gazteen ehunekoa nabarmen altuagoa da.


Hala eta guztiz ere, PISAko emaitzek adierazten dutenez, emaitzei begira benetan garrantzitsua ez da material mota jakin bat irakurtzea, material mota asko irakurtzea baizik. Oro har, irakurleak zenbat eta liburu mota desberdinagoak irakurri eta zenbat eta material gehiago erabili, eskuratuko duen errendimendua orduan eta hobea izango da. Horren adibide gisa, hurrengo tauletan "Zaletasunez edo dibertsioz irakurritako material aniztasuna" indizea eta emaitzekin duen lotura aztertzen da.

**PISA 2009. "Zaletasunez edo dibertsioz irakurritako materialen aniztasuna" indizearen balioak. Euskadi**

Kopurua	Gutxienekoa	Gehienekoa	Batez bestekoa	Akats tipikoa
15.383	-3,95	4,65	-0,11	0,02

Indize honen eta emaitzen arteko lotura erakusteko, bi ikasle talderi dagozkien datuak zehazten dira: irakurtzen duten materialen aniztasunean baliorik baxuena dutenak (1. kuartila) eta indize honetan baliorik altuena dutenak (4. kuartila). Hurrengo grafikoan ikus daitekeen moduan, irakurtzeko borondatez erabilitako materialen aniztasuna zenbat eta handiagoa izan, irakurketan orduan eta emaitza hobea lortzen dira.

### 3. grafikoa. PISA 2009. "Zaletasunez edo dibertsioz irakurritako materialen aniztasuna" eta Irakurketako errendimendua



Indize honen balioak, Euskadiko eta beste herrialde parte-hartzaileetako ikasleek lortu duten puntuazioa eta ELGAko batez bestekoa ageri dira taula honetan.

PISA 2009. "Zaletasunez edo dibertsioz irakurritako materialen aniztasuna" eta errendimendua

HERRIALDEAK	Material aniztasuna						Puntuazioa Irakurketan				Indizeko unitate bakoitzeko aldaketa puntuazioan
	Ikasleak, guztira		Erabilera maila baxua		Erabilera maila altua		Erabilera maila baxua		Erabilera maila altua		
	Batezb	AT	Batezb	AT	Batezb	AT	Batezb	AT	Batezb	AT	
Finlandia	0,45	0,02	-0,55	0,02	1,44	0,02	494	3,1	575	3,1	37,9 (1,72)
Luxenburgo	0,06	0,02	-1,14	0,02	1,17	0,02	440	3,0	498	2,9	21,7 (1,77)
<b>ELGA</b>	<b>0,00</b>	<b>0,00</b>	<b>-1,18</b>	<b>0,00</b>	<b>1,11</b>	<b>0,01</b>	<b>462</b>	<b>0,7</b>	<b>517</b>	<b>0,6</b>	<b>21,9 (0,30)</b>
Frantzia	-0,07	0,02	-1,28	0,02	1,05	0,02	451	5,7	526	4,3	30,9 (2,68)
Euskadi	-0,11	0,02	-1,35	0,03	1,03	0,02	465	4,5	520	3,8	20,2 (1,50)
Erresuma Batua	-0,11	0,02	-1,23	0,02	0,95	0,01	466	3,0	511	3,3	19,2 (1,36)
Alemania	-0,18	0,02	-1,36	0,03	0,90	0,02	469	4,0	526	3,3	23,9 (1,89)
Espainia	-0,30	0,01	-1,49	0,02	0,80	0,01	445	2,9	512	2,6	25,7 (1,16)
Italia	-0,31	0,01	-1,45	0,01	0,69	0,01	448	2,6	514	2,1	29,5 (1,26)
Herbehereak	-0,32	0,04	-1,81	0,04	1,00	0,02	465	5,1	548	5,2	26,4 (1,67)

Euskadin, indize honen balioa ELGAkoa baino nabarmen baxuagoa eta Espainiakoa baino altuagoa da

Datu horiek aztertuz, ondorio hauek atera daitezke:


- Euskadiko 15 urteko ikasleek ELGAko batez bestekoak baino gutxiago erabiltzen du irakurketako material aniztasuna. Aldea adierazgarria da.
- Kasu guztietan, oso anitzak ez diren materialak irakurtzen dituzten ikasleek material aukera zabala irakurtzen dutenek baino emaitza baxuagoak lortzen dituzte. Bi taldeen artean, puntuazio-aldeak nabariak dira: 81 puntu Finlandian; 66 eta 67, Italian eta Espainian, hurrenez hurren, eta 58, Luxenburgon.
- Euskadin 55 puntuko aldea dago irakurketako material-aukera zabala maiz erabiltzen dutenen eta erabiltzen ez dutenen artean.
- Indize honen balioan puntu bateko aldeak 21,9 puntuko batez bestekoarekin aldatzen ditu emaitzak ELGAN, eta 20,2 punturekin Euskadin. Aldea estatistikoki ez da adierazgarria; hau da, "Zaletasunez

edo dibertsioz irakurritako materialen aniztasuna” indizearen balioa murrizteak edo handitzeak emaitzetan eragin berbera du Euskadin eta ELGAN. Hala eta guztiz ere, Espainiako emaitzekin alderatuta nabarmena da; izan ere, bertan, indizea aldatzeak 25,7 puntu aldatzen ditu emaitzak.

Komunitate autonomo parte-hartzaileetan indize honi dagozkien datuak eta bakoitzak irakurketan lortutako emaitzak ageri dira taulan.

**PISA 2009. “Irakurketako material aniztasuna” eta errendimendua komunitate autonomoetan**

EE.AA	Indizearen batez besteko balioa		Irakurketako batez besteko puntuazioa		Indizeko unitate bakoitzeko aldaketa puntuazioan
	Batezb.	A.T.	Batezb.	A.T.	
Madril	-0,26	0,04	503	4,4	27,3 (3,10)
Gaztela eta Leon	-0,07	0,02	503	4,9	25,6 (2,18)
Katalunia	-0,28	0,03	498	5,2	21,0 (2,49)
Errioxa	-0,14	0,03	498	2,4	24,9 (3,49)
Nafarroa	-0,09	0,03	497	3,1	25,6 (2,66)
Aragoi	-0,28	0,04	495	4,1	25,2 (2,52)
Euskadi	-0,11	0,02	494	2,9	20,2 (1,50)
ELGA	0,00	0,00	493	0,5	21,9 (0,30)
Asturias	-0,07	0,03	490	4,8	33,2 (2,69)
Kantabria	-0,25	0,03	488	4,1	33,7 (2,18)
Galizia	-0,02	0,03	486	4,4	27,8 (2,97)
Espainia	-0,30	0,01	481	2,0	25,7 (1,16)
Murtzia	-0,33	0,03	480	5,1	19,4 (2,87)
Andaluzia	-0,43	0,03	461	5,5	26,0 (3,27))
Balear uharteak	-0,29	0,03	457	5,6	25,7 (2,67)
Kanariar uharteak	-0,38	0,03	448	4,3	23,3 (3,10)
Ceuta eta Melilla	-0,34	0,03	412	2,5	9 (3,47)


 Euskadiko batez bestekoa baino batez besteko puntuazio nabarmen baxuagoak. Gainerako komunitate autonomoekiko aldea ez da adierazgarria.

Hori aztertzean, ondorioztatzen da Galizia izan ezik gainerako komunitate guztiek ELGAK baino askoz balio txikiagoa dutela indize honetan. Alor horrek emaitzetan duen eraginari dagokionez, ikus daiteke indize honen balioan puntu bateko aldakuntzak antzeko eragina duela Euskadin, Katalunian eta ELGAN. Gainerako komunitate autonomoekin alderatua, aldea nabaria da.

Hurrengo grafikoan, komunitate autonomo bakoitzeko indizearen batez bestekoa Irakurketan lortutako batez besteko puntuazioarekin alderatzen da. Eratzen den erregresio-zuzenak adierazten du material aniztasuna zenbat eta gehiago erabili, Irakurketan orduan eta puntuazio handiagoa lortzen dela. Ikus daitekeen moduan, Euskadi erregresio-zuzen berebanean dago, Andaluzia eta Aragoi bezalaxe; horrek esan nahi du indizearen balioari dagokion puntuazioa lortzen dutela.

Beste komunitate batzuk, Madril edo Katalunia, esate baterako, edo Espainiako batez bestekoa erregresio-linearen gaintik kokatzen dira; indizearen balioaren arabera legezkiekeen puntuazioak baino altuagoak lortu izanaren adierazlea da. Bestalde, beste komunitate batzuek, Balear Uharteek, Kanariar Uharteek edo Galiziak indize honen balioaren arabera legezkiekeen puntuazioak baino baxuagoak lortzen dituzte irakurketan.

**4. grafikoa: PISA 2009. "Zaletasunez edo dibertsioz irakurritako materialen aniztasuna" eta errendimendua, komunitate autonomoen arabera**



### 3.4. IRAKURKETA DIGITALEKO JARDUERAK

**Irakurketa digitaleko jarduerak egiteak ez du irakurketako emaitzekin lotura egonkorrik. Jarduera hauek oso maila baxuan egiten dituztenen eta gainerakoen artean soilik dago alde adierazgarria. ELGAko batez bestekoarekin eta Espainiako batez bestekoarekin alderatuta, Euskadiko ikasleek irakurketa digitalarekin lotutako jarduerak nabarmen gutxiago egiten dituzte.**

Azken urteetan, ordenagailuaren eta teknologia berrien erabilera oso orokortua dago gazteen artean. Erabilera hori, komunikatzeko edo informazioa bilatzeko bidea izateaz gain, gazteen irakurketa-ohiturak aldatzera irits daitekeen irakurketa-kompetentzia bidezko denbora pasatzeko bitartekoa izan daiteke. Horrek gazteek egiten dituzten irakurketa digitaleko jarduerak irakurketan lortzen dituzten emaitzekin nola lotzen diren aztertzeko bidea zabaltzen du.

PISA 2009 edizioak testuak formatu digitalean erabiltzen diren eta horren maiztasunak irakurketaren errendimenduan eraginik baduen ikertzen du. Horretarako, ikasleen galdetegiko galdera honetatik informazioa bildu zuten:

Zer maiztasunekin egiten dituzu Internet bidezko irakurketako hurrengo ariketak?

- Testu elektronikoak irakurtzea (e-mailak)
- Txateatzea (adibidez, messengerra)
- Albisteak Internet bidez irakurtzea
- Entziklopedia-hiztegi bat Internet bidez erabiltzea (esate baterako, Wikipedia)
- Internetez informazioa bilatzea, gai zehatz bati buruz jakiteko
- Internet bidez eztabaidetan edo foroetan parte hartzea
- Internet bidez informazio praktikoa bilatzea (esate baterako, ordutegiak, ikuskizunak, aholkuak, errezetak)

Aukeratutako herrialdeetan “astean hainbat aldiz” edo “egunean hainbat aldiz” maiztasunetan aipatutako jarduerak egiten dituzten ikasleen ehunekoa erakusten du taulak.

**PISA 2009. Ikasleen ehunekoa “Irakurketa digitaleko jardueren” arabera, “astean hainbat aldiz” edo “egunean hainbat aldiz” maiztasunarekin**

HERRIALDEAK	Ikasleen ehunekoa													
	Emailak irakurtzea		Txateatzea		Interneten albisteak irakurtzea		Interneten hiztegiak erabiltzea		Informazioa bilatzea		Eztabaidak edo Foroak Interneten		Informazio praktikoa bilatzea	
	%	A.T.	%	A.T.	%	A.T.	%	A.T.	%	A.T.	%	A.T.	%	A.T.
Alemania	65,3	0,9	82,6	0,6	62,0	0,8	40,9	0,9	52,0	0,9	15,7	0,9	36,1	0,9
Erresuma Batua	74,8	0,7	83,5	0,5	31,5	0,7	19,5	0,5	61,2	0,8	39,4	0,9	30,0	0,9
Luxenburgoko	68,9	0,7	79,6	0,6	58,1	0,7	35,3	0,6	46,2	0,8	17,7	0,6	31,3	0,7
<b>ELGA</b>	<b>63,7</b>	<b>0,1</b>	<b>73,3</b>	<b>0,1</b>	<b>45,7</b>	<b>0,1</b>	<b>39,0</b>	<b>0,1</b>	<b>51,3</b>	<b>0,1</b>	<b>19,6</b>	<b>0,1</b>	<b>35,5</b>	<b>0,1</b>
Finlandia	64,0	0,7	80,8	0,6	35,0	0,8	39,4	0,9	30,0	0,9	26,1	0,6	28,4	0,8
Italia	54,1	0,5	70,8	0,5	55,4	0,5	39,8	0,5	51,8	0,5	19,8	0,3	31,3	0,4
Herbehereak	91,9	0,5	90,5	0,7	45,1	0,9	32,5	1,3	47,9	1,2	15,9	0,8	23,2	1,0
Espainia	55,0	0,6	77,5	0,5	43,7	0,7	39,9	0,8	54,3	0,8	20,6	0,6	33,0	0,6
Frantzia	63,0	0,8	77,1	0,8	45,0	0,9	32,4	0,8	38,4	0,7	9,5	0,5	41,9	1,0
<b>Euskadi</b>	<b>53,4</b>	<b>0,8</b>	<b>78,9</b>	<b>0,5</b>	<b>30,4</b>	<b>0,8</b>	<b>38,3</b>	<b>0,9</b>	<b>43,0</b>	<b>0,7</b>	<b>14,3</b>	<b>0,5</b>	<b>25,7</b>	<b>0,6</b>

Herrialdeak balio handienetik txikienera daude ordenatuta “Irakurketa digitaleko jarduerak”

Euskadin, 15 urteko ikasleen % 78,9k egunean edo astean hainbat aldiz “txateatzen” du, % 53,4k maiztasun berberarekin “irakurtzen ditu emailak”, % 43k bitarteko honen bidez egiten ditu “informazio-bilaketak”, % 38,3 “hiztegiak” erabiltzen ditu, % 30,4 inguruk “Internet bidez irakurtzen ditu albisteak”, % 25,7k “Informazio-bilaketa” praktikoa egiten du eta ehuneko baxuagoak, % 14,3 inguruk, “Interneteko eztabaida edo foroetan” parte hartzen du.

“Txateatzea” kategoria izan ezik (bertan, Euskadiko gazteen ehunekoa altuagoa da), jarduera bakoitzeko ehunekoak ELGAkoari dagozkienaren berdina edo baxuagoak dira. Espainiako batez bestekoarekin alderatuta, jarduera bakoitzean ehuneko desberdinak daude: Euskadiko gazteek Espainiako, Frantziako, Italiako eta Luxenburgoko batez bestekoak egiten duen antzeko moduan txateatzen dute; e-mailen irakurketan eta hiztegien erabileran Espainiakoaren antzeko ehunekoak nabari dira; gainerako jarduera digitaletan, ehunekoak Espainiako batez bestekoa baino baxuagoak dira.

Datu horien bidez, “Irakurketa digitaleko jarduerak” indizea osa daiteke; horren informazioa hurrengo taulatan erakusten da. Indizearen balio positiboek “Irakurketa digitaleko jarduerak” gehiago egitea eragiten dute, hain zuzen ere, ikasleek asteroko edo eguneroko maiztasunarekin egiten dituztela; bien bitartean, balio negatiboek zeregin horiek gutxiago egitea adierazten dute.

Euskadin, indize honen balioak -5,35 (gutxien egiten dutenen balioa) eta 3,51 (aipatutako jarduerak mailarik altuenean edo gehien egiten dituztenen balioa) artean daude. Euskadin, indize honen balioa -0,22 da.


**PISA 2009. “Irakurketa digitaleko jarduerak” indizearen balioak Euskadin**

Kopurua	Gutxienekoa	Gehienekoa	Batez bestekoa	Akats tipikoa
15.377	-5,35	3,51	<b>-0,22</b>	0,01

Indize honen eta emaitzen arteko lotura aztertzeko, ikasleak lau taldeetan banatzen dira, irakurketa digitaleko jarduerak egiteko erabiltzen duten maiztasunaren arabera, eta talde horietako bakoitzak irakurketan lortutako batez besteko puntuazioa zehazten da.

Hurrengo grafikoak erakusten du aipatutako loturak lehen kuartilaren eta gainerakoaren artean soilik funtzionatzen duela. Ikasle batek irakurketa digitaleko jardueretan oso balio baxua duenean, gainerako taldeekin alde adierazgarria ikus daiteke irakurketako emaitzetan. Hala eta guztiz ere, maila honetatik aurrera ez da alderik nabari emaitzetan; ondorioz, horrek esan nahi ez dagoela oso lotura egonkorrik irakurketa digitaleko jarduerak asko erabiltzearen eta irakurketan errendimendu hobea ateratzearen artean.

**5. grafikoa: PISA 2009. Irakurketa digitaleko jarduerak eta Irakurketako errendimendua**



Indize honen eta irakurketako emaitzen arteko lotura ageri da hurrengo taulan. Bertan, Euskadiko, ELGAko eta zenbait herrialde parte-hartzaileetako datuak zehazten dira, bi ikasle talderi dagozkienak: “Irakurketa digitaleko jarduerak” egiteko baliorik baxuena dutenak (1. kuartila) eta indize honetan baliorik altuena dutenak (4. kuartila). Herrialdeak balio handienetik txikienera daude ordenatuta “Irakurketa digitaleko jarduerak” indizean.

**PISA 2009. “Irakurketa digitaleko jarduerak” egitea eta errendimendua herrialdeen arabera**

HERRIALDEAK	Irakurketa digitaleko jarduerak						Puntuazioa irakurketan				Indizeko unitate bakoitzeko aldaketa puntuazioan
	Ikasleak, guztira		Egite maila baxua		Egite maila altua		Egite maila baxua		Egite maila altua		
	Batez b.	A.T.	Batez b.	A.T.	Batez b.	E.T.	Batez b.	E.T.	Batez b.	E.T.	
Alemania	0,12	0,02	-0,94	0,02	1,19	0,02	485	4,1	509	3,7	10,5 (2,16)
Erresuma Bat.	0,11	0,01	-0,88	0,02	1,20	0,02	467	2,9	507	3,7	16,1 (2,07)
Luxenburgo	0,02	0,01	-1,07	0,02	1,15	0,02	454	3,6	476	3,1	8,1 (2,04)
<b>ELGA</b>	<b>0,00</b>	<b>0,00</b>	<b>-1,11</b>	<b>0,00</b>	<b>1,17</b>	<b>0,00</b>	<b>468</b>	<b>0,7</b>	<b>505</b>	<b>0,6</b>	<b>14,9 (0,32)</b>
Finlandia	-0,04	0,01	-0,94	0,02	0,96	0,02	517	3,3	544	3,3	14,5 (1,87)
Italia	-0,04	0,01	-1,50	0,02	1,38	0,01	462	2,3	497	2,0	12,6 (0,81)
Herbehereak	-0,09	0,02	-0,75	0,02	1,04	0,02	481	6,7	528	5,4	19,2 (2,70)
Espainia	-0,11	0,01	-1,13	0,01	0,98	0,01	456	3,1	492	2,4	15,5 (1,18)
Frantzia	-0,13	0,02	-1,20	0,02	0,91	0,02	454	5,6	515	4,0	28,3 (2,71)
<b>Euskadi</b>	<b>-0,22</b>	<b>0,01</b>	<b>-1,20</b>	<b>0,02</b>	<b>0,81</b>	<b>0,02</b>	<b>478</b>	<b>4,1</b>	<b>505</b>	<b>4,0</b>	<b>12,5 (1,79)</b>

Euskadin, indize honen balioa ELGAkoa baino nabarmen baxuagoa da

Datuen behaketatik honakoa ondorioztatzen da:

- Euskadiko 15 urteko ikasleek ELGAko batez bestekoak eta Espainiako batez bestekoak baino maila baxuagoan egiten dituzte irakurketa digitaleko jarduerak. Hala eta guztiz ere, Irakurketan lortutako batez besteko puntuazioa ELGAkoaren berdina eta Espainiako baino nabarmen altuagoa da.
- “Irakurketa digitaleko jarduerak” egiteko muturreko balioak dituzten (1. eta 4. kuartilak) Euskadiko bi ikasle taldeek ELGAko eta Espainiako talde berek baino indize nabarmen baxuagoa dute. Hala eta guztiz ere, bi taldeek lortutako irakurketako puntuazioak (478 eta 505, hurrenez hurren) Espainiako eta ELGAko bi taldeei dagozkienak baino nabarmen altuagoak dira (4. kuartilaren kasuan, puntuazioa ELGAkoarenaren berdina da, 505 puntu).
- Indizearen balioan puntu bateko aldakuntza (hau da, desbideratze estandarra) izateak eragiten dute irakurketako emaitzek ELGAN batez beste 14,9 puntuko eta Espainian batez beste 15,5eko gora-behera izatea. Euskadin, aldea 12,5 puntukoa da. Alde hori ez da adierazgarria; hau da, “Irakurketa digitaleko jarduerak” indizeak gora edo behera egiteak eragin berbera du Euskadiko, eta Espainiako eta ELGAko emaitzetan.

Hurrengo taulan, komunitate autonomoetan indize honi dagozkion datuak aurkezten dira; gainera, bakoitzak irakurketan lortutako emaitzak ere ikus daitezke.

**PISA 2009. “Irakurketa digitaleko jarduerak” eta errendimendua komunitate autonomoetan**

EE.AA	INDIZEAREN BATEZ BESTEKO BALIOA		IRAKURKETAKO BATEZ BESTEKO PUNUAZIOA		Indizeko unitate bakoitzeko aldaketa puntuazioan
	Batezb.	A.T.	Batezb.	A.T.	
Madril	-0,03	0,03	503	4,4	10,8 (3,24)
Gaztela eta Leon	-0,14	0,04	503	4,9	18,5 (2,46)
Katalunia	-0,13	0,02	498	5,2	16,1 (3,18)
Errioxa	-0,13	0,03	498	2,4	17,5 (3,24)
Nafarroa	-0,23	0,03	497	3,1	15,9 (3,52)
Aragoi	-0,04	0,02	495	4,1	13,0 (2,26)
Euskadi	-0,22	0,01	494	2,9	12,5 (1,79)
ELGA	0,00	0,00	493	0,5	14,9 (0,32)
Asturias	-0,01	0,02	490	4,8	15,1 (2,94)
Kantabria	-0,08	0,03	488	4,1	19,7 (2,95)
Galizia	-0,35	0,04	486	4,4	21,9 (3,23)
Espainia	-0,11	0,01	481	2,0	15,5 (1,18)
Murtzia	-0,10	0,04	480	5,1	15,9 (2,97)
Andaluzia	-0,04	0,02	461	5,5	20,1 (3,27)
Baleiar uharteak	-0,16	0,03	457	5,6	19,8 (4,08)
Kanariar uharteak	-0,38	0,03	448	4,3	11,4 (2,88)
Ceuta eta Melilla	0,09	0,03	412	2,5	19,9 (2,73)

  Euskadiko batez bestekoa baino batez besteko puntuazio nabarmen baxuagoak. Gainerako komunitate autonomoekiko aldea ez da adierazgarria.

Ceuta eta Melilla, Asturias eta Madril izan ezik, gainerako komunitateek ELGAkoek baino askoz ere balio baxuagoa dute indize honetan. Dagoeneko aipatu den moduan, Euskadin, indize honen balioa ere Espainian eta ELGAN baino baxuagoa da. Indizearen balioan puntu bateko aldakuntzak 12,5 puntu aldatzen ditu emaitzak Euskadin; aldakuntza horrek alde adierazgarria du Gaztela eta Leon, Kantabria, Galizia, Andaluzia, Kanariak, eta Ceuta eta Melillarekin alderatuta.

## **Ikasleek irakurketarekiko duten motibazioari eta errendimenduari buruzko ondorioak**

### ● **Zaletasunez edo dibertsioz irakurtzea**

- ✓ Zaletasunez edo dibertsioz irakurtzea oso lotuta dago irakurketa-ulermeneko errendimenduarekin: herrialde guztietan, irakurtzen gozatzen duten ikasleek irakurtzea gustatzen ez zaien ikasleek baino errendimendu nabarmen altuagoak lortzen dituzte.
- ✓ Euskadiko 15 urteko ikasleen *Irakurketarekiko interesa eta zaletasuna* indizea ELGAkoa baino nabarmen baxuagoa da; hala eta guztiz ere, Irakurketan lortzen duten puntuazioa ELGAko batez bestekoaren berdina da.
- ✓ Euskadin, indize honetan balioa aldatzeak emaitzetan duten eragina Espainiako eta ELGAko batez bestekoan duen eraginaren berdina da.
- ✓ Euskadiko neskek irakurketarekiko mutilek baino interes nabarmen handiagoa erakusten dute; hori konstante bat da beste ebaluazioetan eta gainerako herrialdeetan ere.

### ● **Zaletasunez edo dibertsioz Irakurketari eskainitako denbora**

- ✓ Irakurketari eta errendimenduari eskainitako denbora batera doazen faktoreak dira; hala eta guztiz ere, irakurtzeari denbora luzea eskaintzea ez da garrantzitsua, egunero denbora-tarte bat irakurtzeari eskaintzea baizik.
- ✓ Euskadin, irakurtzen ez duten ikasleen ehunekoa Espainiako eta ELGAko batez besteko ehunekoa baino altuagoa da. Hala eta guztiz ere, talde honek Irakurketan lortutako batez besteko puntuazioa (465 puntu) ELGAkoaren berdina eta Espainiako baino nabarmen altuagoa da (453 puntu).

### ● **Zaletasunez irakurritako materialen aniztasuna**

- ✓ Errendimenduari dagokionez, material mota jakin bat irakurtzea ez da erabakigarria, irakurtzen den materiala askotarikoa izatea da garrantzitsua; irakurleak zenbait eta material mota gehiago irakurri, orduan eta errendimendu hobea lortuko du.
- ✓ Euskadin, indize honen balioa ELGAkoa baino nabarmen baxuagoa da.
- ✓ Euskadin indize honek duen eragina ELGAkoaren antzekoa (20,2 eta 21,9 puntu) eta Espainiako baino (25,7 puntu) nabarmen baxuagoa da.

### ● **Irakurketa digitaleko jarduerak**

- ✓ Irakurketa digitaleko jarduerak egiteak ez du irakurketako emaitzekin lotura egonkorrik. Jarduera hauek oso maila baxuan egiten dituztenen eta gainerakoen artean soilik dago alde adierazgarria.
- ✓ Euskadiko 15 urteko ikasleek Espainiako eta ELGAko batez bestekoak baino indize nabarmen baxuagoa dute irakurketa digitaleko jardueretan. Hala eta guztiz ere, Irakurketan lortutako batez besteko puntuazioa ELGAkoaren oso antzekoa eta Espainiako baino nabarmen altuagoa da.

**Datuen bidez, ondoriozta dezakegu oro har irakurketarekiko motibazio-faktoreak eta errendimendua oso lotuta dauden faktoreak direla; horrela, indize bakoitzaren balioa zenbat eta altuagoa izan, lortzen diren emaitzak orduan eta hobeak izango dira; hala eta guztiz ere, ezin dugu esan horien artean lotura kausalik dagoenik.**

**Irakurketa digitaleko jarduerak egiteko indizean gertatzen dena salbuespena da; bertan, pixkanaka jarduera gehiago egiteak ez ditu emaitza hobeak ziurtatzen.**

**Hori herrialde bakoitzaren baitan gertatzen da; hala eta guztiz ere, beren artean alderatzean, indize jakin batzuetan balio baxuak dituzten herrialdeak indize horietan balio altuagoak dituzten beste herrialdeek baino puntuazio nabarmen altuagoak lortzera iritsi ohi dira. Horrek adieraziko luke motibazio-faktoreak errendimendurako oso garrantzitsuak izan arren, ez direla emaitzetan eragiten duten elementu bakarrak eta irakurlearen errendimenduan indar berberarekin esku hartuko duten beste aldagai batzuk gotea derrigorrezkoa izango dela.**



4

**IKASKUNTZA ESTRATEGIAK**



## 4. IKASKUNTZA ESTRATEGIAK

Hezkuntza-prozesuak ikaslea, bere ikaskuntzan, parte-hartzaile aktiboa izan dadin ahalegindu behar du; horretarako, aurretiazko ezagutzekin loturak eginez esanahi berriak eraiki beharko dituzte. Beren ikaskuntza zuzentzeko gai diren ikasleek badakite helburuak aukeratzen, ikastetxe barruan eta kanpoan lortutako ezagutzak erabiltzen dituzte eta badakite aurrera ateratzeko egokiak diren estrategiak aukeratzen. Norbere prestakuntzan zehar gero eta garrantzitsuagoak diren jarrerak eta trebeziak dira horiek. Hala eta guztiz ere, hezkuntza-sistemen arabera, ikaskuntza-estrategien irakaskuntza esplizitua asko aldatzen da.

PISA 2009 azterketan, ikasleek beren ikaskuntzan erabiltzen dituzten estrategiei buruzko bost alor neurtzeko datuak bildu zituzten. “Metakognizioa irakurketan” konstrukturako, “ulertu eta gogoratu” eta “laburtu” indizeak egin ziren. Beste hiru estrategia motek, orokorragoek, estrategia mnemoteknikoak izenean bildu ziren (ulermena eta memorizazioa, prestakuntza eta kontrola).

Estrategia horiek neurtzeko, bakoitzerako indize espezifikoak sortu dira eta 15 urteko ikasleek *Irakurketan* lortzen dituzten emaitzekin lotu dira. Aipatutako indizeak ikasleek bete behar zituzten galdetegian bildutako baieztapen batzuekiko adostasun mailari buruzko galdera jakin batzuetatik abiatuta osatu dira.

Indizearen balio positiboek irakurketarekin eta ikaskuntzarekin lotutako jardueretarako estrategiak maila altuagoan erabiltzen direla islatzen dute; aldiz, balio negatiboek interes maila edo erabilera maila baxuagoa islatzen dute.

### 4.1. METAKOGNIZIO-ESTRATEGIAK

**PISA 2009an aztertzen diren metakognizio-estrategiak oso lotuta daude irakurmeneko errendimenduekin. Ulertzeko eta gogoratzeko estrategia egokiei buruzko kontzientzia mailari dagokionez, Euskadiko ikasleen eta ELGAko ikasleen batez bestekoa antzekoa da; testua laburtzeko estrategia egokiei dagokienez, berriz, Euskadiko batez bestekoa baxuagoa da.**

**Neskek mutilek baino aitoren maila handiagoa dute; herrialde eta komunitate autonomo gehienetan ere gauza bera gertatzen da.**

#### 4.1.1. Ulertzeko eta gogoratzeko estrategien indizea

Ikasleek beren helburuak erdiesteko aukeratzen dituzten jarduera-planak dira ikaskuntza-estrategiak. Indize honetan, ikasleen erantzunetatik abiatuta, irakurritako testu bat ulertu eta gogoan izateko erabili beharreko estrategien gainean duten kontzientzia maila aztertzen da.

Horretarako, ikasleei honako galdera hau egin zitzaien, eta *seiko eskala* batean erantzun behar zuten, “*batere erabilgarria ez*” erantzunetik hasi, eta “*oso erabilgarria*” erantzunera arte.

Testua ulertzea eta memorizatzea begira, estrategia hauek zenbaterainoko baliagarritasuna dutela uste duzu?

- a) Ulertzeko errazak diren testuko zatietan oinarritzen zait.
- b) Testua bi aldiz irakurtzen dut azkar.
- c) Testua irakurri ostean, edukia beste pertsona batzuekin komentatzen dut.
- d) Testuko zatirik garrantzitsuenak azpimarratzen ditut.
- e) Testua nire hitzekin laburbiltzen dut.
- f) Testua ahots ozenez irakurtzen diot beste pertsona bati.


Ulertzeko eta gogoratzeko estrategia metakognitibo egokienak c), d) eta e) direla uste da. Hurrengo taulan ageri den moduan, Euskadin, indize honen balioak -1,88 (ulertzeko eta gogoratzeko estrategia egokiak garatzeko garrantziari buruz kontzientzia gutxien dutenen balioa) eta 1,42 (helburu horretarako estrategia egokiei buruzko kontzientzia gehien dutenak) artekoak dira. Euskadin, indize honen batez besteko balioa -0,01 da, ELGAren batez bestekoaren berdina.

**PISA 2009. Ulertu eta gogoratu strategiaren indizearen balioak Euskadin.**

Kopurua	Gutxienekoa	Gehienekoa	Batez bestekoa	Akats tipikoa
15.096	-1,88	1,42	-0,01	0,02

Hurrengo grafikoan, testu bat ulertzeko eta gogoratzeko duten estrategia egokien kontzientzia mailaren arabera ikasleak sailkatu diren lau kuartiletako puntuazio aldeak ikus daitezke.

**6. grafikoa. PISA 2009. "Ulertu eta gogoratu" strategiaren erabilgarritasunari buruz jabetzea eta irakurketako errendimendua**



ELGAN eta Euskadin, testu bat ulertzeko eta gogoratzeko estrategia egokiak erabiltzeari buruzko kontzientziak gora egiten duen heinean, ikasleek lortutako puntuazioak ere gora egiten du nabarmen.

Euskadin, kontzientzia mailarik baxuena duten ikasleek, I. kuartilekoek, eskuratzen dituzte emaitzarik baxuenak (461), eta kontzientzia handiena erakusten dutenek lortzen dute errendimendurik altuena (527). Aldeak estatistikoki adierazgarriak dira kuartil guztietan.

Beheko eta goiko kuartilaren artean, Euskadiko ikasleen puntuazio-aldea 66 puntukoa da. Kuartilen arteko puntu-aldea handiagoa da ELGAN (90 puntu, ulertzeko eta gogoratzeko estrategia egokiak zein diren kontziente direnen eta hain kontziente ez direnen artean).

Euskadiko ikasleen “*Ulertu eta gogoratu*” strategiaren balioak erakusten dira taulan, beste herrialde parte-hartzaile batzuekin eta ELGAko batez bestekoarekin alderatuta.

**PISA 2009. Irakurketa. Testu bat ulertu eta gogoratzeko estrategia buruzko kontzientzia maila eta errendimendua herrialdeen arabera.**

HERRIALDEAK	Estrategiaren erabilera						Puntuazioa Irakurketan				Indizeko unitate bakoitzeko aldaketa puntuazioan
	Ikasleak, guztira		Erabilera maila baxua		Erabilera maila altua		Erabilera baxua denean		Erabilera altua denean		
	Batezb	A.T.	Batezb	A.T.	Batezb	A.T.	Batezb	A.T.	Batezb	A.T.	
Luxenburgoko	-0,17	0,01	-1,53	0,01	1,15	0,01	424	2,8	532	2,5	40,0 (1,31)
Euskadi	-0,01	0,02	-1,33	0,02	1,18	0,01	461	4,7	527	3,1	26,5 (1,68)
ELGA	0,00	0	-1,33	0,00	1,21	0,01	451	0,7	541	0,6	35,4 (0,28)
Finlandia	0,03	0,02	-1,37	0,01	1,25	0,01	490	3,4	581	2,5	35,4 (1,22)
Erresuma Bat.	0,09	0,02	-1,23	0,01	1,27	0,00	457	2,8	538	3,5	33,6 (1,61)
Herbehereak	0,10	0,04	-1,30	0,01	1,33	0,00	463	5,5	565	4,4	38,5 (1,82)
Espania	0,13	0,01	-1,18	0,01	1,26	0,00	444	2,8	514	2,2	29,7 (1,17)
Frantzia	0,17	0,02	-1,19	0,01	1,32	0,00	448	5,0	550	4,3	41,1 (2,45)
Italia	0,25	0,01	-0,98	0,00	1,30	0,00	438	2,6	530	1,8	40,6 (1,26)
Alemania	0,30	0,02	-1,15	0,01	1,42	0,00	449	3,9	556	2,8	40,8 (1,69)

Euskadin, indize honen balioak ez du estatistika-adierazgarritasunik ELGARI dagokionez

Datu horiek aztertuz, ondorio hauek atera daitezke:

- Aukeratutako herrialdeen baitan, Alemaniako ikasleak dira ulertzeko eta gogoratzeko estrategia metakognitibo egokiak gehien identifikatzen dituztenak, eta Luxemburgokoek identifikatzen dituzte gutxien.
- Euskadiko 15 urteko ikasleek ulertzeko eta gogoratzeko duten strategiaren erabilaren gaineko kontzientzia ELGAkoaren batez bestekoaren berdina da.
- Konstante hori aztertutako herrialde guztietan gertatzen da, baina Euskadin puntuazioen arteko aldea txikiena da (66 puntu); Luxemburgon, berriz, 108 puntukoa da (alderik handiena).
- Indizearen balioarekin lotuta, bertako puntu bateko aldakuntzak (hau da, ELGAREN desbideratze estandarra) irakurketako emaitzak ELGAN batez beste 35,4 puntu, eta Euskadin 26,5 puntu murriztea edo handitzea eragiten du. Alde hori adierazgarria da estatistikoki; hau da, "*irakurritakoa ulertzeko eta gogoratzeko*" estrategia egokiei buruzko indizearen balioa handitzeak edo murrizteak ELGAN eragin nabarmen handiagoa du Euskadin baino.

Hurrengo taulak Euskadiko ikasleen “*Ulertu eta gogoratu*” strategiaren balioak erakusten ditu, gainerako komunitate autonomo parte-hartzaileak gurearekin alderatuz PISA 2009an. Taula irakurketa-kompetenziako batez besteko puntuazio altuenetik baxuenera dago ordenatuta.

Irakurmenean, gainerako komunitate autonomoekin alderatuta Euskadiko batez besteko puntuazioan dagoen aldea Espainiako batez bestekoaren kasuan eta Espainiako batez bestekoa baino puntuazio baxuagoak dituzten komunitateen kasuan soilik da adierazgarria.<sup>8</sup>

**PISA 2009. Irakurketa. Testu bat ulertu eta gogoratzeko estrategia egokiei buruzko kontzientzia mailaren indizea eta Irakurketako errendimendua komunitate autonomoen arabera**

EE.AA	Irakurketako batez besteko indizea		Batez besteko puntuazioa		Indizeko unitate bakoitzeko aldaketa puntuazioan
	Batezb	A.T.	Batezb	A.T.	
Madril	0,21	0,04	503	4,4	27,9 (3,53)
Gaztela eta Leon	0,23	0,03	503	4,9	31,7 (3,04)
Errioxa	0,15	0,03	498	2,4	36,7 (3,00)
Katalunia	0,17	0,04	498	5,2	30,4 (3,50)
Nafarroa	0,08	0,03	497	3,1	29,2 (2,65)
Aragoi	0,15	0,03	495	4,1	25,4 (3,31)
<b>Euskadi</b>	<b>-0,01</b>	<b>0,02</b>	<b>494</b>	<b>2,9</b>	<b>26,5 (1,68)</b>
Asturias	0,05	0,03	490	4,8	31,6 (3,45)
Kantabria	0,13	0,03	488	4,1	29,8 (2,09)
Galizia	0,09	0,04	486	4,4	32,3 (2,64)
Espainia	0,13	0,01	481	2,0	29,7 (1,17)
Murtzia	0,14	0,03	480	5,1	23,5 (2,93)
Andaluzia	0,06	0,04	461	5,5	29,6 (1,89)
Balear uharteak	0,05	0,04	457	5,6	27,4 (3,74)
Kanariar uharteak	0,14	0,03	448	4,3	32,6 (3,06)
Ceuta eta Melilla	-0,03	0,03	412	2,5	38,0 (2,94)

Euskadiko batez bestekoa baino batez besteko puntuazio nabarmen baxuagoak. Gainerako komunitateekiko puntuazio-aldea ez da adierazgarria

Ceuta eta Melillarekin batera, Euskadi da indize honetan balio negatiboa erakusten duen komunitatea. Hala eta guztiz ere, Euskadin irakurketa-kompetentzian eskuratutako batez besteko emaitza (494) kontzientzia-indizean balio positiboak dituzten ikasleak biltzen dituzten komunitatekoen berdina da.

#### 4.1.2. Laburtze estrategien indizea

Ikasleei galdetu zitzairen ba al zekiten zer estrategia erabili behar zituzten aurretik irakurritako testu luze eta konplexu bat laburtzeko.

Erantzun bakoitza sei erantzuneko eskalaren baitan erantzun behar zuten; “batere erabilgarria ez” erantzunetik hasi, eta “oso erabilgarria” erantzunera arte.

*Testua laburtzera begira, estrategia hauek zenbaterainoko baliagarritasuna dutela uste duzu?*

- Laburpena idazten dut. Ondoren, laburpenak paragrafo guztiak biltzen dituela egiaztatzen dut; izan ere, paragrafo bakoitzeko informazioa txertatu behar da.
- Ahal ditudan esaldi guztiak zehatz-mehatz kopiatzen saiatzen naiz.
- Laburpena idatzi baino lehen, testua ahal dudana guztietan irakurtzen dut.
- Arretaz egiaztatzen dut testuko gertaerarik garrantzitsuenak laburpenean ageri diren.
- Testu guztia irakurtzen dut, esaldi garrantzitsuenak azpimarratuz. Ondoren, nire hitzekin berriz azaltzen ditut, laburpen gisa.

<sup>8</sup> PISA 2009. Lehen txostena. Emaitzak Euskadin.

d) eta e) erantzunetan adierazitakoak hartzen dira testu bat laburtzeko estrategia egokitzat.

Euskadin, indize honen batez besteko balioa -0,04 da; hau da, ELGAko batez bestekoaren azpitik dago. Indize honen balioak -2,01 (testua laburtzeko estrategia egokiei buruzko kontzientzia mailarik baxuena dutenen balioa), eta 1,34 (aipatutako helbururako estrategia egokien kontzientzia handiena dutenak) artekoak dira.

**PISA 2009. Laburtze-estrategiako indizearen balioak Euskadin**


Kopurua	Gutxienekoa	Gehienekoa	Batez bestekoa	Akats tipikoa
15.121	-2,01	1,34	<b>-0,04</b>	0,02

ELGAN eta Euskadin, *testu bat laburtzeko* estrategia egokiak erabiltzeari buruzko kontzientziak gora egiten duen heinean, ikasleek lortutako puntuazioak ere gora egiten du nabarmen.

Euskadin, kontzientzia mailarik baxuena duten ikasleek, I. kuartilekoek, eskuratzen dituzte emaitzarik baxuenak (443), eta kontzientzia handiena erakusten dutenek lortzen dute errendimendurik altuena (533).

Beheko eta goiko kuartilaren artean, Euskadiko ikasleen puntuazio-aldea 90 puntukoa da. Kuartilen arteko puntu-aldea handiagoa da ELGAN (107 puntu, laburtzeko estrategia egokiak zein diren kontziente direnen eta hain kontziente ez direnen artean). Tarteko kuartiletako aldeak adierazgarriak dira

**7. grafikoa. PISA 2009. "Laburtzeko" strategiaren erabilgarritasunari buruzko jabetzea eta Irakurketarako errendimendua**



Euskadiko ikasleek beste herrialde parte-hartzaileetako ikasleekin alderatuta indize honetan dituzten balioak erakusten ditu hurrengo taulak; gainera, ELGAko batez bestekoa ere erakusten du. Taula txikitik handira dago ordenatuta, ikasleen gutziko batez bestekoaren arabera.

**PISA 2009. Irakurketa. Testu bat laburtzeko estrategia erabilgarritasuna maila eta irakurketako errendimendua herrialdeen arabera.**

HERRIALDEAK	Laburtzeko estrategia egokien erabilgarritasuna						Puntuazioa Irakurketan				Indizeko unitate bakoitzeko aldaketa puntuazioan
	Ikasleak, guztira		Erabilera maila baxua		Erabilera maila altua		Erabilgarritasun maila baxutzat hartzen denean		Erabilgarritasun maila altutzat hartzen denean		
	Batez	A.T.	Batez	A.T.	Batezb	A.T.	Batezb	A.T.	Batezb	A.T.	
Herbehereak	-0,14	0,04	-1,6	0,02	1,05	0,01	455	5,4	569	4,1	42,3 (1,70)
Erresuma Batua	-0,06	0,02	-1,45	0,01	1,11	0,01	455	3,2	553	4,5	36,3 (1,67)
<b>Euskadi</b>	<b>-0,04</b>	<b>0,02</b>	<b>-1,34</b>	<b>0,01</b>	<b>1,01</b>	<b>0,01</b>	<b>443</b>	<b>4,8</b>	<b>533</b>	<b>2,7</b>	<b>36,4 (1,81)</b>
Luxenburgo	-0,04	0,01	-1,48	0,01	1,16	0,01	412	3,2	535	2,6	45,7 (1,39)
<b>ELGA</b>	<b>0,01</b>	<b>0</b>	<b>-1,4</b>	<b>0</b>	<b>1,12</b>	<b>0</b>	<b>438</b>	<b>0,6</b>	<b>545</b>	<b>0,6</b>	<b>41,9 (0,26)</b>
Finlandia	0,08	0,02	-1,3	0,02	1,19	0,01	473	2,7	581	2,7	42,4 (1,20)
Espainia	0,08	0,01	-1,13	0,01	1,1	0	430	2,7	524	2,2	41,1 (0,94)
Alemania	0,12	0,02	-1,34	0,01	1,22	0,01	440	3,8	557	3,1	44,8 (1,52)
Frantzia	0,24	0,02	-1,04	0,02	1,25	0	433	4,5	548	3,9	51,2 (2,17)
Italia	0,28	0,01	-0,92	0,01	1,24	0	431	2,8	535	1,8	48,0 (1,36)

Euskadin, indize honen balioa ELGAkoa baino nabarmen baxuagoa da

Datu horiek aztertuz, ondorio hauek atera daitezke:

- Euskadiko 15 urteko ikasleek irakurritakoa laburtzeko estrategia egokien erabilerari buruzko kontzientzia maila baxuagoa erakusten dute ELGAko batez bestekoak baino, eta aldea adierazgarria da.
- Irakurritakoa laburtzeko estrategia egokiak erabiltzen ez dituzten ikasleek eskuratzen dituzte emaitzarik baxuenak, eta erabiltzen dituztela diotenenek lortzen dute errendimendu mailarik handiena. Konstante hori aztertutako herrialde guztietan gertatzen da.
- Indizearen balioarekin lotuta, puntu bateko aldakuntzak (hau da, ELGAren desbideratze estandarra) irakurketako emaitzak ELGAN batez beste 41,9 puntu, eta Euskadin 36,4 puntu murriztea edo handitzea eragiten du. Alde hori adierazgarria da estatistikoki; hau da, "laburtzea" indizearen balioa handitzeak edo murrizteak ELGAN eragin nabarmen handiagoa du Euskadin baino.

Hurrengo taulak Euskadiko ikasleek indize honetan eskuratutako balioak erakusten ditu, betiere, gainerako komunitate autonomoekin alderatuta. Taula irakurketa-kompetentzian lortutako batez besteko puntuazioaren arabera dago ordenatuta.

**PISA 2009. Irakurketa. Laburtu strategiaren erabilera eta irakurketako errendimendua komunitate autonomoen arabera**

EE.AA	Irakurketako batez besteko indizea		Batez besteko puntuazioa		Indizeko unitate bakoitzeko aldaketa puntuazioan
	Batezb.	A.T.	Batezb.	A.T.	
Madril	0,20	0,03	503	4,4	41,6 (2,94)
Gaztela eta Leon	0,13	0,03	503	4,9	38,5 (2,50)
Errioxa	0,10	0,03	498	2,4	43,3 (2,88)
Katalunia	0,14	0,04	498	5,2	39,2 (2,70)
Nafarroa	0,07	0,03	497	3,1	36,7 (2,43)
Aragoi	0,07	0,03	495	4,1	36,5 (3,27)
<b>Euskadi</b>	<b>-0,04</b>	<b>0,02</b>	<b>494</b>	<b>2,9</b>	<b>36,4 (1,81)</b>
Asturias	0,09	0,04	490	4,8	46,4 (2,93)
Kantabria	0,13	0,02	488	4,1	42,3 (1,96)
Galizia	0,11	0,03	486	4,4	43,8 (2,30)
Espainia	0,08	0,01	481	2	41,1 (0,11)
Murtzia	0,12	0,04	480	5,1	33,1 (2,66)



<b>Andaluzia</b>	0,01	0,04	<b>461</b>	5,5	40,2 (2,20)
<b>Balear uharteak</b>	-0,09	0,05	<b>457</b>	5,6	37,2 (3,04)
<b>Kanariar uharteak</b>	0,06	0,03	<b>448</b>	4,3	40,3 (2,38)
<b>Ceuta eta Melilla</b>	-0,12	0,02	<b>412</b>	2,5	45,9 (2,58)

**E**uskadiko batez bestekoa baino batez besteko puntuazio nabarmen baxuagoak.  
Gainerako komunitateekiko puntuazio-aldea ez da adierazgarria.

Euskadin indize honek duen balio baxua kontuan hartuta, irakurketa-kompetentzian lortutako batez besteko emaitza kontzientzia-indizean balio positiboak dituzten komunitatekoen berdina da. Indizeko balio negatiboak dituzten hiru komunitateen artetik, Euskadi soilik dago Espainiako batez bestekoaren gainetik.

### Estrategia metakognitiboetako buruzko ondorioak

#### *Testu bat ulertu eta gogoratzeko eta horren laburpena egiteko estrategia egokiak erabiltzearen abantailak jabetzea*

- ✓ Euskadik balio negatiboak ditu bi estrategietan, eta hala eta guztiz ere, Irakurketako puntuazioan ez du alde adierazgarrikerik herrialde gehienekin alderatuta. Finlandia, Kanada, Japonia, Herbehereak, Belgika eta Norvegia soilik kokatzen dira nabarmen gainetik.
- ✓ Euskadik indizearen balio negatiboa du (-0,01) eta indize positiboa duten beste komunitateekin (Gaztela eta Leonen kasua, estrategia kognitiboetan indize altuekin) alderatuta ez du alde nabarmenik.

## 4.2. ESTRATEGIA MNEMOTEKNIKOAK

PISA 2009an, dagoeneko jakinarazi den moduan, "metakognizioa irakurketan" konstruktuari buruzko informazioaz gain, indizeak prestatu ziren beste hiru estrategia motaren berri izateko; estrategia horiek orokorragoak ziren eta *estrategia mnemotekniko* deitu zitzaizkien; *ulertze- eta memorizazio-estrategiei, prestatze-estrategiei eta kontrol-estrategiei* egiten diote erreferentzia.

Prestatze-estrategiek bizitza errealeko esperientziak ezagutza berriekin erlazionatzen laguntzen diete ikasleei; estrategia memoristiko hutsa baino ulermen maila altuagoa dute. Kontrol-estrategien bidez, ikasleek jakin dezakete zer neurritan bete dituzten ikaskuntza-helburuak; hau da, zer ikasi duten eta zer falta zaien ikasteko?

Ikasleen galdetegian bildutako erantzunetatik abiatuta, indizeak sortu ziren 0ko batez bestekoarekin, ELGAri dagozkionak eta leku desbideratze tipikoarekin, ikasleek eguneroko azterketan estrategia mota horiek zer maiztasunekin erabiltzen dituzten aztertzeke.

**Memorizazio- eta prestatze-estrategia mnemoteknikoen erabilera ia-ia ez du eraginik Euskadiko ikasleen irakurmen-errendimenduan. Prestatze-estrategien erabilera ia inoiz erabiltzen ez dituzten eta ia beti erabiltzen dituzten ikasleen emaitzetan soilik eragiten du.**

**Kontrol-estrategiak erabiltzeak soilik erakusten du ikasleen emaitzetan hobekuntza nabarmena, erabilera-maiztasunak gora egiten duen heinean.**

**Prestatze-estrategietan, indizeen balioa ELGAN baino baxuagoa da, eta beste bi estrategia motetan, berriz, altuagoa.**

Memorizazio- eta prestatze-estrategiak batera aztertzen dira; izan ere, azterketa egin ostean, egiaztatzen da ikasteko garaian horiek neurri handiagoan edo txikiagoan erabiltzeak ez duela ia batere eraginik Irakurketako errendimenduan PISA 2009an.

Aipatutako indizeak ikasleei galdera hau egin ostean prestatu ziren:

*Ikasten ari zarenean, zer maiztasunekin egiten duzu honakoa? “Ia inoiz ez”, “Batzuetan”, “Sarri” eta “Ia beti”.*

#### 4.2.1 Memorizazio estrategiak

- a) *Ikasterakoan, testuan jartzen duen guztia memorizatzen saiatzen naiz.*
- b) *Ahalik eta datu gehien memorizatzen saiatzen naiz*
- c) *Askotan irakurtzen dudanez, buruz ere esan dezaket*
- d) *Testua behin eta berriz irakurtzen dut.*

Memorizazio indizearen balioak -3,02 (ikasterakoan memorizazio-estrategiak gutxien erabiltzen dituztenen balioa) eta 2,69 (gehien erabiltzen dituztenak) artekoak dira. Euskadin, indize honen batez besteko balioa 0,14 da; hau da, ELGAko batez bestekoaren gainetik dago.

#### 4.2.2 Prestatze estrategiak


- a) *Ikasterakoan, informazio berria beste ikasgaietatik ditudan ezagutzekin erlazionatzen saiatzen naiz.*
- b) *Informazio horrek nire ikastetxetik kanpo zer erabilgarritasun izan dezakeen jakin nahi dut.*
- c) *Materiala hobeto ulertzen saiatzen naiz, nire esperientziekin erlazionatuz.*
- d) *Ikasterakoan, informazio berria beste ikasgaietatik ditudan ezagutzekin erlazionatzen saiatzen naiz.*
- e) *Informazio horrek nire ikastetxetik kanpo zer erabilgarritasun izan dezakeen jakin nahi dut.*
- f) *Materiala hobeto ulertzen saiatzen naiz, nire esperientziekin erlazionatuz.*
- g) *Testuko informazioa bizitza errealean gertatzen den horretara nola egokitzen den aztertzen dut.*

Prestatze-estrategiek bizitza errealeko esperientziak jasotako ezagutza berriekin nola erlazionatzen diren jakiten laguntzen dute eta memorizazioa baino ulermen maila altuxeagoa eskatzen dute.


Prestatze indizearen balioak -2,41 (ikasterakoan prestatze-estrategiak gutxien erabiltzen dituztenen balioa) eta 2,76 (gehien erabiltzen dituztenak) artekoak dira. Euskadin, indize honen balioa -0,18 da; hau da, ELGAko batez bestekoaren azpitik dago.

Grafikoetan, ikasleek irakurketan lortzen duten puntuazioa ikus daiteke, ikasterakoan estrategia horien erabilera handiagoaren edo txikiagoaren arabera.

**8. grafikoa . PISA 2009. "Memorizazio" estrategiak erabiltzea eta Irakurketako errendimendua**



**9. grafikoa. PISA 2009. "Prestatze" estrategiak erabiltzea eta Irakurketako errendimendua**



Euskadin, bi estrategietan, 1. kuartilaren eta 4. kuartilaren arteko puntuazioetako aldeak adierazgarriak dira.

Azterketarako aukeratutako herrialdeetan, ez dago korrelaziorik *memorizazio*-estrategiaren eta irakurketako emaitzen artean. Hala eta guztiz ere, horietan guztietan, "*prestatze*" strategiaren erabilera maila baxua egiten dutela dioten ikasleek emaitza baxuagoak lortzen dituzte, eta erabilera maila altuagoa erakusten dutenek errendimendu altuagoa lortzen dute.

"*Memorizazio*" estrategien indizean, puntu bateko aldakuntzak (hau da, ELGAren desbideratze estandarra) irakurketako emaitzak ELGAN batez beste 0,9 murriztea, eta Euskadin 7,7 puntu murriztea edo handitzea eragiten du. Aldea adierazgarria da; hau da, "*irakurritakoaren memorizazioak eta gogoratzeak*" emaitzetan duen eragina Euskadin nabarmen altuagoa da ELGAN baino; ia-ia ez baitu eraginik eta negatiboa da.

"*Prestatze*" indizearen balioarekin lotuta, puntu bateko aldakuntzak (hau da, ELGAren desbideratze estandarra) irakurketako emaitzak ELGAN batez beste 7,1 puntu igotzea edo murriztea, eta Euskadin 7,9 puntu murriztea edo handitzea eragiten du. Aldea estatistikoki ez da adierazgarria; hau da, "*prestatze*" indizearen balioa handitzeak edo murrizteak eragin berbera du Euskadiko eta ELGAko emaitzetan.

### 4.2.3 Kontrol-estrategien indizea

**Kontrol-estrategiak dira ikasketari aplikatzean garrantzi handiena dutenak. Aldatzen den unitate bakoitzeko, indizeak puntuazioan 29,2 puntuko aldaketa eragiten du, ELGAkoaren antzekoa (26,1 puntu). Euskadiko ikasleek ELGAko batez bestekoak baino kontrol-estrategien erabilera maila nabarmen baxuagoa erakusten dute.**

*Kontrol-estrategien* bidez, ikasleen ikaskuntza-helburuak zenbatera arte bete diren jakin dezakegu; horrela, ikasi dutena eta oraindik ikasteke geratzen dena bereiz dezakegu.

Aipatutako indizeak ikasleei galdera hau egin ostean prestatu ziren:

Ikasten ari zarenean, zer maiztasunekin egiten duzu honakoa? “Ia inoiz ez”, “Batzuetan”, “Sari” eta “Ia beti”.

- a) Ikasterakoan, zehazki zer ikasi behar dudan jakitetik hasten naiz.
- b) Irakurri dudana ulertu dudala egiaztatzen dut.
- c) Guztiz garbi geratu ez zaizkidan kontzeptuak zein diren jakiten saiatzen naiz..
- d) Testuko puntu garrantzitsuenez gogoratzen naizela ziurtatzen dut.
- e) Ikasi eta zerbait ulertzen ez dudanean, informazio gehiago bilatzen dut argitu ahal izateko.


Indize honen balioak -3,45 (ikasterakoan kontrol-estrategiak gutxien erabiltzen dituztenen balioa) eta 2,50 (gehien erabiltzen dituztenak) artekoak dira. Euskadin, indize honen batez besteko balioa -0,04 da; hau da, ELGAko batez bestekoaren azpitik dago.

Kontrol-estrategiaren erabilera maila baxua egiten dutela dioten ikasleek emaitza baxuagoak lortzen dituzte, eta erabilera maila altuagoa erakusten dutenek errendimendu altuagoa lortzen dute. Konstante hori aztertutako herrialde guztietan gertatzen da.

Euskadiko eta ELGAko ikasleen artean, kuartiletako puntuazioetako aldeak ez dira adierazgarriak.

Euskadiren baitan, kuartilen arteko puntuazio guztien arteko aldea adierazgarria da. Beraz, kontrol-estrategiak erabiltzeak eragin nabaria du ikaslearen emaitzetan.

10. grafikoa. PISA 2009. "kontrol" estrategiak erabiltzea eta irakurketako errendimendua



Euskadiko ikasleek ikastean duten “kontrol” strategiaren balioak erakusten ditu hurrengo taulak, aukeratutako herrialde parte-hartzaileekin eta ELGAko batez bestekoarekin alderatuta. Taula baxuenetik handienara dago ordenatuta, ikasleen guztizko indizearen batez bestekoaren arabera.

PISA 2009. Irakurketa. “Kontrol” strategiaren erabilera maila eta errendimendua herrialdeen arabera

HERRIALDEAK	Estrategiaren erabilera						Puntuazioa Irakurketan				Indizeko unitate bakoitzeko aldaketa puntuazioan
	Ikasleak, guztira		Erabilera maila baxua		Erabilera maila altua		Erabilera baxua denean		Erabilera altua denean		
	Batezb	AT	Batezb	AT	Batezb	AT	Batezb	AT	Batezb	AT	
Finlandia	-0,34	0,02	-1,51	0,02	0,82	0,02	503	3,4	565	3,6	25,6 (1,57)
Herbehereak	-0,11	0,03	-1,2	0,03	0,94	0,02	475	5,6	539	6	25,6 (1,97)

<b>Euskadi</b>	-0,04	0,02	-1,12	0,03	1,41	0,02	454	4,3	527	2,9	29,2 (1,74)
<b>ELGA</b>	0	0	-1,19	0	1,19	0	456	0,7	525	0,6	26,1 (0,30)
<b>Frantzia</b>	0,03	0,02	-1,2	0,02	1,21	0,02	438	5,9	544	4,1	41,4 (2,63)
<b>Luxenburgo</b>	0,08	0,01	-1,18	0,02	1,31	0,02	435	3	503	2,9	25,1 (1,54)
<b>Erresuma Bat.</b>	0,08	0,02	-1,08	0,02	1,22	0,02	455	3,1	522	3,1	27,2 (1,39)
<b>Espainia</b>	0,12	0,01	-1,16	0,02	1,34	0,01	440	3	510	2,3	27,1 (1,20)
<b>Italia</b>	0,14	0,01	-1,01	0,01	1,25	0,01	448	2,5	514	1,9	28,0 (1,11)
<b>Alemania</b>	0,21	0,02	-0,95	0,02	1,39	0,02	471	4,5	531	3,5	22,9 (1,80)

Euskadin, indize honen balioa ELGAkoa baino nabarmen baxuagoa da

Datu horiek aztertuz, ondorio hauek atera daitezke:

- Kontrol-estrategiaren erabilera maila baxua egiten dutela dioten ikasleek emaitza baxuagoak lortzen dituzte, eta erabilera maila altuagoa erakusten dutenek errendimendu altuagoa lortzen dute. Konstante hori aztertutako herrialde guztietan gertatzen da.
- Indizearen balioarekin lotuta, bertako puntu bateko aldakuntzak (hau da, ELGAren desbideratze estandarra) irakurketako emaitzak ELGAN batez beste 26,1 puntu, eta Euskadin 29,2 puntu murriztea edo handitzea eragiten du. Aldea estatistikoki ez da adierazgarria; hau da, "kontrol" strategiaren indizearen balioa handitzeak edo murrizteak eragin berbera du Euskadiko eta ELGAko emaitzetan.

Euskadiko ikasleek "kontrol" estrategian dituzten balioak erakusten ditu hurrengo taulak, beste komunitate parte-hartzaile batzuekin alderatuta. Taula hau irakurketa-kompetentzian batez besteko puntuazio handienetik txikienera dago ordenatuta. Euskadiko aldeak Espainiako batez bestekoarekiko eta puntuazio baxuagoak dituzten komunitateekiko soilik dira adierazgarriak.

**PISA 2009. Irakurketa. Kontrol strategiaren erabilera eta Irakurketako errendimendua komunitate autonomoen arabera**

EE.AA	Irakurketako batez besteko indizea		Batez besteko puntuazioa		Indizeko unitate bakoitzeko aldaketa puntuazioan
	Batezb.	A.T.	Batezb.	A.T.	
<b>Madril</b>	0,14	0,04	<b>503</b>	4,4	26,2 (3,93)
<b>Gaztela eta Leon</b>	0,14	0,03	<b>503</b>	4,9	29,2 (1,90)
<b>Errioxa</b>	0,1	0,03	<b>498</b>	2,4	31,9 (2,69)
<b>Katalunia</b>	0,14	0,04	<b>498</b>	5,2	30,3 (2,86)
<b>Nafarroa</b>	0,03	0,03	<b>497</b>	3,1	30,1 (2,95)
<b>Aragoi</b>	0,08	0,04	<b>495</b>	4,1	29,1 (2,29)
<b>Euskadi</b>	-0,04	0,02	<b>494</b>	2,9	29,2 (1,74)
<b>Asturias</b>	0,03	0,04	<b>490</b>	4,8	29,2 (3,06)
<b>Kantabria</b>	0,1	0,03	<b>488</b>	4,1	27,4 (2,96)
<b>Galizia</b>	-0,02	0,03	<b>486</b>	4,4	28,8 (1,93)
<b>Espainia</b>	0,12	0,01	<b>481</b>	2	27,1 (1,20)
<b>Murtzia</b>	0,17	0,04	<b>480</b>	5,1	16,2 (2,64)
<b>Andaluzia</b>	0,12	0,04	<b>461</b>	5,5	31,0 (2,52)
<b>Balearr uharteak</b>	0,07	0,03	<b>457</b>	5,6	27,8 (2,39)
<b>Kanariar uharteak</b>	0,11	0,04	<b>448</b>	4,3	21,6 (2,53)
<b>Ceuta eta Melilla</b>	0,32	0,03	<b>412</b>	2,5	17,4 (2,84)

  Euskadiko batez bestekoa baino batez besteko puntuazio nabarmen baxuagoak. Gainerako komunitateekiko puntuazio-aldea ez da adierazgarria.

Euskadiko indize maila baxua, eta ondorioz, ikasleek ikasteen erabiltzen duten kontrol-estrategia urria kontuan hartuta, irakurketa-kompetentzian lortutako batez besteko emaitza estrategietan balio positiboak dituztela adierazten duten komunitatekoen berdina eta zenbaitetan nabarmen altuagoa ere bada. Ceuta eta Melillak du indize altuena, eta hala eta guztiz ere, bertako emaitzak dira baxuenak.

## Estrategia mnemoteknikoei buruzko ondorioak

### **Ikasketan ulermen- eta memorizazio-, prestatze- eta kontrol-estrategiak erabiltzea.**

- ✓ Ikasteko garaian memorizazio- eta prestatze-estrategiak erabiltzeak badirudi ez duela eragin handirik irakurmenean aukeratutako herrialdeetako ikasleek lortzen dituzten emaitzetan, PISA 2009 neurketaren arabera.
- ✓ Kontrol-estrategiak erabiltzeak eragina du ia herrialde guztien errendimenduan. Euskadin, horien erabilera-maiztasunak gora egiten duen heinean, aldeak ere nabarmen egiten du gora.

### **Ikasleen puntuazioko aldakuntzaren arabera eta PISAk irakurketa hobetzeko estrategia egoki gisa zehazten duena aintzat hartuz, hauetara zuzendutako irakurketa-ohiturak sustatu beharko lirateke:**

- Testu eta material askotarikoekin, irakurketarekiko zaletasuna eta interesa piztea.
- Egunero irakurketari denbora-tarte jakin bat eskaintzea (30 minutu inguru).
- Irakurketa-estrategia egokiak sortzea:
  - ✓ *Testua irakurri ostean gelakideekin komentatu.*
  - ✓ *Testuko zatirik garrantzitsuenak nabarmendu.*
  - ✓ *Beren hitzekin laburtu.*
  - ✓ *Laburpenean zati garrantzitsu guztiak daudela egiaztatu.*

### **Ikasketarekin lotutako estrategia dagokienez, garrantzitsua da ikasleak hauetara ohitzea:**

- ✓ *Zehazki zer ikasi behar duten jakitea.*
- ✓ *Irakurri dutena ulertu dutela egiaztatzea.*
- ✓ *Gutziz garbi geratu ez zaizkien kontzeptuak zein diren jakiten saiatzea.*
- ✓ *Oraindik ulertzen ez dutena argitzeko informazio gehiago bilatzea.*
- ✓ *Testuko puntu garrantzitsuenez gogoratzen direla ziurtatzea.*

5

**ALDEAK IKASLEEN  
SEXUAREN ARABERA**





## 5. ALDEAK IKASLEEN SEXUAREN ARABERA


**Euskadiko neskek irakurketarekiko interes eta zaletasun handiago erakusteak adierazten du mutilek baino estrategia gehiago erabili dituztela eta material aniztasuna ere gehiago erabili dutela. Hala eta guztiz ere, mutilek prestatze-estrategiak eta irakurketa digitaleko estrategiak neskek baino gehiago erabiltzen dituzte.**

2000. urtetik egindako PISA ebaluazio guztietan, konstante bat ageri da: neskek diren ikasleek mutilek baino errendimendu hobe eskuratzen dute irakurmenean.

Irakurketako emaitzetan alde horiek irauten duten arren, oraindik ez dakigu bereizitako ikaskuntza-estrategien erabilerak zenbaterainoko garrantzia duen edo irakurketarekin hartutako konpromisoak zer puntutaraino murrizten dituen mutilen eta nesken arteko errendimendu-aldeak irakurketa-kompetentzian. Neskek, oro har, mutilek baino irakurketa-gaitasun gehiago duten arren, aldea oso zabala da irakurketa maila baxuko ikasleen artean.

PISAk beti erakutsi du bitarteko sozio-kulturala eta ikasleen sexua direla irakurketako emaitzetan gehien eragiten duten faktoreak (grafikoan gezi beltzen bidez adierazita). Baina horrez gain, beste faktore batzuek, irakurleen ohiturak eta ikaskuntza-estrategiak, esate baterako, irakurketa-errendimenduan (grafikoan gezi gris bidez adierazita) aldeak markatzen dituzte.

En todas las evaluaciones PISA realizadas desde el año 2000, se viene manifestando una constante: las alumnas obtienen mejor rendimiento en competencia lectora que los alumnos.



Ba al dago arrazoirik mutilek irakurketarekiko neskek baino konpromiso eta interes gutxiago izateko? Alde hori azaltzeko hiru arrazoi iradoki dira<sup>10</sup>.

<sup>10</sup> OECD (2010), *PISA 2009 Results: Learning to Learn – Student Engagement, Strategies and Practices (Volume III)*

Horietako bat garuneko egituretan eta funtzioetan oinarritzen ba dira; izan ere, batak eta besteak desberdinak izanik, mutiletan irakurketarekiko interes-gabezia handiagoa eragiten du; hala eta guztiz ere, alde horien eta irakurketa-konpetentziaren arteko loturak oraingoz ezin izan dira enpirikoki ezarri.

Bigarren arrazoiak sozializazioarekin lotutako gaiekin du zerikusia; zehazki identitate sexualaren eraikuntzarekin eta jarduera maskulinoagoak edo femeninoagoak izatearen aukerarekin; lotura honetan, irakurketa, maiz, batez ere femeninoa den jarduera gisa hartuko litzateke.

Azkenik, beste ikerketa batzuek iradokitzen dutenaren arabera, mutilek irakurketa mota batzuk bakarrik baztertzan dituzte, batez ere, eskola-irakurketarekin lotutakoak; aitzitik, gustura sentituko lirateke eta ondo pasatuko lukete haiek gozatzan duten beste jarduera batzuekin lotutako eta parte hartzea gustatzen zaien irakurketa motekin.

Lehen adierazi den moduan, PISA 2009k frogatu du irakurketan nesken eta mutilen arteko puntuazioan aldea dagoela: 39 puntuko batez bestekoa ELGAko herrialdeetan, eta 35 puntukoa, Euskadin. Puntuazio horien arteko aldea eskolatzeko urte baten baliokidea egongo litzateke!<sup>11</sup>.

PISA 2009 ebaluazioaren emaitzek iradokitzen dute mutilen eta nesken arteko aldeak biek irakurketari modu desberdinean heltzen diotelako dela eta neskek irakurketarekiko konpromiso handiagoa dutelako dela. Hain zuzen ere, mutilek neskek bezain modu positiboan helduko balie irakurketari, aldea 14 puntutan murriztuko litzateke, eta 20 puntutara ere iritsiko lirateke irakurketarekiko konpromiso handiagoa hartuko balute. Puntuazioko igoera hori ez da automatikoa, ez baita harreman kausala, baina desberdintasunetatik abiatzen denez, konpromiso-gabezia horri eta mutilen ikaskuntza-estrategien kontzientziazio eskasari egotz liezaioke, eta pentsatu beharko litzateke mutilek irakurketarekiko interes maila handitu dezaten modu eraginkorrek bilatu behar direla, bai ikastetxean, bai etxean.

Irakurketan, genero mailako errendimendu-alde hori nabarmen aldatzen da herrialde batzuetatik besteetara; beraz, esan genezake interes eta indar akademikoei dagokienez, ez dagoela sexuari atxikitako ezaugarririk; aldiz, azken horiek eskuratu egiten dira eta sozialki eragindakoak izan ohi dira. Aipatutako aldeak mutilen eta nesken jarreretan eta jokabideetan identifikatu dira.

Zer gertatzen da PISA 2009 ebaluazioan parte hartu duten Euskadiko ikasleen kasuan? Genero aldetik zer alde antzeman dira?


Hurrengo grafikoan laburtuta ageri da mutilen eta nesken arteko aldea Euskadin eta ELGAN, lehen aztertutako indizeen arabera. Horrela, balio negatiboek adierazten dute aldeak nesken mesedetarako direla, eta balio positiboek adierazten dute aldeak mutilen mesedetarako direla.

Euskadin, balio gehienak ikur negatiboekin ageri dira, ELGAko herrialdeen batez bestekoaren moduan; horrek esan nahi du neskek dutela irakurketarako interes gehien eta ikaskuntza-estrategia metakognitiboak (ulermena eta gogoratzea, laburtzea) eta mnemoteknikoak deitutakoak (memorizazioa eta kontrola azterketan) gehiago erabiltzen dituzte. Prestaketa-estrategien eta irakurketa digitalaren kasuan, erabilera-aldea mutilen mesedetarako da.

---

<sup>11</sup> OECD (2010), *PISA 2009 Results: Learning to Learn – Student Engagement, Strategies and Practices (Volume III)*

II. grafikoa. PISA 2009. Indizeetan mutilen eta nesken arteko aldean laburpena. Euskadi-ELGA



### 5.1. IRAKURKETARAKO MOTIBAZIO-FAKTOREAK, SEXUAREN ARABERA

- **“Irakurketarekiko interesa eta zaletasuna”** indizearen kasuan, Euskadiko neskek Euskadiko mutilek baino emaitza nabarmen hobeak lortzen dituzte; hala ere, ELGAko herrialdeen batez bestekoa erreferentzia gisa hartuz gero, aldea handiagoa da. Gainerako herrialdeetan bezala, komunitate autonomo guztietan, neskek irakurketarekiko mutilek baino interes eta zaletasun handiagoa erakusten dute.
- Gainera, PISA 2009 ebaluazioan ondorioztatu da herrialde parte-hartzaile guztietan zaletasunez edo dibertsioz **“irakurketari egunero denbora”** eskaintzeak aldea markatzen duela irakurketako puntuazioetan, batere irakurtzen ez dutenekin alderatuta. Egunero denbora jakin bat irakurtzeari eskaintzen dioten nesken ehunekoa mutilena baino altuagoa da. Alderik handienak Herbehereetan, Alemanian eta Finlandian nabari dira. Euskadin, egunero zaletasunez irakurtzen duten 15 urteko neska gehiago daude mutilak baino, % 20,8ko aldea dago; ehunekoa ELGAkoaren berdina da.
- **“Materialen aniztasuna” indizeari dagokionez**, mutilek, irakurketarako neskek baino zaletasun gutxiago izateaz gain, beste ohitura batzuk ere badituztela dirudi. Esate baterako, ELGAko herrialdeen batez bestekoari begiratu gero, mutilen % 66k egunkaria zaletasunez edo dibertsioz irakurtzen dutela ondorioztatzen da; aldiz, nesken % 59k du joera hori. Komikiei dagokienez,

komikiak irakurtzea egunkariak irakurtzea bezain ohikoa izan ez arren, mutilen % 27k eta nesken % 18k dio komikiak irakurtzen dituela hilean hainbatetan edo astean hainbatetan.

Aitzitik, neskek narratiba edo fikziozko nobelak irakurtzeko joera handiagoa dute mutilek baino, eta ia herrialde guztietan, aldizkariak irakurtzeko ohitura handiagoa dute mutilek baino: nesken % 65ek eta mutilen % 51k.

Talde bakoitzak irakurtzen duen material mota alde batera utzita, datuek adierazten dute Euskadin bi taldeen artean ez dagoela alderik: 15 urteko Euskadiko mutilak eta neskek oso aldakorrek dira irakurketarako materiala aukeratzeko garaian.

- **“Irakurketa digitalarekin”** zerikusia duten datuen arabera, Euskadin, Erresuma Batuan, Italian eta Frantzia bezala, Internet bidezko irakurketa-jardueretan neska eta mutilen artean ez dago alde nabarmenik; hala eta guztiz ere, mutilek gehiago erabiltzen dute tresna hori eta erabileraren asmoetan aldeak daude; izan ere, neskek komunikatzeko erabiltzen dute batik bat, eta mutilek berriz, sarean nabigatzeko erabiltzen dute, informazio bila eta albisteak irakurriz.

Irakurketa digitalaren jardueren artean, *“txateatzea”* da herrialde gehienetako 15 urteko neska-mutilek maizen erabiltzen dutena. Japonia da salbuespena; izan ere, bertan, posta elektronikoen irakurketa da irakurketa modu ohikoena, zalantzarik gabe.

Beste herrialdeetan ere gertatzen den moduan, komunitate autonomoetako mutilek irakurketa digitaleko jarduera gehiago erabiltzen dituzte. Hala ere, Nafarroako eta Kantabriako kasuak salbuespena dira; izan ere, neskek mutilek baino balio zertxobait altuagoak dituzte. Mutilen eta nesken arteko aldeak komunitate autonomo hauetan soilik dira adierazgarriak: Kanariak, Katalunia, Ceuta eta Melilla eta Murtzia.

## 5.2. ESTRATEGIA METAKOGNITIBOAK ERABILTZEA SEXUAREN ARABERA

- Grafikoan adierazitakoarekin bat etorriz, Euskadiko neskek, **“ulertze eta gogoratze”** indizean, mutilekin alderatuta, -0,18ko alde adierazgarria dute; hala eta guztiz ere, neskek aipatutako estrategia mutilek baino gehiago erabiltzen duten arren, aldea gure inguruko beste herrialdeena baino txikiagoa da: Italia, Frantzia, Alemania, Erresuma Batua, eta batez ere, Finlandia.
- **“Testua laburtze”** indizearekin lotuta, herrialde gehienetan bezala, Euskadiko neskek testua laburtzeko estrategia egoki gehiago erabiltzen dituzte mutilek baino. Finlandiak du alderi nabarmenena (0,60), eta gainera, nesken eta mutilen artean puntuazio-alderik handiena duen herrialdea da.

Komunitate autonomoetan fenomeno berbera antzematen da. Alderik nabarmenena Madrilen gertatzen da, irakurketan puntuaziorik altuena (503) lortu baitu; hala eta guztiz ere, Gaztela eta Leonen, puntuazio berbera izanik, indizea Espainiako batez bestekoan baino baxuagoa da.

- **“Memorizazioaren”** kasuan, Euskadiko neskek mutilek baino gehiago erabiltzen dituzte estrategia hauek, eta bien arteko aldea nabarmena da. Aldea altuenetakoa da, hurbileneko

herrialdeenarekin alderatuta, Luxenburgok soilik gaintzen baitu (horren puntuazioa ELGAko batez bestekoaren azpitik dago).

Komunitate autonomoei dagokienez, esan genezake komunitate guztietako neskek mutilek baino *memorizazio*-estrategia gehiago erabiltzen dituztela. Estrategia erabiltzeari dagokionez, nesken eta mutilen artean alde handi samarra dago Euskadin, Espainiako batez bestekoaren gainetik, nabarmen.

- **“Prestatze”** indizeari dagokionez, nabari da Euskadiko mutilek –beste estrategia batzuetan ez bezala- neskek baino gehiago erabiltzen dutela estrategia hau. Indizean, aldea baxuenetakoa da (0,09). ELGAN ere, mutilek erabiltzen dituzte batez ere estrategia hauek (0,08), baita komunitate autonomoetan ere.
- Azkenik, **kontrol-estrategiei** dagokienez, Euskadiko neskek erabiltzen dituzte batik bat. Indizeko aldea (-0,23) ELGAko batez bestekoa baino baxuagoa da (-0,27). Aukeratutako herrialde guztietan, estrategia hau neskek gehiago erabiltzen dute mutilek baino.

Komunitate autonomoei dagokienez ere, neskek gehiago erabiltzen dituzte estrategia hauek. Mutilen eta nesken artean, erabileran dagoen aldea nahiko baxua da Euskadin, beste komunitateekin alderatuta.

Atal honekin amaitzeko, PISA 2009k hau nabarmentzen du: aldez aurretiko jarrerak, izaerak, berdinen arteko presioak eta sozializazioak mutilek irakurketarekiko neskek baino interes maila baxuagoa erakuts dezaten lagun dezakeen arren, ikasleei motibatu egin beharko litzaieke gehiago irakur dezaten, irakurtzeko jarduera atseginagoa eta beren interesekin lotutako izan dadin.



6

**IKASLEEN ALDAGAI  
INDIBIDUALAK**





## 6. IKASLEEN ALDAGAI INDIBIDUALAL. AZTERKETA ALDERATZAILEA BESTE EBALUAZIOEKIN

### 6.1. AITAREN ETA AMAREN IKASKETAK, ETA IRAKURKETARAKO ERRENDIMENDUA

**Familiaren ikasketa maila ikasleen errendimendu akademikoan eragina duen aldagaietako bat da.**

Gai honi buruzko informazioa eskuratzeko eta indizea ezagutzeko, ikasleen amari eta aitari buruzko galdera hauek egin ziren:

*Zein da zure amak eta aitak egin duten ikasketa mailarik altuena?*

- *Batxilergoa*
- *Erdi Mailako Prestakuntza Zikloak*
- *Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza*
- *Lehen Hezkuntza*
- *Ez zuen Lehen Hezkuntza amaitu*

*Zure amak eta aitak ba al du hurrengo titulutakoren bat?*

- *Unibertsitateko doktoretza*
- *Unibertsitateko titulua (Diplomatura eta/edo lizentziatura)*
- *Lanbide Heziketako Goi Mailako Teknikari titulua*
- *Lanbide Heziketako Erdi Mailako Teknikari titulua*

Galdera hauen erantzunak PISA 2003 txostenean definitu ziren eta hiru kategoriatan sailkatutako indize batean biltzen dira; bestalde, herrialde desberdinetako hezkuntza-sistemen berezitasunei aplikagarritasuna ahalbidetzeaz gain, ebaluazioko edizio desberdinen arteko alderaketa ahalbidetzen dute. Hau da sailkapena:

- I. *Lehen Hezkuntzako edo maila baxuagoko ikasketak: Lehen Hezkuntza, OHO, Lehen mailako Lanbide Heziketa egin dutenak edo batere ikasketarik gabekoak barne hartzen ditu.*
- II. *Bigarren mailako ikasketak: Bigarren mailako Lanbide Heziketa; musika, dantza, arte aplikatuak eta beste lanbide artistiko batzuetako erdi mailako ikasketak; Hizkuntza Eskola Ofizialeko erdi maila; Batxilergoa (BBB edo UBI).*
- III. *Goi mailako Ikasketak: Diplomatura; Lizentziatura; Doktoretza; Goi mailako Lanbide Heziketako prestakuntza-zikloak.*


Aitek eta amek kategoria bakoitzean lortutako ikasketa maila erakusten dute taulek Gainera, gurasoen ikasketa mailaren arabera aukeratutako herrialde bakoitzak lortutako irakurketako batez besteko puntuazioa ere adierazten da. Lehen mailako edo maila baxuagoko ikasketak dituzten amen ehunekoa handitik txikira ordenatu da.

**PISA 2009. Amaren ikasketa maila eta Irakurketako batez besteko puntuazioa herrialdeen arabera**

HERRIALDEAK	Lehen mailakoak edo maila baxuagoak		Bigarren mailakoak		Goi mailakoak	
	ikasleen %	Puntuazioa Irakurketan	ikasleen %	Puntuazioa Irakurketan	ikasleen %	Puntuazioa Irakurketan
Espainia	40,3	460	27,3	486	32,4	509
Italia	35,4	459	40,0	502	24,6	503
Luxenburgo	29,8	437	33,1	486	37,1	504
<b>ELGA</b>	<b>22,8</b>	<b>445</b>	<b>39,8</b>	<b>486</b>	<b>37,4</b>	<b>527</b>
<b>Euskadi</b>	<b>22,5</b>	<b>477</b>	<b>29,5</b>	<b>496</b>	<b>47,9</b>	<b>509</b>
Alemania	19,3	452	54,8	515	25,9	532
Frantzia	19,1	459	39,9	500	41,0	530
Herbehereak	14,3	481	46,1	509	39,6	526
Finlandia	8,5	498	19,7	518	71,8	547
Erresuma Batua	7,1	456	46,8	495	46,1	518

Grafikoan, Euskadiko, Espainiako eta ELGAko batez besteko datuez gain, Finlandiakoak ere ageri dira, aukeratutako herrialdeen artean amek goi mailako ikasketa kopuru handiena duten herrialdea delako.

**12. grafikoa. PISA 2009. Amaren ikasketak eta irakurketako errendimendua**



Ikus daitekeen moduan, amaren ikasketa maila zenbat eta altuagoa izan, seme-alabek irakurmenean orduan eta puntuazio altuagoa izango dute. Euskadin, amek lehen mailako ikasketak dituzten eta amek goi mailako ikasketak dituzten ikasleen arteko puntuazio-aldea 32 puntukoa da. ELGAN aldea 82 puntukoa da eta Finlandian 49 puntukoa, Espainiakoaren antzekoa (44 puntu).

Euskadin, amek % 48k dituzte goi mailako ikasketak; ehuneko hori Finlandiak soilik gainditzen du; izan ere, PISA 2009ko 15 urteko ikasleen amek % 72k lortzen du aipatutako maila. ELGAN, ehuneko % 38koa da, eta Espainiakoak, % 32koa.


Aitek ikasketa maila bakoitzean dituzten ehunekoak ageri dira hurrengo taulan, baita horietako bakoitzean seme-alabei dagozkien batez bestekoak ere.

**PISA 2009. Aitaren ikasketa maila eta Irakurketako batez besteko puntuazioa herrialdeen arabera**

HERRIALDEAK	Lehen mailakoak edo maila baxuagoak		Bigarren mailakoak		Goi mailakoak	
	ikasleen %	Puntuazioa Irakurketan	ikasleen %	Puntuazioa Irakurketan	ikasleen %	Puntuazioa Irakurketan
Espainia	42,7	463	22,8	486	34,5	507
Italia	37,6	464	38,7	500	23,7	506
Luxenburgo	23,8	428	34,4	485	41,8	504
Euskadi	<b>23,0</b>	<b>478</b>	<b>26,6</b>	<b>490</b>	<b>50,4</b>	<b>510</b>
ELGA	<b>22,6</b>	<b>445</b>	<b>39,5</b>	<b>496</b>	<b>37,9</b>	<b>527</b>
Frantzia	20,9	473	41,0	499	38,2	534
Herbehereak	15,5	480	38,4	507	46,1	528
Alemania	15,1	443	43,7	510	41,2	530
Finlandia	13,6	516	20,2	525	66,2	546
Erresuma Batua	10,9	474	44,6	501	44,5	517

PISA 2009an 15 urteko ikasleen aitek lortutako ikasketa mailari dagokionez, Euskadin, % 50ek goi mailako ikasketak dituzte; ehuneko hori Finlandiak soilik gainditzen du, bertan, % 66k lortzen. ELGAko batez bestekoa % 38koa da, eta Espainiakoa, % 35koa.


**13. grafikoa. PISA 2009. Aitaren ikasketak eta irakurketako errendimendua**



Aitek lehen mailako edo goragoko ikasketak izatearen arabera ikasleen irakurketa-puntuazioan lortutako aldea 32 puntukoa da Euskadin (amen ikasketa-azterketan ageri den ehuneko berbera). ELGAN ere aldea berbera da, 83 puntukoa, baita Espainian ere (44 puntu). Finlandiaren kasuan aldea 30 puntukoa da, amek ikasketa maila bat edo bestea duten aldea baino baxuagoa.


Jarraian, Espainian, Finlandian, ELGAko batez bestekoa eta Euskadin hiru azterketa-mailatan aiten eta amen ehuneko alderaketa-azterketa (PISA 2003 eta PISA 2009) egin da. Puntuazioek ez dute alderaketa egiteko aukerarik ematen; izan ere, 2003ko edizioan matematika-konpetentzia aztertu genuen, eta oraingo edizioan irakurmena aztertu dugu. Hala ere, interesgarria iruditu zaigu PISA 2003an ebaluatutako ikasleen aitek eta amek lortutako eta 6 urte geroago PISA 2009an lortutako ikasketa mailen bilakaeraren jarraipena egitea.

**14. grafikoa. Amen ikasketa mailaren ehunekoa.  
PISA 2003 - PISA 2009 alderaketa**



Grafikoan ikus daitekeen moduan, Euskadin, PISA 2003 eta PISA 2009 artean, murriztu egin da lehen mailako ikasketak edo baxuagoak dituzten amen kopurua; baita bigarren mailako ikasketak dituztenen kopurua ere; aldiz, goi mailako ikasketak dituztenen kopuruak gora egin du, 17 puntu hain zuzen, eta PISA 2009ko ikasleen amen % 48 izatera iritsi dira. Finlandiako eta ELGAko joeraren antzekoa da. Espainian, Bigarren mailako ikasketa mailan ehunekoa mantendu egiten da, lehen mailako ikasketak edo baxuagoak dituzten amen kopurua jaitsi egin da eta 6 puntutan igo da goi mailako ikasketak lortu dituztenen ehunekoa.

**15. grafikoa . Aiten ikasketa mailaren ehunekoa.  
PISA 2003 PISA 2009 alderaketa**



Euskadin, Lehen mailako eta Bigarren mailako ikasketak dituzten aiten ehunekoa jaitsi egin da eta goi mailako ikasketak dituztenen ehunekoak % 11 egin du gora, PISA 2009 ebaluazioko ikasleen aiten % 50era iritsi arte. Jokaera hori bera antzematen da ELGAko batez bestekoan eta Finlandian, nahiz eta ehunekoak aldatu. Espainian, Lehen mailako edo baxuagoko ikasketak dituzten aiten ehunekoa mantendu egiten da, Bigarren mailako ikasketak dituztenen ehunekoa jaitsi egin da zertxobait eta Goi mailako ikasketak egin dituztenena % 5 igo da, % 35era iritsi arte.

## 6.2. IKASLEEN FAMILIA-JATORRIA ETA IRAKURKETAKO ERRENDIMENDUA

**Bertako ikasleen eta ikasle etorkinen irakurketan batez besteko puntuazioen artean alderik handienetakoak ditu Euskadik (71 puntu). Aldea Finlandiakoaren antzekoa da, eta Italiak, Errioxak, Kataluniak eta Gaztela eta Leonek gainditzen dute. ELGAN, irakurketako emaitzetako aldea 44 puntukoa da, bertako ikasleen alde.**

Galdetegian bildutako galderatako batek norbere jaioterriari, amarenari eta aitarenari egiten dio erreferentzia. Datu horietatik abiatuta, taula hauetan ikaslearen jatorriari buruz (bertakoa edo etorkina) bildutako informazioa prestatu da.

**PISA 2009\*. Ikasleen ehunekoa jatorriaren eta irakurketako errendimenduaren arabera, herrialdeka**

HERRIALDEAK	Herrialdeko jatorria		Etorkin-jatorria		Aldea
	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	
Italia	94,5	491	5,5	418	73
<b>Euskadi</b>	<b>95,3</b>	<b>499</b>	<b>4,7</b>	<b>428</b>	<b>71</b>
Finlandia	97,4	538	2,6	468	70
Frantzia	86,9	505	13,1	444	61
Espainia	90,5	488	9,5	432	56
Alemania	82,4	511	17,6	455	56
Luxenburgo	59,8	495	40,2	442	53
Herbehereak	87,9	515	12,1	470	45
<b>ELGA</b>	<b>89,9</b>	<b>500</b>	<b>10,1</b>	<b>456</b>	<b>44</b>
Erresuma Batua	89,4	499	10,6	476	23

\*PISA 2009 ebaluazioaren arabera (15 urteko ikasleak), Euskadin etorkin-jatorriko ikasleen ehunekoa % 4,7koa da. Hala eta guztiz ere, Euskadiko Ebaluazio Diagnostikoetan, 2009 eta 2010 urteetan egindako errolda-ebaluazioetan, etorkin-jatorriko DBHko 2. mailako ikasleen ehunekoa % 7,8 eta % 7,9koa da, hurrenez hurren. Urte horietan, Lehen Hezkuntzako 4. mailan, etorkinen ehunekoa % 6,8koa eta % 6,9koa da, hurrenez hurren.<sup>12</sup>

Jatorrikoak eta etorkinak diren ikasleen batez besteko puntuazioetako aldeak erakusten du Euskadi (71 puntu) alde handiena dutenen artean dagoela; Italiak soilik gainditzen du (73 puntu) Euskadiko aldea eta Finlandiakoarenaren antzekoa da (70 puntu). Aukeratutako herrialdeen artean, ikasle etorkin kopuru baxuenekoak dira. ELGAko emaitzen batez besteko aldea 44 puntukoa da, bertako ikasleen alde.

<sup>12</sup> ISEI-IVEI. 2009ko Ebaluazio Diagnostikoa. Faktoreen eta aldagaien azterketa. DBHko 2. maila  
 ISEI-IVEI. 2009ko Ebaluazio Diagnostikoa. Faktoreen eta aldagaien azterketa. Lehen Hezkuntzako 4. maila  
 ISEI-IVEI. 2010eko Ebaluazio Diagnostikoa. Emaitzen txosten orokorra eta aldagaien azterketa. DBHko 2. maila  
 ISEI-IVEI. 2010eko Ebaluazio Diagnostikoa. Emaitzen txosten orokorra eta aldagaien azterketa. Lehen Hezkuntzako 4. maila

**PISA 2009. Ikasleen ehunekoa jatorriaren eta irakurketako errendimenduaren arabera, komunitate autonomoka**

EE.AA	Herrialdeko jatorria		Etorkin-jatorria		Aldea
	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	
Errioxa	86,9	511	13,1	427	84
Katalunia	88,8	508	11,2	425	83
Gaztela eta Leon	94,7	508	5,3	427	81
<b>Euskadi</b>	<b>95,3</b>	<b>499</b>	<b>4,7</b>	<b>428</b>	<b>71</b>
Aragoi	87,8	504	12,2	439	65
Murtzia	87,5	489	12,5	426	63
Asturias	94,8	495	5,2	433	62
Madril	83,7	514	16,3	456	58
Espainia	90,5	488	9,5	432	56
Nafarroa	87,3	505	12,7	451	54
Andaluzia	94,2	465	5,8	412	53
Kantabria	92,9	492	7,1	444	48
Galizia	95,8	489	4,2	442	47
Ceuta eta Melilla	89,3	420	10,7	374	46
<b>ELGA</b>	<b>89,9</b>	<b>500</b>	<b>10,1</b>	<b>456</b>	<b>44</b>
Balear uharteak	84,7	466	15,3	430	36
Kanariar uharteak	88,3	451	11,7	437	14

Komunitate autonomoen artean, Errioxak, Kataluniak eta Gaztela-Leonek soilik gaintzen dute bertako biztanleriaren eta Euskadiko atzerritar jatorria dutenen artean irakurketan gertatzen den aldea. Ikasle etorkinen artean Euskadik baino emaitza baxuagoak dituzten sei komunitateen artetik hiruk Euskadikoaz eta ELGAkoaz azpiko batez besteko puntuazioa dute.

### 6.3. IKASLEEN JAIOTZE-HIRUHILEKOAREN ERAGINA IRAKURKETAKO EMAITZEN

**DBHko 4. maila egiten ari diren eta 15 urterekin egokitasun-egoeran dauden ikasleengan, jaiotze-hiruhilekoak ez du eraginik irakurmeneko emaitzetan. Lehen hiruhilekoan jaiotakoaren artean, egoera egokian dauden ikasleen ehunekoa laugarren hiruhilekoan jaiotakoena baino % 5 altuagoa da**

Hezkuntza maila desberdinetan, hau da, Lehen Hezkuntzako 4. mailan eta DBHko 2. mailan ikasleekin egindako ikerketa eta ebaluazioetan<sup>13</sup> aztertzen da urteko hiruhileko batean edo bestean jaio izanak ikasleen errendimenduan zer eragin duen. Aipatutako txostenetan, aldagai honen gainean egindako beste ikerketa batzuk biltzen dira.


2009ko Ebaluazio Diagnostikoan ondorioztatu genuen Lehen Hezkuntzako 4. mailako egoera egokian zeuden ikasleen matematikako errendimenduak nabarmen egiten zuela behera jaiotze-hiruhilekoaren arabera. Hala eta guztiz ere, DBHko 2. mailako ikasleen artean, egoera hori bera aintzat hartuta, aldeak ez

<sup>13</sup> ISEI-IVEI. Ikaslearen irakaskuntza-ikasketa prozesuan ikasturtea errepikatzeak duen eragina. 2009ko apirila, [www.isei-ivei.net](http://www.isei-ivei.net)  
 ISEI-IVEI. 2009ko Ebaluazio Diagnostikoa. Faktoreen eta aldagaien azterketa. DBHko 2. maila [www.isei-ivei.net](http://www.isei-ivei.net)  
 ISEI-IVEI. 2009ko Ebaluazio Diagnostikoa. Faktoreen eta aldagaien azterketa. Lehen Hezkuntzako 4. maila [www.isei-ivei.net](http://www.isei-ivei.net)

ziren adierazgarriak. Ikasleen adinak gora egin ahala, adin-aldeak eragindako bat ez etortzeak (kasu batzuetan ia urtebetekoak ere izan daitezke) konpentsatu egiten direla ondorioztatu zen. Albertan (Kanada) egindako azterketa baten<sup>14</sup> arabera, Ingelesaren errendimenduan adinaren efektuak behera egiten du Lehen Hezkuntzako 5. mailatik aurrera.


Gai hori aztertzen da PISA 2009ko datuekin. Grafikoan erakusten da hezkuntza mailan egokitasun-egoeran dauden ikasleen artean, % 80 urtearen lehen hiruhilekoan jaiotako direla; hau da, laugarren hiruhilekoan jaiotako ikasleak baino % 5 gehiago. Hau da, laugarren hiruhilekoan jaiotako ikasleen artean, % 25ek ikasturteren bat errepikatu du eta lehen hiruhilekoan jaiotakoaren artean % 20k.

**16. grafikoa. PISA 2009. DBHko 4. mailako egokitasun-egoeraraen ehunekoa eta ikasleen jaiotze-hiruhilekoa**



Hurrengo grafikoan ikus dezakegu adinaren arabera dagokien maila egiten ari diren (15 urte DBHko 4. mailan) ehun ikasletik zenbat jaiotako diren urteko hiruhileko bakoitzean.

**17. grafikoa. PISA 2009. Jaiotze-hiruhilekoaren arabera egokitasun-egoeran dauden 15 urteko ikasleen ehunekoa**




<sup>14</sup> Alberta Education. Accountability and Reporting Division (January 2008). Grade level of achievement 2006-07 pilot data. The Crown in Right of Alberta as represented by the Minister of Education

Hiruhilekoak urtearen hasieratik urruntzen diren heinean, ehunekoa murriztu egiten da; hau da, egoera egokian dauden ikasleen % 27 lehen hiruhilekoan jaio zen eta urteko laugarren hiruhilekoan jaiotako artean kopurua % 23ra arte jaisten da.

PISA 2009an jaiotze-hiruhilekoa irakurketako errendimendurekin erlazionatzen denean, ikus dezakegu lau hiruhilekotako edozeinetan jaiotako ikasleen arteko puntuazioan ia ez dagoela alderik. Esan genezake Lehen Hezkuntzan errendimenduan dauden aldeak murrizten ari direla, eta derrigorrezko hezkuntzaren aldia amaitzerako alderik ez dela nabari.

**18. grafikoa. PISA 2009. Irakurketako errendimendua ikaslearen jaiotze-hiruhilekoaren arabera**





7

**IKASTETXEETAKO EZAUGARRIAK**



## 7. IKASTETXEETAKO EZAUGARRIAK

Atal honetan, ikasleek eta hezkuntza-zentroetako zuzendaritzek betetako galdetegien bidez bildutako informazioaren zati bat aztertzen da. Galderek eta dagozkien erantzunek iritzi eta pertzepzio pertsonalak eta subjektiboak eskaintzen dituzte; ez dira kanpo-behaketa baten emaitzak.

Gainera, aintzat hartu behar da ikastetxeetako zuzendaritzen kasuan, galdetegiarri erantzuten diona pertsona bakarra dela, zuzendaria, eta pertsona horren pertzepzioak eta iritziak profesional eta ikasle multzo zabalaren jarduerari buruzkoak direla. Horrek nolabaiteko muga eragiten du ordezkagarritasunean; hala eta guztiz ere, eskaintzen duen informazioak Euskadiko hezkuntza-zentroetako bereizgarriak islatzen ditu eta alor jakin batzuk beste herrialdeetako eta komunitateetako sistemekin alderatzea ahalbidetzen du.

Ikastetxeko eta ikasgelako alor jakin batzuek ikaslearen errendimenduan eragiten dutela aintzat hartuz, PISA 2009 ebaluazioan izan duten eragina aztertu nahi da. Zehazki, ikasgelako giroa eta diziplina, irakasleen eta ikasleen artean ezartzen den harremana, eta irakurketaren estimulazioan irakasleek duten zeregina aztertu nahi da. Ikastetxeetan dauden baliabideak, hezkuntzako gastua eta horrek guztiak irakurketaren errendimenduan duen eragina ere aztertzen dira.

### 7.1 IKASTETXEKO GIROA

PISAk aztertzen duen alorretako bat 15 urteko ikasleek ikaskuntzaren, ikasgeletako eskola-giroaren eta irakasleekiko harremanen inguruan duten pertzepzioa da. Ikasgelako giroa eta diziplina hezkuntza-kalitatearekin lotutako aldagaiak direla uste da. Ikastetxean, eta zehazkiago ikasgelan, eskola-giro egokia izateak hezkuntza-lana errazten du eta ikaskuntza-aukera gehiago eta hobeak ematen ditu. Alor hau ikertzeko, ikasleen iritzietatik abiatutako bi indize osatu dira, beren iritzien eta lortu duten errendimenduaren arteko harremana ezartzeko helburuarekin.

#### 7.1.1. Ikasleak diziplinarekiko eta ikasgelako giroarekiko duen pertzepzioa

**Ikasleak jasotako ikasgelako giroaren eta diziplinaren eta irakurketako errendimenduaren artean korrespondentzia dago; horrela, ikasgelan zenbat eta diziplina maila handiagoa eta giro hobeagoa egon, orduan eta emaitza hobeak lortuko dira. 15 urteko Euskadiko ikasleek Espainiako eta ELGako batez bestekoaren moduan jasotzen dute ikasgelako giroa, beren artean alde adierazgarririk gabe.**

Ikasleek galdetegian egiten ziren hainbat galderari emandako erantzunetatik abiatuta, ikasgelako giroari eta diziplinari buruzko egindako indize baten bidez aztertzen du gaia PISA 2009k.


Ikasgelan egoera jakin batzuk zer maiztasunekin –“inoiz ez edo ia inoiz ez”, “eskola batzuetan”, “eskola gehienetan” edo “eskola guztietan”- gertatzen ziren galdetu zitzairen ikasleei.

Hizkuntza-eskoletan zer maitasunekin gertatzen dira honako hauek?

- a) Ikasleek ez dute ulertzen irakasleek diotena
- b) Zarata dago eta ordena falta da
- c) Irakasleak asko itxaron behar du ikasleak isildu arte
- d) Ikasleek ezin dute ondo lan egin
- e) Ikasleak ez dira lanean hasten eskola hasi eta denbora tarte handi bat pasatu arte

Ikasgelako diziplina eta giroari buruzko galderak erantzun dituzten ikasleen ehunekoak ageri dira grafikoan; erantzunak bi maiztasunetan bateratzen dira: "Inoiz ez eta batzuetan" eta "Eskola gehienetan eta guztietan". Euskadiko eta ELGAko datuak biltzen dira.

### 19. grafikoa. PISA 2009. Ikasleen ehunekoa diziplina eta ikasgelako giroaren arabera.




Euskadiko ikasleek "Inoiz ez eta batzuetan" maiztasunean ELGAkoek baino ehuneko zertxobait baxuagoak erakusten dituzte deskribatutako egoera guztietan. "Ezin da ondo lan egin" egoeran ez da halakorik gertatzen; bertan, ehunekoetan bat-etortzeak baitaude ( % 83 eta % 17). "Eskola gehienetan eta guztietan" maiztasunean, Euskadiko ikasleen arteko ehunekorik altuenak "Zarata eta ordena-gabezia", "Irakasleari arretarik ez jartzea" eta "Ikasleak isildu arte denbora luzean itxaron behar izatea" jarduerekin datoz bat.

Hurrengo grafikoan, egoera hauetako bakoitzak PISA 2009ko Irakurketako errendimenduari duen loturari buruzko Euskadiko eta ELGAko datuak ageri da.

Bai Euskadin, bai ELGAN, "Inoiz ez eta eskola batzuetan" maiztasun baxuei dagozkien ikasleek lortzen duten batez bestekoa "Eskola gehienetan eta guztietan" maiztasunari dagokiona baino nabarmen altuagoa da. Salbuespen bakarra dago: "Ikasleek ez diote arretarik jartzen irakasleak diotena" egoerak ez du alde handirik erakusten bi taldeetako Euskadiko ikasleen artean.

**20. grafikoa. PISA 2009. Irakurketako errendimendua ikasgelako giro-egoeren maiztasunaren arabera**



Erantzunekin loturiko datuetatik abiatuta, "Ikasgelako giroa eta diziplina" indizea eratu zen eta bertako informazioa hurrengo tauletan ageri da. Indizeko balio positiboek diziplina maila hobea adierazten dute, eta balio negatiboek, berriz, ikasgelako diziplina maila baxuagoa adierazten dute, ikasleen pertzepzioaren arabera.


Euskadin, indize honen balioak -2,81 (ikasgelan giro txarra dutenen balioa) eta 1,84 (ikasgelan giro eta diziplina ona dutenen balioa) artekoak dira. Batez besteko balioa 0,02 da.

**PISA 2009. "Ikasgelako giroa eta diziplina" Indizearen balioak Euskadin**

Kopurua	Gutxienekoa	Gehienekoa	Batez bestekoa	Akats tipikoa
15.320	-2,81	1,84	<b>0,02</b>	0,03

Ikasgelako giroaren eta emaitzen arteko lotura hurrengo grafikoan ageri da. Bertan, ikasleek jasotzen duten ikasgelako diziplina eta giro onaren arabera osatzen diren lau kuartilak ordezkatzeko dira, baita talde bakoitzak lortutako emaitza ere.

**21. grafikoa: PISA 2009. "Ikasgelako giroa eta diziplina" eta Irakurketako errendimendua**



Ikus daitekeen moduan, ikasgelako giro eta diziplina onaren maila zenbat eta altuagoa izan, lortuko diren emaitzak orduan eta hobek izango dira. Euskadin, bitarteko kuartiletan ez dago alderik emaitzei dagokienez: ikasgelako diziplina maila ertain baxua eta ertain altua adierazten dutenen emaitzak antzekoak dira.

Hurrengo taulak indize honen balioak eta Euskadin, ELGAN eta zenbait herrialde parte-hartzailetan Irakurketan lortutako emaitzak erakusten ditu. Baliorik baxueneko ikasleen (I. kuartila) eta baliorik altueneko ikasleen (4. kuartila) puntuazioak erakusten dira. Herrialdeak "ikasgelako giroa eta diziplina" indizean baliorik handienetik txikienera daude ordenatuta.

**PISA 2009. "Ikasgelako giroa eta diziplina" eta errendimendua**

HERRIALDEAK	Ikasgelako giroa eta diziplina						Puntuazioa Irakurketan				Indizeko unitate bakoitzeko aldaketa puntuazioan
	Ikasleak, guztira		Diziplina maila txikia		Diziplina maila handia		Diziplina maila txikia		Diziplina maila handia		
	Media	E.T.	Media	E.T.	Media	E.T.	Media	E.T.	Media	E.T.	
Alemania	0,25	0,02	-1,05	0,03	1,40	0,01	487	4,4	513	3,6	9,1 (1,85)
Erresuma Batua	0,11	0,03	-1,26	0,02	1,30	0,01	464	3,4	519	3,0	21,1 (1,64)
Espainia	0,09	0,02	-1,30	0,02	1,31	0,01	465	3,0	494	2,1	10,9 (1,12)
Italia	0,03	0,02	-1,40	0,01	1,25	0,01	453	2,2	518	1,9	23,6 (1,06)
Euskadi	0,02	0,03	-1,32	0,02	1,22	0,01	480	5,2	511	3,5	9,9 (2,21)
ELGA	0,00	0,00	-1,28	0,00	1,17	0,00	477	0,7	515	0,7	14,3 (0,33)
Frantzia	-0,20	0,03	-1,59	0,02	1,12	0,01	482	5,0	519	5,2	12,7 (2,60)
Luxenburgo	-0,21	0,02	-1,77	0,02	1,21	0,02	462	2,9	501	3,0	13,3 (1,38)
Herbehereak	-0,28	0,02	-1,43	0,02	0,84	0,02	502	6,1	518	7,0	6,6 (2,49)
Finlandia	-0,29	0,02	-1,51	0,02	0,85	0,02	532	3,0	546	3,6	4,0 (1,61)

Euskadin, indize honen balioa ELGAkoaren berdina da

Datuek hau adierazten dute:

- Euskadiko 15 urteko ikasleek ikasgelako giroa eta diziplina Espainiako eta ELGAko batez bestekoaren antzera jasotzen dute.
- Aipatutako indizearen balioak ez du alde adierazgarrikerak erakusten. Herrialde guztietan, korrespondentzia gertatzen da ikasgelako diziplina mailaren eta irakurketako errendimenduaren


artean. Muturreko kuartiletan kokatzen diren ikasleen puntuazioetako aldeek, hau da, diziplina maila handiagoko eta txikiagoko egoerei dagozkienek, 31 puntu lortzen dituzte Euskadin, 38 Espainian eta 40 ELGAn.

- Muturreko bi kuartilen artean lortutako puntuazioen aldea 65 puntukoa da Italian, eta 55ekoa, Erresuma Batuan; Finlandian eta Herbehereetan, berriz, 14 eta 16 puntu soilik, hurrenez hurren.
- Bi taldetako Euskadiko ikasleek irakurketan lortutako puntuazioak (diziplina gutxi jasotzen dutenek 480 puntu eta diziplina gehiago jasotzen dutenek 511 puntu) ELGAko kideak diren taldeen berdinak dira eta talde horiek Espainian lortzen dituztenak baino nabarmen altuagoak dira.
- “Ikasgelako diziplina eta giroa” indizeko balioa puntu bat aldatzen denean, irakurketako emaitzek batez beste 9,9 puntu egiten dute gora edo behera Euskadin; 10,9, Espainian, eta 14,3 puntu, ELGAn. Aldea ELGAkoarekin alderatuta soilik da adierazgarria; Euskadin Espainian, Frantzian, Alemanian, Luxenburgon eta Herbehereetan bezala eragiten du.

Hurrengo taulak komunitate autonomoetan indize honi dagozkion datuak aurkezten ditu, baita bakoitzak irakurketan lortutako emaitzak ere.

**PISA 2009. “Disciplina y clima de aula” y rendimiento en las CCAA**

EE.AA	INDIZEAREN BATEZ BESTEKO BALIOA		IRAKURKETAKO BATEZ BESTEKO PUNUAZIOA		Indizeko unitate bakoitzeko aldaketa puntuazioan
	Batez bestekoa	AT	Batez bestekoa	AT	
Madril	0,12	0,04	503	4,4	9,4 (2,85)
Gaztela eta Leon	0,18	0,06	503	4,9	15,2 (3,53)
Katalunia	0,00	0,06	498	5,2	14,6 (3,15)
Errioxa	-0,05	0,03	498	2,4	4,6 (2,38)
Nafarroa	0,08	0,05	497	3,1	4,8 (2,96)
Aragoi	0,06	0,05	495	4,1	6,2 (2,74)
Euskadi	0,02	0,03	494	2,9	9,9 (2,21)
ELGA	0,00	0,00	493	0,5	14,3 (0,33)
Asturias	0,12	0,07	490	4,8	7,3 (3,72)
Kantabria	0,07	0,04	488	4,1	3,3(2,89)
Galizia	-0,03	0,07	486	4,4	6,9 (3,03)
Espainia	0,09	0,02	481	2,0	10,9 (1,12)
Murtzia	0,11	0,07	480	5,1	7,7 (2,68)
Andaluzia	0,12	0,05	461	5,5	10,6 (2,28))
Balear uharteak	-0,05	0,06	457	5,6	13,4 (4,62)
Kanariar uharteak	0,11	0,05	448	4,3	13,3 (3,13)
Ceuta eta Melilla	-0,02	0,02	412	2,5	15,4 (2,37)

 Euskadiko batez bestekoa baino batez besteko puntuazio nabarmen baxuagoak. Gainerako komunitate autonomoekiko aldea ez da adierazgarria.

Madril eta Gaztela eta Leon dira Euskadiko ikasgelako diziplina eta giro maila baino nabarmen maila altuagoa jasotzen duten komunitate bakarrak. Lehen aipatu dugun moduan, 15 urteko ikasleen ikasgelako diziplinarekin eta giroarekin lotuta, Euskadin ez dago alderik Espainiako eta ELGAko batez bestekoarekin lotuta.

Hala eta guztiz ere, indizearen balioan puntu bateko aldakuntza gertatzen denean, Euskadiko emaitzak hori Espainian edo ELGAn gertatzen denean baino gutxiago aldatzen dira. Hau da, ikasgelako giroaren edo diziplinaren aldakuntzak nabarmenago eragiten du Espainiako batez bestekoan eta ELGAn Euskadin baino (9,9 puntu Euskadin; 14,9 ELGAn eta 15,5 Espainian).

## Ikasgelako diziplina eta giroa indizearen bilakaera Euskadin. PISA 2003 - PISA 2009

Indize hori bera ebaluatu zen matematiketan oinarritutako PISA 2003 edizioan. Bi edizioetako alderaketa ageri da. Balioek egonkortasun handia erakusten dute: Ikasleek ikasgelako diziplinaren giroaz duten pertzepzioa, bai matematiketan, bai irakurketan, antzekoa da bi edizioetan. Indizea aldatzen denean puntuazioetan dagoen eragina ere oso antzekoa da, PISA 2009an baino zertxobait baxuagoa; izan ere, aurreko ebaluazioarekin alderatuta 2 puntuko aldea dago.

**"Ikasgelako diziplina eta giroa" indizearen balioa. PISA 2003-PISA 2009 alderaketa.**

	Indizearen balioa	Indizeko unitate-aldakuntza bakoitzaren arabera aldaketa puntuazioan
PISA 2003	0,00	11,09
PISA 2009	0,02	9,9

### 7.1.2 Irakasleak-ikasleak harremanen pertzepzioa eta errendimendua

**Ikasleak irakaslearekiko duen harremanarekiko pertzepzioa ez dago irakurketako emaitzekin tinko lotuta. Irakasle-ikasle harreman txarra dutenen eta gainerako artean alde adierazgarri bat soilik nabari da. Euskadin, ikasleek irakasleekin duen harremanaren pertzepzioa Espainiako eta ELGAko batez bestekoa baino baxuagoa da.**

Harreman hau ebaluatzeko, irakasleen eta ikasleen arteko harremanari buruzko baieztapen jakin batzuekiko adostasun edo desadostasun mailaren gainean –“batere ados ez”, “ados ez”, “ados” edo “gutziz ados”- galdetu zitzaizkien ikasleei.


Zure ikastetxeko/institutuko irakasleen inguruan, baieztapen hauekin zenbateraino zaude ados edo desados?

- Irakasle gehienekin harreman ona dut
- Nire irakasle gehienak nire ongizateaz arduratzen dira
- Nire irakasle gehienek arretaz entzuten dute esaten dudana
- Aparteko laguntza behar badut, nire irakasleengandik jasotzen dut
- Irakasle gehienek ondo tratatzen naute

Hurrengo grafikoan, irakaslearekin dituen harremanekiko pertzepzioen inguruko galderak erantzun dituen ikasleen ehunekoa ageri da. Erantzunak bi maiztasun-bloketan bateratu dira: “Desados eta guztiz desados” eta “Ados eta guztiz ados”. Euskadiko eta ELGAko datuak biltzen dira.



## 22. grafikoa. PISA 2009. Ikasleen ehunekoa irakasleekiko harremanaren arabera




Euskadiko ikasleek ELGAkoen oso antzeko pertzepzioa dute irakaslearekiko harremanen inguruan, egoera guztietan biek erakusten dituzten ehunekoetatik (oso antzekoak) ondorioztatzen den moduan. Ehunekorik altuenak egoera hauetan erakutsitako adostasunean gertatzen dira: “*Harreman ona dut irakasle gehienekin*” (% 82 Euskadin eta % 85 ELGAn), “*Irakasle gehienek ondo tratatzen naute*” (% 81, bi kasuetan) eta “*Aparteko laguntza behar badut, nire irakasleengandik jasotzen dut*” (% 72 Euskadin eta % 81 ELGAn).

Irakaslearekiko harremanak jasotzeko moduak irakurketaren errendimenduan duen eragina erakusten du hurrengo grafikoak. Euskadiko eta ELGAko datuak erakusten dira.

Aztertutako iritziekin “*Ados eta guztiz ados*” daudela dioten ikasleek lortutako batez batezkoa “*Desados eta guztiz desados*” daudela diotenena baino nabarmen altuagoa da. Euskadin eta ELGAn gertatzen da hori.

**23. grafikoa. PISA 2009. Irakurketako errendimendua irakaslearekiko harremanan inguruko pertzepzioaren arabera**



Galdera hauei emandako erantzunetatik abiatuta, “*Irakasleak-ikasleak harremana*” indizea eratu zen; bertan, balio positiboek harreman hobea adierazten dute, eta balio negatiboek harreman maila baxuagoa.

Euskadin, indizearen balioak -2,90 (irakasle-ikasle arteko harreman txarra jasotzen dutenak) eta 2,45 (irakasle-ikasle arteko harreman ona jasotzen dutenak) artekoak dira. Batez besteko balioa -0,06 da.


**PISA 2009. “Irakasleak-ikasleak harremana” indizearen balioak Euskadin**

Kopurua	Gutxienekoa	Gehienekoa	Batez bestekoa	Akats tipikoa
15.349	-2,90	2,45	-0,06	0,02

Indize honen eta emaitzen arteko lotura aztertzeko, ikasleak lau taldetan edo kuartiletan banatzen dira, irakasleekiko harremanari eskaintzen dion balio handiaren edo txikiaren arabera, eta talde horietako bakoitzak Irakurketan lortutako batez besteko puntuazioa zehazten da.

Hurrengo grafikoak erakusten du harreman hori lehen kuartilaren eta gainerakoaren artean soilik gertatzen dela. Ikasleek indize honetan oso balio baxua (hau da, irakaslearekiko harremana txartzat hartzen dute) baldin badute, gainerako taldeekin alde adierazgarria ikus daiteke irakurketako emaitzetan. Hala eta guztiz ere, maila honetatik aurrera, emaitzetan ez dago alderik. Horrek agerian jartzen du irakaslearekiko harreman onaren pertzepzioaren eta errendimendu hobea lortzearen artean ez dagoela harreman oso egonkorrik.

**24. grafikoa: PISA 2009. "Irakasleak-ikasleak harremana" eta Irakurketarako errendimendua**



Irakaslea-ikaslea harremana ulertzeko moduaren eta irakurketako emaitzen arteko harremana hurrengo taulan zehazten da.

**PISA 2009. "Irakasleak-ikasleak harremana" eta errendimendua**

HERRIALDEAK	Irakasleak-ikasleak harremana						Puntuazioa Irakurketan				Indizeko unitate bakoitzeko aldaketa puntuazioan
	Ikasleak, guztira		Harreman txarra		Harreman ona		Harreman txarra		Harreman ona		
	Media	E.T.	Media	E.T.	Media	E.T.	Media	E.T.	Media	E.T.	
<b>Erresuma Batua</b>	0,12	0,02	-1,00	0,01	1,35	0,02	466	3,3	515	3,7	17,7 (1,68)
<b>Alemania</b>	0,01	0,02	-1,25	0,02	1,38	0,02	498	4,0	499	3,4	1,5 (1,65)
<b>ELGA</b>	<b>0,00</b>	<b>0,00</b>	<b>-1,15</b>	<b>0,00</b>	<b>1,26</b>	<b>0,00</b>	<b>475</b>	<b>0,7</b>	<b>506</b>	<b>0,7</b>	<b>12,2 (0,31)</b>
<b>Espainia</b>	<b>-0,03</b>	<b>0,02</b>	<b>-1,24</b>	<b>0,01</b>	<b>1,32</b>	<b>0,01</b>	<b>465</b>	<b>3,0</b>	<b>484</b>	<b>2,1</b>	<b>7,3 (1,26)</b>
<b>Luxenburgoko</b>	<b>-0,04</b>	<b>0,02</b>	<b>-1,35</b>	<b>0,01</b>	<b>1,42</b>	<b>0,02</b>	<b>462</b>	<b>2,8</b>	<b>470</b>	<b>3,1</b>	<b>3,0 (1,49)</b>
<b>Italia</b>	<b>-0,06</b>	<b>0,01</b>	<b>-1,23</b>	<b>0,01</b>	<b>1,18</b>	<b>0,01</b>	<b>476</b>	<b>2,1</b>	<b>485</b>	<b>2,2</b>	<b>3,8 (0,98)</b>
<b>Euskadi</b>	<b>-0,06</b>	<b>0,02</b>	<b>-1,22</b>	<b>0,02</b>	<b>1,17</b>	<b>0,01</b>	<b>474</b>	<b>4,1</b>	<b>505</b>	<b>4,8</b>	<b>12,3 (2,06)</b>
<b>Herbehereak</b>	<b>-0,11</b>	<b>0,02</b>	<b>-1,01</b>	<b>0,02</b>	<b>0,83</b>	<b>0,02</b>	<b>498</b>	<b>5,4</b>	<b>516</b>	<b>7,0</b>	<b>7,0 (2,72)</b>
<b>Frantzia</b>	<b>-0,15</b>	<b>0,02</b>	<b>-1,21</b>	<b>0,02</b>	<b>0,99</b>	<b>0,02</b>	<b>468</b>	<b>5,8</b>	<b>508</b>	<b>4,7</b>	<b>15,2 (2,95)</b>
<b>Finlandia</b>	<b>-0,16</b>	<b>0,02</b>	<b>-1,19</b>	<b>0,01</b>	<b>0,93</b>	<b>0,02</b>	<b>512</b>	<b>3,4</b>	<b>556</b>	<b>3,2</b>	<b>20,1 (1,44)</b>

Euskadin, indize honen balioa ELGAkoa baino nabarmen baxuagoa da.  
Herrialdeak balio handitik txikira daude ordenatuta indizean

Datuek hau adierazten dute:

- Euskadiko 15 urteko ikasleek Espainiako eta ELGAko batez bestekoak baino pertzepzio maila baxuagoa du irakasleekiko harremanari dagokionez.
- Muturreko kuartiletan kokatzen diren ikasleen puntuazioetako aldeek, hau da, irakasleekiko harremanari buruzko pertzepzio ona eta txarra dutenek, 31 puntu lortzen dituzte Euskadin eta ELGAN, eta 29 puntu, Espainian.
- Aldea 49 puntutara irits daiteke Erresuma Batuan, 44 puntutara Finlandian eta 40ra Frantzian. Alemanian eta Luxenburgon 1 eta 8 puntuko aldea soilik dago, hurrenez hurren.
- Bi taldeetako Euskadiko ikasleek (474 puntu harreman txarraren pertzepzioa dutenek, eta 505 puntu harreman onaren pertzepzioa dutenek) irakurketan lortzen dituzten puntuazioak ELGAko

taldeen berdinak dira. Espainiako batez bestekoarekin lotuta, 4. kuartileko taldeak dagokion taldeak baino puntuazio altuagoa lortu du.

- “Irakasleak-ikasleak harremana” indizeko balioa puntu bat aldatzen denean, Euskadin irakurketako emaitzek batez beste 12,3 puntu egiten dute gora edo behera; 7,3, Espainian, eta 12,2 puntu, ELGAN. Aldeak ez dira adierazgarriak; hau da, Euskadiko ikasleek irakasleekin duten harremanaren pertzepzioak gutxi eragiten du emaitzan; Espainian eta ELGAN bezala, eta Frantzia eta Herbehereetan bezala eragiten du.

Hurrengo taulak komunitate autonomoetan indize honi dagozkion datuak aurkezten ditu, baita bakoitzak Irakurketan lortutako emaitzak ere.

**PISA 2009. “Irakasleak-ikasleak harremana” eta errendimendua komunitate autonomoetan**

EE.AA	INDIZEAREN BATEZ BESTEKO BALIOA		IRAKURKETAKO BATEZ BESTEKO PUNTUAZIOA		Indizeko unitate bakoitzeko aldaketa puntuazioan
	Batezb.	A.T.	Batezb.	A.T.	
Madril	-0,09	0,05	503	4,4	3,4 (4,49)
Gaztela eta Leon	-0,11	0,04	503	4,9	5,7 (2,90)
Katalunia	-0,07	0,04	498	5,2	14,0 (2,82)
Errioxa	-0,17	0,03	498	2,4	5,3 (3,25)
Nafarroa	-0,20	0,04	497	3,1	6,8 (3,07)
Aragoi	-0,15	0,04	495	4,1	7,5 (3,29)
Euskadi	-0,06	0,02	494	2,9	12,3 (2,06)
ELGA	0,00	0,00	493	0,5	12,2 (0,31)
Asturias	-0,07	0,04	490	4,8	0,8 (2,83)
Kantabria	-0,04	0,03	488	4,1	13,4(2,64)
Galizia	-0,19	0,04	486	4,4	10,3 (2,60)
Espainia	-0,03	0,02	481	2,0	7,3 (1,26)
Murtzia	0,04	0,04	480	5,1	0,1 (2,34)
Andaluzia	0,13	0,04	461	5,5	9,1 (2,23))
Balearr uharteak	-0,03	0,04	457	5,6	8,7 (3,92)
Kanariar uharteak	0,13	0,04	448	4,3	10,1 (3,04)
Ceuta eta Melilla	0,23	0,03	412	2,5	5,7 (2,71)

Euskadiko batez bestekoa baino batez besteko puntuazio nabarmen baxuagoak. Gainerako komunitate autonomoekiko alde ez da adierazgarria.

Komunitate gehienek balio negatiboa dute indize honetan. Kanarietako, Andaluziako eta Murtziako ikasleek pertzepzio positiboa eta antzekoa dute (alde adierazgarririk gabe) irakasleekiko harremanen inguruan. Dagoeneko aipatu den moduan, Euskadiko 15 urteko ikasleek ELGAko eta Espainiako batez bestekoak baino balio baxuagoa erakutsi dute indize honetan.

Hala eta guztiz ere, indizearen balioan puntu bateko aldakuntza gertatzen denean, Euskadiko emaitzak Espainian, ELGAN eta komunitate autonomo gehienetan (Murtzia eta Asturiasen kasuan soilik dago alde nabarmena) bezala aldatzen dira. Hau da, ikasleek irakasleekiko harremanaz duten pertzepzioak antzera eragiten du kasu guztietan.

## 7.2. METODOLOGIA ALORRA

### 7.2.1. Irakurketaren estimulazioan irakasleek duten rolari buruzko indizea

**Euskadin, hauek dira errendimenduarekin korrespondentzia handiena duten irakurketa estimulatzen ikasgelako jarduerak: irakasleak ikasleari testu baten esanahia azaltzeko eskatzea, testu baten ulermena hobetzeko galderak egitea eta erantzunak pentsatzeko nahikoa denbora ematea.**


Ikasleei egindako galderatik abiatuta gauzatu zen; maiztasunen artetik erantzun behar zuten: “Inoiz ez edo la inoiz ez”, “Batzuetan”, “Eskola gehienetan” eta “Eskola guztietan”.

*Hizkuntza-eskoletan zer maiztasunekin gertatzen dira honako hauek?*

- a) *Irakasleak testu baten esanahia azaltzeko eskatu die ikasleei.*
- b) *Irakasleak egiten dituen galderen bidez ikasleei testua hobeto ulertarazten laguntzen die.*
- c) *Irakasleek erantzunak pentsatzeko nahikoa denbora ematen die ikasleei.*
- d) *Irakasleak liburu bat edo egile bat gomendatzen du irakurtzeko.*
- e) *Irakasleak testu bati buruzko iritzia adierazten laguntzen die ikasleei.*
- f) *Irakasleak irakurtzen dituzten istorioak beren bizitzarekin erlazionatzen laguntzen die ikasleei.*
- g) *Testuetako informazioa dagoeneko ezagutzen duten horretan oinarritzen dela irakasten die irakasleak ikasleei.*

Galdera bakoitzari erantzundako ikasleen ehunekoa ageri da grafikoan, eta erantzunak bi maiztasunetan batu dira: “Inoiz ez edo batzuetan” eta “Eskola gehienetan eta guztietan”. Euskadiko eta ELGAko datuak biltzen dira.

25. grafikoa . PISA 2009. Ikasleen ehunekoa irakurketa estimulatzeko zeregin bakoitzeko maiztasunaren arabera




“Eskola guztietan eta gehienetan” maiztasunean ehunekorik altuena duten Euskadiko ikasleak ikasgelako jarduera hauekin bat datoz: *Irakasleak egiten dituen galderen bidez ahalegintzen da ikasleek testua hobeto uler dezaten (% 52); irakasleak erantzunak pentsatzeko nahikoa denbora ematen die ikasleei (% 50)*. Jarduera hauen ehunekoak are altuagoak dira ELGAko ikasleen artean.

Hizkuntza-eskolan testu bat irakurtzen denean egiten diren jarduerak duten eragina eta PISA 2009an irakurketako errendimendua erakusten dira hurrengo grafikoa. Euskadiko eta ELGAko datuak ageri dira.

Nahiko maiz gertatzen direnean errendimenduan eragin handiena duten jarduerak lehen aipatutako horiek dira; horrez gain, beste jarduera bat aipatu behar da, *“Irakasleak ikasleei testuaren esanahia azaltzeko eskatzen die”*, kasu horretan ikasleen % 36k soilik dio eskola gehienetan edo guztietan egiten dutela. Hori Euskadin eta ELGAN gertatzen da.

**Gráfico 26 . PISA 2009. Irakurketako errendimendua ikasgelan hizkuntza-irakasleek duten rolaaren arabera**



### 7.3. INBERTSIOA HEZKUNTZAN

Tradizioz, errendimenduari buruzko ikerketek eta ikasketek herrialde baten aberastasunaren eta ikasleen emaitza akademikoen arteko korrelazioa erakusten dute. Biztanle bakoitzeko Barne Produktu Gordina (BPG) da herrialde baten garapena neurtzen duen adierazleetako bat; biztanle kopuruari dagokionez herrialdean gertatzen diren ondasunen eta zerbitzuen multzoa da, hezkuntzara bideratzen den gastua da beste adierazleetako bat.

Hainbat komunitate autonomotan PISA 2009 azterketan irakurketan lortutako puntuazioen zerrenda eta BPG per capita (eurotan, 2008. urteari dagokiona) deskribatzen dira jarraian.

**BPG per capita eta errendimendua irakurketan komunitate autonomoen arabera**

EE.AA	BPG per cápita	Puntuazioa irakurketan
<b>Euskadi</b>	<b>32.133</b>	<b>494</b>
Madril	31.110	503
Nafarroa	30.614	497
Katalunia	28.095	498
Aragoi	26.323	495
Balear uharteak	25.967	457
Errioxa	25.895	498
<b>ELGA</b>	<b>25.100</b>	<b>493</b>
Kantabria	24.508	488
Espainia	24.020	481


<b>Gaztela eta Leon</b>	<b>23.361</b>	503
<b>Asturias</b>	<b>22.559</b>	490
<b>Kanariar uharteak</b>	<b>21.105</b>	448
<b>Galizia</b>	<b>20.619</b>	486
<b>Murtzia</b>	<b>19.692</b>	480
<b>Andaluzia</b>	<b>18.507</b>	461

Iturria: Eurostat. Biztanle bakoitzeko Barne Produktu Gordina 2008. urtea

Taulan ikus daitekeen moduan, Espainiako batez bestekoaren gainetik kokatzen dira 8 komunitatetan; horietatik 7k ELGAko batez bestekoa ere gainditzen dute. Biztanle bakoitzeko BPG nominalari dagokionez, horien buruan kokatzen da Euskadi 2008. urtean.

ELGAko BPGren batez bestekoa gainditzen duten 7 komunitatetatik, Balear Uharteak izan ezik, beste guztiak ELGAko batez bestekoan kokatzen dira irakurketako puntuazioari dagokionez. ELGAko batez besteko erregistroaren azpitik dauden 4 komunitatek ere kokapen berbera dute.

### 27. grafikoa. PISA 2009. Biztanle bakoitzeko BPG eta Irakurketako errendimendua EE.AAen arabera



Euskadi, irakurketako puntuazioari dagokionez, biztanle bakoitzeko Barne Produktu Gordinaren (BPG) arabera legokiokkeenaren azpitik (zertxobait) dago; Espainiako batez bestekoak esperotako puntuazioa lortzen du bere BPGren arabera, eta ELGAkoa zertxobait gainetik kokatzen da. BPG kontuan hartuta, Gaztela eta Leon da puntuazio handiena lortzen duena, eta Balear Uharteak eta Kanariak dira gehien urruntzen direnak, esperotako puntuazioaren azpitik.



8

**ERRENDIMENDU BAXUA  
PISA 2009AN ETA ESKOLA  
UZTEA**



## 8. ERRENDIMENDU BAXUA PISA 2009AN ETA ESKOLA UZTEA

**Europako ia herrialde guztietan, eskola-uzte goiztiarren ehunekoa PISAn errendimendu baxua eskuratu duten ikasle kopurua baino baxuagoa da. Hala eta guztiz ere, Portugalen eta Espainian, aurkakoa gertatzen da: titulaziorik gabe ikasketak uzten dituzten ikasleen ehunekoa PISAn errendimendu baxuko mailak lortzen dituzten ikasleen ehunekoa baino askoz altuagoa da. Euskadi ELGAko Europako herrialdeetako ereduaren baitan sartzen da, titulaziorik gabe ikasketak uzten dituzten ikasleen ehuneko berdina edo baxuagoa erakusten baitu.**

PISA ebaluazioak konpetentzia bakoitzean errendimendu maila desberdinak ezartzeak, maila bakoitzari esleitutako puntuazioekin, herrialdeen eta komunitate autonomoen arteko alderaketa errazten duen neurri objektiboa eskuratzeko aukera ematen du. Atal honen helburua errendimendu baxuko ikasleen herrialde bakoitzeko egoera deskribatu eta aztertzea da

Kasu honetan, irakurketako mailarik baxuenak eskuratzen dituzten ikasleak (I, Ia eta Ib baino maila baxuagoak), printzipioz, ikasketetan arrakasta lortzeko, eta beraz, titulazioa lortzeko zailtasun gehien dituzten ikasleak izango lirateke. Hain zuzen ere, aipatutako maila baxuenetan kokatutako ikasleek ez dute lortzen 407,5 puntu gainditzea. Puntuazio objektibo eta komun honek herrialdeen eta komunitate autonomoen arteko egoera alderatzeko aukera ematen du; gainera, oinarritzko titulazioa eskuratu ez dutelako, eta 18 eta 24 urte artean eskolatu gabe daudelako "eskola uzte goiztiarra" deitzen zaiona ofizialki osatzen duten ikasleen tasekin korrespondentzia ezar daiteke.

Zehazki, hurrengo taulan, Europako herrialdeetan eta komunitate autonomo parte-hartzaileetan gertatzen den eskola-uztearen tasak PISA proban errendimendu mailarik baxuenean kokatzen diren ikasleen ehunekoekin alderatzen dira.

**PISA 2009. Errendimendua Irakurketan. Batez besteko puntuazioa eta ikasleen ehunekoa irakurketako maila baxuetan, herrialdeen arabera.**

HERRIALDEAK	Batez besteko puntuazioa irakurketan	A.T	1a eta 1b maila baxuetan eta 1 baino maila baxuagoan dagoen ikasleen %
Finlandia	536	2,3	8,1%
Herbehereak	508	5,1	14,4%
Alemania	497	2,7	19,3%
Frantzia	496	3,4	19,7%
Erresuma Batua	494	2,3	17,6%
Euskadi	494	2,9	15,2%
ELGA	493	0,5	18,8%
Italia	486	1,6	21%
Espainia	481	2,0	19,5%
Luxenburgo	472	1,3	26,1%

Taulako datuek agerian uzten dute nolabaiteko harremana dagoela errendimenduko mailarik baxuenak gainditzen ez dituen (I mailak eta I baino baxuagoak) ikasleen ehunekoaren eta irakurketan lortutako batez besteko puntuazioaren artean. Oro har, batez besteko puntuazioa zenbat eta altuagoa izan, maila baxuetan kokatutako ikasleen ehunekoa orduan eta baxuagoa izango da.

Hala eta guztiz ere, joera orokor honetan bada salbuespen bat ere. Euskadiko ikasleen % 15,2 errendimendu baxuko mailetan dago; horien puntuazioa Alemania, Frantzia, Erresuma Batua edo ELGAko batez bestekoaren antzekoa da (beren artean ez dago alde nabarmenik); hala eta guztiz ere, herrialde horiek ikasleen ehuneko altuagoak dituzte maila baxuetan.

Komunitate autonomoen kasuan, hurrengo taulak erakusten duen moduan, errendimendu baxuko mailetan kokatutako ikasleen ehunekoa zenbat eta altuagoa izan, PISA n lortzen duten batez besteko puntuazioa orduan eta baxuagoa izango da. Madrilek errendimendu baxuko ikasleen % 13,1 du eta Kantabriak baino puntuazio hobea lortzen du; aipatu beharrekoa da Kantabrian ikasleen % 17,7 dagoela aipatutako maila baxuetan.

Oro har, datuak aztertuz gero, aurreko hipotesia berresten da; horrela, puntuazio onenak dituzten eskualdeek, hau da, Madril, Gaztela-Leon edo Kataluniak dituzte errendimendu baxuko ikasleen ehunekorik baxuenak. Hala eta guztiz ere, zenbait kasutan ez da baieztapen hori guztiz betetzen; Errioxan esate baterako, Kantabriako errendimendu baxuko ikasleen ehuneko berbera izanik, 10 puntu altuagoko puntuazioa lortu dute.

**PISA 2009. Errendimendua Irakurketan. Batez besteko puntuazioa eta ikasleen ehunekoa irakurketako maila baxuetan, komunitate autonomoen arabera.**

EE.AA	Batez besteko puntuazioa Irakurketan	AT	1a eta 1b maila baxuetan eta 1 baino maila baxuagoan dagoen ikasleen %
Madril	503	4,4	13,1%
Gaztela eta Leon	503	4,9	13,2%
Katalunia	498	5,2	13,5%
Errioxa	498	2,4	17,1%
Nafarroa	497	3,1	14,9%
Aragoi	495	4,1	15,2%
Euskadi	494	2,9	15,2%
ELGA	493	0,5	18,8%
Asturias	490	4,8	18,2%
Kantabria	488	4,1	17,9%
Galizia	486	4,4	18,4%
Espainia	481	2,0	19,5%
Murtzia	480	5,1	19%
Andaluzia	461	5,5	26%
Balearr uharteak	457	5,6	27,7%
Kanariar uharteak	448	4,3	33,2%
Ceuta eta Melilla	412	2,5	48%

Jarraian, ehuneko horien eta eskola-uzte goiztiarraren tasen arteko harremana aztertzen da. Bi datuak elkarrekin lotzea da helburua:

- Batetik, PISAtik etorritako informazio objektibo bat. PISAk mailak eta puntuazioak ezartzeko erabiltzen dituen irizpideak berdinak dira herrialde guztietarako; horrek beren artean alderatzeko aukera ematen du. Azterketa honetan, *irakurketako 1 maila eta 1 baino baxuagoa gainditzen ez duen ikasleen ehunekoa* hartzen da erreferentzia gisa. Maila horiek gainditzen ez dituzten ikasleek bigarren hezkuntzan graduatu titulua lortzeko zailtasunak izango lituzketela eta etorkizunean eskola utziko duenetakoak izango liratekeela irizten da.

- Bestalde, herrialde eta komunitate autonomo bakoitzeko *Eskola-uzte goiztiarreko* tasak erabiltzen dira. Datu honek derrigorrezko bigarren hezkuntzan graduatu titulazioa lortzen ez duten eta eskolatu gabeko 18 eta 24 urte arteko biztanleriaren ehunekoari buruzko informazioa eskaintzen du. Kopuru horiek, zeharka, biztanleriak oinarrizko titulazioa lortze aldera hezkuntza-sistemek ezartzen dituzten helburuen eta estrategien berri eman dezakete.

Hala eta guztiz ere, ñabardura bat hartu behar da aintzat: PISAk 15 urte dituzten ikasleen emaitzak neurtzen ditu, derrigorrezko etaparen amaieran, baina hezkuntza-administrazioek oraindik 3 urteko marjina dute (ikasleak 18 urte bete arte egon daitezke hezkuntza-sisteman) oinarrizko titulazioa lortze aldera. Hori dela eta, esan liteke PISAko neurketa zorrotzagoa izango litzatekeela, eta eskola-uztearen ehunekoak *onberagoa* izan beharko lukeela; izan ere, hiru urte horietan, logikaz, 15 urterekin maila baxuan kokatutako ikasleen zati bat behintzat berreskuratu zitekeen. Hau da, PISA ebaluazioan, eskola-uztearen ehunekoak errendimendu baxuko ikasleen ehunekoa baino baxuagoa izan beharko luke.

*Eskola-uzte goiztiarra* Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza osatu ez duten eta inolako hezkuntza-prestakuntzarik egiten ez duen 18 eta 24 urte arteko biztanleen ehuneko gisa adierazten da.

Gai hau beste herrialdeekin alderatzeko, eta erreferentzia gehiago izate aldera, Europako herrialdeen zerrenda zabaldu da, PISA-n parte hartu duten ELGAko beste batzuk txertatuz, jarraian ageri den moduan.

**PISA 2009. Errendimendua Irakurketan. Irakurketan errendimendu baxuko ikasleen ehunekoa eta eskola-uzte goiztiarreko tasak (2009. urtea) herrialdeen arabera**

HERRIALDEAK	PISAko maila baxuetan dagoen ikasleen %. 407,5 puntu	Eskola utzi duten ikasleen % <sup>15</sup>	Bi adierazleen arteko lotura	PISA puntuak dagokion Irakurketako pertzentilean
Finlandia	8,1	9,9	1,22	421
Estonia	13,3	13,9	1,04	412
Herbehereak	14,4	10,9	0,76	397
Polonia	15,0	5,3	0,35	355
Danimarka	15,2	10,6	0,70	388
<b>Euskadi</b>	<b>15,2</b>	<b>16,0%</b>	<b>1,05</b>	<b>414</b>
Suitza	16,9	9,2	0,54	373
Irlanda	17,2	11,3	0,66	384
Suedia	17,5	10,7	0,61	380
Hungaria	17,6	11,2	0,64	380
Portugal	17,6	31,2	1,77	452
Belgika	17,7	14,7	0,83	394
Erresuma Batua	18,5	15,7	0,89	399
Alemania	19,3	11,1	0,58	375
Spainia	19,5	31,2	1,60	445
Frantzia	19,7	12,3	0,62	372
Italia	21	19,2	0,91	401
Grezia	21,3	14,5	0,60	382
Eslovakiar Errepublika	22,3	4,9	0,21	327
Txekiar Errepublika	23,1	5,4	0,23	333
Luxenburgo	26,1	13,4 <sup>(1)</sup>	0,51	356
Austria	27,5	8,7	0,31	327

(1) Dato correspondiente al año 2.008

<sup>15</sup> Iturria: EUROSTAT. 2009. Estatistikak. Hezkuntzako datu-basea. "Early leavers from education and training by sex and employment status"

Taulak adierazle hauek erakusten ditu:

- Lehen eta bigarren zutabeek Irakurketarako PISAk ezarritako errendimendu baxuko mailetan ageri den ikasleen ehunekoa adierazten dute, baita herrialde bakoitzean eskola utzitako ikasleen ehunekoa ere.
- Hirugarren zutabeak, *Bi adierazleen arteko loturak*, herrialde bakoitzean eskola-uztearen ehunekoaren eta maila baxuko ikasleen ehunekoaren arteko lotura adierazten du. Esate baterako, Euskadiren kasuan, PISA maila baxua soilik lortzen duten ikasle bakoitzeko oinarrizko titulaziorik gabe ikasketak uzten dituen 1,05 ikasle dago. Irlandan, berriz, PISA errendimendu baxuko emaitza lortzen duen ikasle bakoitzeko 0,066 ikasle uzten dute eskola. Hori dela eta, eskola-uztearen ehunekoa errendimendu baxuko ikasleen ehunekoa baino baxuagoa da.
- Laugarren zutabeak *Irakurketako pertzentileko PISAko puntuak* adierazten ditu. Herrialde bakoitzeko eskola-uztearen ehunekoari dagokion pertzentilean dauden ikasleek lortzen duten puntuazioa zein den kalkulatu da. Horrela, Euskadin 414 puntuazioa biltzen baldin bada, ikasleen % 16k puntuazio berdina edo baxuagoa izango du. Irlandan, ikasleen % 11k 384 puntuko edo gutxiagoko puntuazioa du.

Datu horiekin, azterketa zehatzagoa egin daiteke.

ELGAko herrialdeen artean (Euskadi barne hartuta) **korrelazio handia (0,682) dago ebaketa-puntuazioaren (uztearen kopuruari dagokion pertzentileko puntuazioa) eta eskola utzi duten ikasleen ehunekoaren artean**. Horrek adieraz lezake eredu komun bat dagoela herrialde horietan ikasleen oinarrizko titulaziorako eskatzen diren eskakizunei dagokienez; baloratzeko eskala partekatatu bat egongo balitz bezala da, eta herrialdeen arteko aldea eskala horren ebaketa-puntuazio egongo litzateke.

Bestalde, bi ehunekoaren (3. zutabea) arteko harremanak aurreko hipotesia indartuko luke: errendimendu baxuko ikasleen ehunekoa eskola-uztearen ehunekoa baino altuagoa da. Lotura lekoa baino txikiagoa den kasu guztietan gertatzen da hori. Ikus daitekeen moduan, 1 baino balio baxuagoa dute herrialde guztiek, Finlandiak, Espainiak, Portugalek eta Euskadik izan ezik. Finlandian, seguruenik, bi ehunekoak oso baxuak direlako.

Euskadiko datua (1,05) letik oso hurbil dago; horrek esan nahi du PISA maila baxuan kokatutako ikasle batzuek oinarrizko titulazioa eskuratzea lortzen dutela eta ikasketak ez dituztela alde aurretik uzten. Hala eta guztiz ere, Portugalek eta Espainiak dituzte baliorik altuenak (1,77 eta 1,60, hurrenez hurren); horrek esan nahi du oinarrizko titulazioa lortzera iritsi gabe sistema uzten duten oso ikasle-ehuneko handia dagoela. Komunitate autonomoetan hau da egoera:

**PISA 2009. Errendimendua Irakurketan. Irakurketan errendimendu baxuko ikasleen ehunekoa eta eskola-uzte goiztiarreko tasak (2009. urtea) komunitate autonomoen arabera**

EE.AA	PISAko maila baxuetan dagoen ikasleen %. 407,5 puntu	Eskola utzi duten ikasleen % <sup>16</sup>	Bi adierazleen arteko lotura	PISA puntuak dagokion Irakurketako pertzentilean
Madril	13,1	26,3	2,01	455
Gaztela eta Leon	13,2	27,0	2,05	460
Katalunia	13,5	31,9	2,36	467
Errioxa	17,1	32,7	1,91	464
Nafarroa	14,9	19,8	1,33	429
Aragoi	15,2	25,1	1,65	443

<sup>16</sup> Iturria: EUROSTAT. 2009. Estatistikak. Hezkuntzako datu-basea.


Euskadi	15,2	16,0	1,05	414
Asturias	18,2	21,1	1,16	421
Kantabria	17,9	23,9	1,34	431
Galizia	18,4	26,0	1,41	435
Spainia	19,5	31,2	1,60	445
Murtzia	19	37,3	1,96	459
Andaluzia	26	37,5	1,44	441
Balearr uharteak	27,7	40,8	1,47	445
Kanariar uharteak	33,2	31,3	0,94	404

Komunitate autonomo guztietako bi adierazleen arteko lotura (3. zutabea), Kanariak izan ezik, I baino altuagoa da; hau da, eskola uzten duten ikasleen ehunekoa errendimendu baxukoaren ehunekoa baino altuagoa da. Esate baterako:

- Kataluniak erakusten ditu alderik nabarmenenak; ikasketak uzten dituzten ikasleen ehunekoa bikoitza baino gehiago da irakurketako I maila gainditzen ez dutenekin alderatuta (errendimendu baxuko ikasleen % 13,5 PISAn eta eskola utzi dutenen % 31,9). Adierazleen arteko lotura 2,36koa da.
- Madril eta Gaztela eta Leon ere I baliotik urruntzen dira (2,01 eta 2,05, hurrenez hurren). Hain zuzen ere, PISAn errendimendu baxuko ikasleen ehunekoa ia erdia da aipatutako komunitateetako eskola-uzte errealean tasekin alderatuta (% 13,1eko errendimendu baxua eta % 26,3ko porrota Madril; errendimendu baxuko % 13,2 eta % 27ko porrota Gaztela eta Leonen).
- Bestalde, komunitate batzuek oso ehuneko antzekoak dituzte bi adierazleen artean. Horien artean, Asturias eta Euskadi (1,05eko balioarekin) lehen aztertutako Europako herrialdeen parametroetara hurbiltzen dira.

ELGAko kideak diren herrialdeetan eta komunitate autonomoetan balio hauekin osatzen diren puntuen lerroak ageri dira hurrengo grafikoetan. Horietan, aldeak argi ikusten dira.

**28. grafikoa. PISA 2009. Irakurketan errendimendu baxuko ikasleen ahunekoa eta eskola-uzte goiztiarreko tasak herrialdeen arabera**




**Europako herrialdeetan argi ikusten da errendimendu baxuko ikasleen balioak eskola-uztaren balioak baino altuagoak direla beti;** hau da, PISAn errendimendu baxua lortutako ikasle askok titulazioa eskura dezaten lortzen dute herrialde gehienek. Espainia eta Portugaleko kasua salbuespena da; izan ere, aipatutako herrialde horietan, eskola-uztearen ehunekoa PISAn errendimendu baxua lortu duten ikasleen ehunekoaren oso gaineretik dago.

Nazioarteko testuinguru honetan, **Euskadiren egoera Estonia eta Finlandiakoaren antzekoa da, bi ehunekoetan bat etorritz; herrialde horietan, titulazioa lortzeko eskakizunak oso orekatutzat har daitezke, eta hori dela eta, PISAk errendimendu baxuko ikasletzat hartzen ditu.** Italia, Herbehereak, Erresuma Batua eta Belgikako egoerak ere Euskadikoaren oso antzekoak dira.

Herrialde hauetako hezkuntza-sistemek PISAn errendimendu baxuko 15 urteko ikasleek 18 urte bete arte ikasten jarrai dezaten eta oinarrizko titulazioa lor dezaten zehazten dituzten estrategiak eta helburuak aintzat hartzeari buruzko gogoeta egin beharko litzateke.

Komunitate autonomoei buruzko 29. grafikoan egoera kontrakoa da: **Komunitate autonomo gehienetan, ikasketak titulaziorik gabe uzten dituzten ikasleen ehunekoa errendimendu baxuko ikasleen ehunekoaren gaineretik dago.** Euskadiko eta Asturiaseko kasua da joera orokor horren salbuespena; izan ere, aipatutako komunitateetan, bi ehunekoak ia-ia berdinak dira. Kanarien kasua ere salbuespena da; agian, errendimendu baxuko ikasleen ehuneko altua duelako, % 31, hain zuzen.


**29. grafikoa. PISA 2009. Irakurketan errendimendu baxuko ikasleen ahuneko eta eskola-uzte goiztiarreko tasak komunitate autonomoen arabera**



30. grafikoan ELGAko eta PISAn parte hartu duten komunitate autonomoko herrialde guztietan gertatzen den egoera erakusten da modu bateratuan, balioak eskola-uztearen ehuneko txikiagoaren edo handiagoaren arabera ordenatuta.




**30. grafikoa. Irakurketan errendimendu baxuko ikasleen ehuneko eta eskola-uzte goiztiarreko tasak herrialdeen eta komunitate autonomoen arabera.**



Hurrengo grafikoan, herrialde bakoitzean eta komunitate autonomo bakoitzean errendimendu baxuko ikasleen ehunekoaren eta eskola-uztearen ehunekoaren arteko lotura erakusten da.

**31. grafikoa. PISA 2009. eskola-uzte ehunekoaren ata maila baxuan dagoen ikasleen ehunekoaren arteko lotura.**



Ardatz bertikalak bi datuen arteko lotura (uztea eta errendimendu baxua) adierazten du; ardatz horizontalean herrialdeak eta komunitate autonomoak adierazten dira. Lerro berdeak lotura honi dagokion

I balioaren muga adierazten du. Lerroaren gainetik kokatutako Europako herrialdeak (barra urdinak) edo komunitateek (barra laranja) I balioa baino altuagoko eskola-uztearen ehunekoa dute, oinarrizko titulazioa lortu gabe; hau da, PISAren errendimendu baxuko ikasleen ehunekoa baino altuagoa. Barra zenbat eta altuago izan, eskola utzi duten ikasleen ehunekoa orduan eta handiagoa da.

PISA ebaluazioa 15 urteko ikasleei egiten zaie, eta 15 eta 18 urte bitartean (hezkuntza-sisteman 18 urte arte egon daiteke; komunitate autonomoetan behintzat hala da), aipatutako herrialdeek edo komunitate autonomoek ez dute lortu ikasleek zailtasunak gaindi ditzaten; aitzitik, zenbait kasutan, oinarrizko titulaziorik gabe ikasketak utzi dituzten ikasleen ehunekoa nabarmen igo da (hori da Espainia, Portugal eta hainbat komunitate autonomoren kasua: Katalunia, Madril, Murtzia eta abar).

Lerro horren azpitik kokatzen diren herrialdeek PISAren errendimendu baxuko ikasleek baino eskola-uzte ehuneko baxuagoa dute; hezkuntza-sistemek errendimendu baxuko ikasleek beren ikasketak jarrai ditzaten eta oinarrizko titulazio bat eskura dezaten helburuak eta estrategiak zehaztu izanaren adierazlea da.


Alde nabariak daude: Europako ia herrialde guztiak lerroaren azpitik kokatzen dira, eta oso eskola-uzte ehuneko baxuak adierazten dituzte, PISAko maila baxuetan ikasleen ehunekoak baino baxuagoak, betiere. Bestalde, Portugal eta Espainia lerroaren oso gainetik daude; horrek esan nahi du ikasketak titulaziorik gabe uzten dituzten ikasleen ehunekoa oso altua dela PISAk errendimendu baxu moduan zehazten duenarekin alderatuta. Finlandiako egoeran ehuneko baxuak dira nabarmenak, bai eskola-uztearen ehunekoan, bai errendimendu baxuko ikasleen ehunekoan, % 9,9 eta % 8,3, hurrenez hurren.

Herrialde bakoitzaren eta komunitate autonomo bakoitzaren egoera ere erakusten da; horretarako, eratzten den erregresio-zuzena erabiltzen da eta bi datu hauek hartzen dira kontuan: titulaziorik gabe ikasketak uzten dituzten ikasleen ehunekoa eta pertzentilari dagokion PISAko puntuazioa.


Grafikoek datu hauek erakusten dituzte:

- erregresio-zuzena lerro gorriaren bidez.
- I baino maila txikiagoak eta I maila 2 mailatik bereizteko, PISAk 407,5 puntutan ezartzen duen ebaketa-puntua, marra urdinezko lerroaren bidez.
- ardatz horizontalak herrialde edo komunitate bakoitzean eskola utzi duten ikasleen ehunekoak adierazten ditu.
- ardatz bertikalak herrialde bakoitzean eskola utzi duten ikasle horiek Irakurketako PISA proban lortu beharko luketen puntuazioa adierazten du.

**32. grafikoa. PISA 2009. Eskola utzi duten ikasleen ehunekoa eta Irakurketan perzentil horri dagokion PISA puntuazioa, herrialdeen arabera**



**33. grafikoa. PISA 2009. Eskola utzi duten ikasleen ehunekoa eta Irakurketan perzentil horri dagokion PISA puntuazioa, komunitate autonomoen arabera**



Grafikoetako datuek hau erakusten dute:

- Komunitate autonomoei dagokien erregresio-zuzena Europako herrialdeena baino askoz ere lauagoa da; horrek esan nahi du puntuazioen eta hezkuntza utzi duten ikasleen arteko korrelazioa baxuagoa dela.
- Hain zuzen ere, Europako herrialdeen kasuan, korrelazioa altua da (0,682), eta komunitate autonomoei dagokiena oso baxua da: 0,13 (Pearson korrelazioa).
- Eskola utzi duten ikasleen perzentilari dagozkien komunitate autonomoetako puntuazioak aztertutako Europako herrialdeetan behar direnak baino zertxobait altuagoak dira. Madrilgo

komunitatean, esate baterako, ikasleen % 26,3k uzten du; ehuneko hori 455 punturen baliokidea da; Alemanian berriz, ikasleen % 11,2k uzten ditu ikasketak, eta ebaluazio bereborean 375 puntu izan beharko lituzke.

Irakurketako 1 mailatik 2 mailara pasatzeko PISAk ezartzen duen ebaketa-puntua aztertuz, honakoa nabarmen daiteke:

- Ikasketak uzten dituzten Euskadiko ikasleen % 16k 414 puntu behar ditu; puntuazio horrek PISAko irakurketako 2 mailan kokatzen du eta Finlandiakoaren oso antzekoa da.
- Azertu diren Europako herrialde guztien artean, Espainiak eta Portugalek puntuazio horiek gainditzen dituzte, bai eskola-uzte goiztiarreko ikasleen ehunekoari dagokionez, bai pertzentil horri dagozkion puntuazioei dagokienez (eskola-uztearen % 31,2, eta 445 puntu PISA proban).

Behaketa horiek egin ostean, ondoriozta dezakegu ELGAko herrialdeetan, oro har, *koherentzia* handiagoa dagoela PISAko puntuazio objektiboaren eta ikasketak titulaziorik gabe uzten dituzten ikasleen ehunekoaren artean. Komunitate autonomoetan koherentzia hori ez da hain argia. Argi dago eskola-uztearen tasen inguruan eta PISAk eskaintzen duenaren moduko neurri objektibo batekin duten lotura eskasaren inguruan gogoeta egin beharra dagoela<sup>17</sup>.

Euskadiri dagokionez, esan genezake bertako joera ELGAko Europako herrialdeetan gertatzen den ereduarekin bat datorrela; izan ere, ikasketak titulaziorik gabe uzten dituzten ikasleen ehuneko baxuagoa du. Hala eta guztiz ere, ahalegina egin beharko litzateke Euskadiko eskola-uztearen ehuneko murrizteko eta errendimendu baxuko ikasle askok ikasten jarrai dezaten eta oinarrizko titulazioa eskura dezaten lortzen duten Europako herrialde gehien artean kokatzeko.

<sup>17</sup> Gai honetaz hausnarketa bat egin du J. CARABAÑAK artikuluan honetan: “*Tres medidas de eficacia segura contra el fracaso escolar*”. Participación educativa aldizkaria, 15. zk.. 2010eko azaroa. 142. orr. Estatuko Eskola Kontseilua.

# ERANSKINAK



## I. Eranskina

# Euskadiko 15 urteko ikasleen irakurketa-ohiturak






## I. ERANSKINA: Euskadiko 15 urteko ikasleen irakurketa-ohiturak

Atal honetan, modu grafikoan eta laburtuta ageri da aztertutako indize bakoitzak emaitzetan duen eragina. Euskadiko 15 urteko ikasleen irakurketa-jarreraren eta -ohituren profila edo argazkia erakustea da helburua, irakurketan erabiltzen dituzten jarrerak eta estrategiek emaitzetan duten eraginaren azterketatik abiatuta.

Zehazki, lehen deskribatutako indize bakoitzaren balioa puntu bat aldatzen denean irakurketako batez besteko puntuazioan ikus daitekeen aldakuntza handiagoa edo txikiagoa erakusten da. Era berean, Euskadiko ikasleen eta ELGAkoen eta PISA ebaluazioan parte hartu duten zenbait herrialderen emaitzen alderaketa egiten da. Gainera, mutilen eta nesken arteko aldean laburpena ere egin da.

Irakurketarako motibazio orokorrari dagokionez, herrialde gehienek balio negatiboak dituzten indize hauetan. Finlandia salbuespenetako bat da; izan ere, bertako ikasleek *Irakurketako material aniztasuna* indizean balio altua erakusten dute, baita horrekiko *Interesean eta zaletasunean* ere.


**34. grafikoa. PISA 2009. Irakurketarako motibazioen indizeen batez besteko balioa herrialdeen arabera eta irakurketa-errendimendua**



Euskadik balio negatiboak ditu adierazitako hiru indizeetan, eta ELGAkoak baino nabarmen baxuagoak dira. *Irakurketa digitaleko* jarduerari dagokiena da baliorik baxuena.

35. grafikoa erakusten du indizearen balioa unitate batean aldatzen denean herrialde bakoitzak irakurketako puntuazioan izaten duen aldakuntza. Aurrekoaren moduan, irakurketan lortutako batez besteko puntuazioa handienetik txikienera dago ordenatuta.

**35. grafikoa. PISA 2009. Irakurketako puntuazio-aldakuntza  
Irakurketarako motibazioko indizeen unitate bakoitzeko, herrialdeen arabera**



Herrialde bakoitzean aipatutako indizeen eragina zertxobait aldatzen den arren, bistakoa da beren artean konstante jakin batzuk gertatzen direla:

- *Irakurketarekiko interesa eta zaletasuna* indizea da emaitzetan eragin gehien duen indizea. Aztertutako herrialde guztietan, indizean puntu bateko aldakuntza izateak emaitzan gutxi gorabehera 36 puntuko aldea eragiten du. Frantzian 47 puntura, Erresuma Batuan 45 puntura eta Finlandian 43 puntura iristen da Euskadin, aldakuntza 40,3 puntukoa da, Italiakoaren edo ELGAkoaren oso antzekoa (39,5).
- Herrialde guztietan, emaitzan eragin txikiena duen indizea *Irakurketa digitaleko* jarduerak egiteari dagokiona da. Irakurketako puntuazioak 8 eta 15 puntu arteko aldakuntza izan du; hala ere, Frantzian (28,5 puntu), Herbehereetan (19,2 puntu) eta Erresuma Batuan (16,1 puntu) duen eragina nabarmendu behar da. Euskadin, puntuazioa 12,5 puntu aldatzen da.
- *Irakurketako materialen aniztasuna* indizeak erdi mailako eragina du herrialde guztietan; hala ere, nahiko balio altuak nabari dira esate baterako Finlandian, Frantzian edo Italian, eta 30 puntu edo gehiagoko aldea dago. Beste batzuk baxuagoak dira, Erresuma Batuari (19,2) edo Euskadiri dagozkionak, esate baterako; horietan, indizearen aldakuntzak 20,2 puntutan aldatzen ditu emaitzak.


Euskadin, estrategia metakognitiboen gaineko indizeen balioa negatiboa da (36. grafikoa); hau da, testu bat ulertu eta gogoratu, eta irakurritako testuari buruzko laburpena egiteko estrategia egokiei buruzko kontzientzia maila baxua dago. Hala eta guztiz ere, batez besteko puntuazioak ez du estatistika-adierazgarritasunik Alemania edo Frantzia moduko herrialdeenarekin alderatuta; izan ere, horietan, indizeak positiboak eta askoz ere altuagoak dira.

Estrategia metakognitiboen artean, *ulertzeko eta gogoratzeko* egokiena den horretaz gehiago jabetzen dira. Euskadin estrategia hori erabiltzeak eragiten duen puntuazio-aldea 26,5 puntukoa da (37. grafikoa); hau da, estrategia hori maiz erabiltzen duten ikasleen puntuazioak gora egiten du, aipatutako estrategia erabiltzen ez

duten edo gutxitan erabiltzen duten ikasleekin alderatuta. ELGAN, igoeraren batez bestekoa 35,4koa da. Puntuazioan gertatzen den aldaketa baxuagoa da herrialde guztietan.


Laburtze-estrategiaren indizearen balioa baxuagoa da. Erresuma Batuekin batera, puntuazioan izandako aldaketa handiagoa da Euskadin aukeratutako herrialde guztietan baino. Euskadin, strategiak aitortzen direnean, ikasleen puntuazioak 36,4 egin du gora eta ELGAN 41,9 puntu.

**36. grafikoa. PISA 2009. Estrategia metakognitiboaren indizeen batez besteko balioa herrialdeen arabera eta irakurketa-errendimendua**



37. grafikoa, irakurketako puntuazioan izandako aldakuntza ikus daiteke, PISA 2009k aztertutako bi estrategia metakognitiboetan indizearen balioa aldatzen duen unitate bakoitzaren arabera. Grafikoa irakurketa-kompetentzian lortutako batez besteko puntuazioekin bat etorri dago ordenatuta, errendimendu handienekotik txikienera.

**37. grafikoa. PISA 2009. Unitate bakoitzeko irakurketako puntuazio-aldakuntza estrategia metakognitibo bakoitzean herrialdeen arabera**




Herrialde bakoitzean puntuazioaren aldakuntza desberdina den arren, ikasleak *testua laburtzeko estrategia* egokiak aitortu eta erabiltzen dituenean puntuazioetan eragin handiagoa dagoela ikusten da.

*Estrategia mnemotekniko* deitutakoen artean, Euskadiko ikasleek irakurtzeko garaian gehien erabiltzen dutena memorizazioa da; hala eta guztiz ere, aipatutako estrategia erabiltzeak puntuazioan eragiten duen aldea 7,7 puntukoa da; ELGAko batez bestekoa -0,9 puntukoa da, eta Finlandian eta Herbehereetan, berriz, 2,9 puntukoa. Hau da, estrategia hau erabiltzeak ez du eragin handirik Euskadiko puntuazioan.

Ikasleen puntuazioan *prestatze-estrategia* erabiltzearen eragina *memorizazio-estrategia* erabiltzeak duen eraginaren antzekoa da (7,9 puntu).


Erabiltzen duten eta maiz erabiltzen ez duten ikasleen puntuazioan eragiten duen aldakuntza aintzat hartuta Euskadin eragin handiena duen estrategia mnemoteknikoa kontrol-estrategia da, unitateko 29,2 punturekin. ELGAren batez bestekoa 26,1 puntukoa da. Finlandian, aldakuntza 25,6 puntukoa da.

38. grafikoa. PISA 2009. *Estrategia mnemoteknikoen indizeen batez besteko balioa herrialdeen arabera eta irakurketa-errendimendua*




39. grafikoa, irakurketako puntuazioan izandako aldakuntza ikus daiteke, PISA 2009k aztertutako hiru estrategia mnemoteknikoetan indizearen balioa aldatzen duen unitate bakoitzaren arabera. Grafikoa irakurketa-konpetentzian lortutako batez besteko puntuazioekin bat etorritz dago ordenatuta, errendimendu handienekotik txikienera.

**39. grafikoa. PISA 2009. Unitate bakoitzeko irakurketako puntuazio-aldakuntza estrategia mnemotekniko bakoitzean**



Laburpen moduan, 40. grafikoa, indize guztiek ikaskuntza-faktoreen eta estrategien gainean duten eragina ageri da; dagokion indizea puntu bat aldatzen denean puntuazioak jasaten duen aldakuntza erakusten du.

**40. grafikoa. PISA 2009. Indizeek Euskadiko eta ELGAko irakurketa-emaizetan duten eragina**



“Irakurketarekiko interesa eta zaletasuna” indizeak eta “testu bat laburtzeko, ulertzeko eta gogoratzeko” moduaren inguruko estrategia metakognitiboen indizeek dute eraginik handiena Euskadiko puntuazioan. Lehenengoak, indizeak gora edo behera egiten duen puntu bakoitzeko, 40,3 puntuko aldakuntza eragiten du. Testu bat laburtzeko estrategia egokiak erabiltzearen edo ez erabiltzearen kasuan, puntuazioa 36,4 puntu aldatzen da indizea aldatzen den puntu bakoitzeko, eta 26,5 puntu, ulertzeko eta gogoratzeko estrategien kasuan. Puntuazioak aldatzen diren arren, egoera hori bera gertatzen da ELGAko batez bestekoan ere. Kontrol-estrategiak erabiltzeak Euskadin puntuazioan 29,2 puntuko aldea eragiten du.

## Estrategia mnemoteknikoak erabiltzearen bilakaera. PISA 2003-PISA 2009

2003. urteko PISAren edizioan azterketa alor nagusia Matematika-konpententzia izan zen arren, ikaskuntza-estrategien erabilerari buruzko galderak Irakurketa-konpententzian oinarritutako PISA 2009 edizio honen antzekoak dira.

Estrategia bakoitzean indizeen batez besteko balioen eta indizeko aldakuntza-unitate bakoitzaren arabera puntuazioan izandako aldaketaren arteko alderaketa ezar daiteke taulan; hau da, ebaluazioaren bi edizioetan, kasu bakoitzean estrategia egokiak erabiltzeak edo ez erabiltzeak zenbateko eragina duen ikasleen puntuazioan.

### Memorizazio-estrategiak. PISA 2003 – PISA 2009

	Indizearen balioa	Indizeko unitate-aldakuntza bakoitzaren arabera aldaketa puntuazioan
PISA 2003	0,01	8,3
PISA 2009	0,14	7,7

PISA 2009ko edizioan *memorizazio*-estrategiak erabiltzeak puntuazioan duen eragina PISA 2003an izan zuena baino zertxobait baxuagoa da.

### Prestatze-estrategiak PISA 2003 – PISA 2009

	Indizearen balioa	Indizeko unitate-aldakuntza bakoitzaren arabera aldaketa puntuazioan
PISA 2003	-0,03	12,9
PISA 2009	-0,18	7,9


PISA 2009an, *prestatze*-estrategien erabilerak puntuazioan duen eragina txikiagoa da, PISA 2003an baino 4 puntu gutxiagokoa. Indizearen batez besteko balioa baxuagoa da.

### Kontrol-estrategiak. PISA 2003 – PISA 2009

	Indizearen balioa	Indizeko unitate-aldakuntza bakoitzaren arabera aldaketa puntuazioan
PISA 2003	-0,06	17,8
PISA 2009	-0,04	29,2

PISA 2009an, *kontrol*-estrategien erabilerak puntuazioan duen eragina PISA 2003an baino 11 puntu altuagoa da. 2009ko edizioan, indize honen batez besteko balioa zertxobait altuagoa da.

**41 . grafikoa. PISA 2003 PISA 2009 bilakaera. Estrategía mnemoteknikoen erabileraren araberako puntuazio-aldaketa**







## **2. ERANSKINA**

**Indizeetan balio baxua duten  
ikasleen banaketa  
irakurketako errendimendu  
mailen arabera**



## 2. ERANSKINA: Indizeetan balio baxua duten ikasleen banaketa irakurtzetako errendimendu mailen arabera

Euskadiko datuak eduki ez arren interesgarria da PISAk zehaztu dituen irakurketa-errendimenduko mailetan aztertutako indize bakoitzean oso puntuazio baxua lortu duten ikasleak nola banatzen diren aztertzea.

Azterketa egin ahal izateko, herrialdeen arabera PISA 2009ko errendimendu maila bakoitzean, txostenean aztertutako faktoreei eta estrategiei dagozkien irakurketarekiko motibazio, kontzientzia eta estrategien erabilera maila baxua duten ikasleen ehunekoak ageri diren taula ikus dezakegu jarraian.

- ✓ **Irakurketarekiko interesa eta zaletasunarekin** lotuta, herrialde guztietan, maila baxuenetan (I baino baxuago eta I), indize honetan oso puntuazio baxua eskuratzen duten ikasleen ehunekoa irakurtzeko interes maila altua erakusten dutenena baino askoz altuagoa da (ELGAN, % 73ren errendimendua maila baxuenekoa da, eta ikasleen %14k soilik lortzen du errendimendu mailarik altuena). Hau da, irakurketarekiko interes maila altua duten ikasleek errendimenduko maila altuetan kokatzeko joera dute, eta oso interes maila baxua erakusten dutenek oso errendimendu baxua dute irakurketan.

**PISA 2009. "Irakurketarekiko interes eta zaletasun" maila baxua duten ikasleen banaketa errendimendu mailetan. Ehunekoak**

	1 maila eta 1 maila baino baxuagoa	2. maila	3. maila	4. maila	5 maila edo altuagoa
Finlandia	81,9	71,5	51,9	27,3	12,8
Alemania	78,0	63,8	46,6	25,9	13,6
Erresuma Batua	76,0	62,8	44,8	24,8	12,5
Espainia	74,1	61,9	42,6	23,5	12,7
<b>ELGA</b>	<b>73,1</b>	<b>62,2</b>	<b>45,4</b>	<b>26,6</b>	<b>14,8</b>
Frantzia	71,8	61,0	43,6	25,1	14,3
Herbehereak	70,8	63,4	47,7	30,1	15,2
Luxenburgoko	70,2	58,2	40,8	24,8	11,8
Italia	68,5	56,8	40,1	23,4	12,6

- ✓ Hurrengo taulan ageri da herrialde guztietan, **material aniztasun** gutxi irakurtzen dutenak mailarik baxuenetan bildu ohi direla (I baino gutxiago eta I). Eskalan aurrera egin ahala eta errendimendua handiago den heinean, ehuneko hori murriztu egiten da. Horrela, Finlandian, alderik handiena dagoen herrialdean, oso material aukera txikia irakurtzen duten ikasleen % 74,6k maila baxuko errendimendua lortzen du eta % 12,8 soilik iristen da maila altuetara.

**PISA 2009. "Irakurketako material aniztasun" gutxi erabiltzen duten ikasleen banaketa errendimendu mailetan. Ehunekoak**

	1 maila eta 1 maila baino baxuagoa	2. maila	3. maila	4. maila	5 maila edo altuagoa
Finlandia	74,6	71,5	51,9	27,3	12,8
Frantzia	71,8	63,9	52,5	40,1	24,4
Herbehereak	68,7	57,7	43,4	29,1	18,0
Alemania	62,4	55,8	47,0	39,4	31,1
<b>ELGA</b>	<b>61,4</b>	<b>52,9</b>	<b>45,7</b>	<b>37,6</b>	<b>28,7</b>
Espainia	60,7	49,8	40,0	28,4	17,6
Luxenburgoko	59,2	48,2	42,8	36,0	24,5
Erresuma Batua	58,4	51,2	43,5	36,5	30,0
Italia	57,8	46,2	40,1	30,8	22,6

- ✓ **Irakurketa digitaleko jardueren** indizean oso puntuazio baxua lortzen duten ikasleak aztertzen dira, baita irakurlearen errendimendu maila desberdinetan nola banatzen den ere. Aztertutako beste indizeetan gertatzen ez den bezala, mailarik baxuenetan kokatzen diren ikasleen (I baino baxuago eta I) eta errendimendurik onenekoen artean kokatzen direnen artean ez dago hainbesteko alderik. Frantzia eta Espainia izan ezik (eskalan aurrera egin ahala ehunekoak behera egiten du, % 23 inguruko aldeak lortuz), aztertutako gainerako herrialdeetan, irakurketa digitalean indize baxua duten ikasleak, gainerako mailetan, modu orekatuagoan daude banatuta.

Azterketa honetatik ondoriozta daiteke irakurketa digitaleko jarduerak egiteak ez duela garrantzi handirik; izan ere, herrialde guztietan irakurketa digitaleko jarduera gutxi egiten dituzten ikasleen ehunekoa antzekoa da errendimendu maila guztietan.

**PISA 2009. "Irakurketa digitaleko jarduerak" gutxi egiten dituzten ikasleen banaketa errendimendu mailetan. Ehunekoak**

	1 maila eta 1 maila baino baxuagoa	2. maila	3. maila	4. maila	5 maila edo altuagoa
<b>Herbehereak</b>	65,3	62,7	55,8	50,6	46,7
<b>Erresuma Batua</b>	64,3	58,4	54,1	50,4	44,5
<b>Finlandia</b>	63,5	58,8	55,1	53,1	47,3
<b>Frantzia</b>	62,0	48,3	42,3	39,1	36,5
<b>ELGA</b>	61,7	54,0	48,8	45,5	44,2
<b>Italia</b>	60,8	50,7	46,9	44,3	44,7
<b>Espainia</b>	59,5	49,6	44,9	43,4	35,7
<b>Alemania</b>	59,0	54,9	49,2	47,8	44,4
<b>Luxenburgo</b>	54,0	49,0	45,9	48,5	49,8

- ✓ Jarraian, alderaketa egiteko aukeratutako ELGAko herrialdeen artean, irakurketan errendimendu maila bakoitzeko ikasleetatik, testu bat **ulertu eta gogoratzeko** estrategia egokiak erabiltzearen garrantziari buruz jabetze maila baxua dutenak biltzen dira.

Mailarik baxuenean (I edo I baino baxuago) dauden ikasleen artetik, ikasleen ehuneko altu batek, % 61 eta % 81 artean, testu bat ulertu eta gogoratzeko estrategia egokien inguruko jabetze maila baxua erakusten du. 5 mailan edo maila altuagoan, aukeratutako herrialdeetan estrategia egokiak identifikatzen ez dituen ikasleen ehunekoa dago, % 22 baino baxuagoa.

**PISA 2009. Irakurketa-errendimenduko maila bakoitzean, ulertzeko eta gogoratzeko estrategia egokiei buruzko jabetze maila baxuko ikasleen ehunekoa**

	1 maila eta 1 maila baino baxuagoa	2. maila	3. maila	4. maila	5 maila edo altuagoa
<b>Finlandia</b>	81,5 (2,2)	69,1 (2,1)	52,1 (1,7)	33,9 (1,9)	22,4 (2,2)
<b>Herbehereak</b>	72,8 (2,4)	62,7 (2,0)	44,8 (1,8)	26,4 (1,9)	14,5 (2,0)
<b>Luxenburgo</b>	72,1 (1,4)	55,9 (1,7)	39,8 (1,9)	26,5 (1,7)	17,3 (2,8)
<b>Erresuma Batua</b>	70,8 (2,1)	56,4 (1,8)	43,4 (1,7)	32,1 (2,0)	21,9 (2,9)
<b>ELGA</b>	70,8 (0,3)	56,1 (0,3)	41,4 (0,3)	28,4 (0,3)	20,1 (0,5)
<b>Alemania</b>	70,5 (2,1)	49,5 (1,7)	32,1 (1,6)	17,6 (1,5)	10,9 (1,5)
<b>Frantzia</b>	69,7 (1,8)	51,5 (1,8)	36,9 (1,8)	28,4 (1,7)	18,2 (2,3)
<b>Espainia</b>	64,3 (1,5)	49,7 (1,3)	37 (1,2)	27,9 (1,3)	22,0 (3,6)
<b>Italia</b>	60,9 (1,8)	44,0 (1,0)	30,6 (1,0)	20,8 (0,8)	14,5 (1,2)

- ✓ **Laburtzeko estrategia** egokiei dagokienez, mailarik baxuenetan (-I eta I baino maila baxuagoa) dagoen ikasleen artean, ikasleen ehuneko altu bat, % 65 eta % 81 artean, ez da jabetzen testu bat ulertu eta gogoratzeko estrategia egokiak zein diren. Errendimendu mailarik altuenetan kokatzen diren ikasleen artean, estrategiak ezagutzen ez dituztenen ehunekoa % 19ko maximora murrizten da Frantzia.

**PISA 2009. Irakurketa. Irakurketa-errendimenduko maila bakoitzean, laburtze-estrategia egokiei buruzko jabetze maila baxuko ikasleen ehunekoa**

	1 maila eta 1 maila baino baxuagoa	2. maila	3. maila	4. maila	5 maila edo altuagoa
Alemania	81,3 (2,1)	64,5 (2,1)	41,8 (1,8)	24,8 (1,4)	15,0 (2,1)
Frantzia	78,37 (2,0)	57,2 (2,4)	36,9 (1,8)	27,3 (1,8)	18,9 (2,3)
Herbehereak	75,8 (2,5)	67,6 (2,1)	44,7 (1,9)	22,9 (1,5)	9,2 (1,7)
Finlandia	75,5 (2,6)	62,0 (2,0)	40,5 (1,6)	21,4 (1,6)	10,7 (1,7)
<b>ELGA</b>	<b>74,0 (0,3)</b>	<b>56,8 (0,3)</b>	<b>37,7 (0,3)</b>	<b>22,9 (0,3)</b>	<b>13,4 (0,4)</b>
Erresuma Batua	70,1 (1,8)	55,2 (1,7)	37,1 (1,5)	23,1 (1,5)	14,4 (2,3)
Italia	70,0 (1,1)	51,5 (1,0)	33,9 (1,0)	22,5 (0,8)	15,4 (1,4)
Luxenburgo	69,9 (1,8)	49,7 (2,0)	30,3 (1,5)	21,1 (2,0)	11,8 (2,8)
Espainia	65,0 (1,4)	45,8 (1,7)	27,6 (1,0)	18,5 (1,0)	10,9 (1,9)

- ✓ Irakurketako errendimendu maila bakoitzean kokatzen den eta memorizazio-estrategiak gutxi edo batere erabiltzen ez dituzten ikasleen banaketatik ondorioztatzen da aukeratutako herrialde gehienetan ehunekoa antzekoa dela. Ikasten ari direnean **memorizazio**-estrategiak maila baxuan erabiltzeak ez dirudi garrantzi handirik duenik.

**PISA 2009. Irakurketa-errendimenduko maila bakoitzean, ikasten ari direnean memorizazio-estrategiak maila baxuan erabiltzen dituztenen ehunekoa**

	1 maila eta 1 maila baino baxuagoa	2. maila	3. maila	4. maila	5 maila edo altuagoa
Luxenburgo	57,5 (1,4)	46,8 (1,9)	46,9 (1,8)	48,4 (1,9)	50,8 (4,0)
Frantzia	56,5 (2,3)	50,1 (2,3)	48,2 (1,9)	49,4 (2,1)	50,4 (2,8)
Espainia	52,7 (1,8)	42,5 (1,4)	42,4 (1,2)	49,1 (1,4)	57,7 (3,1)
Alemania	52,0 (1,9)	46,7 (1,8)	47,8 (2,2)	56,4 (2,2)	60,9 (3,5)
<b>ELGA</b>	<b>50,6 (0,4)</b>	<b>45,8 (0,3)</b>	<b>47,1 (0,3)</b>	<b>51,79 (0,3)</b>	<b>55,8 (0,6)</b>
Finlandia	49,3 (2,8)	43,3 (2,2)	39,9 (1,6)	41,4 (1,7)	45,8 (2,4)
Erresuma Batua	48,0 (1,6)	40,9 (1,5)	43,2 (1,4)	45,4 (1,4)	48,2 (2,7)
Italia	46,5 (1,1)	46,4 (1,1)	53,3 (1,0)	60,9 (0,9)	68,5 (1,5)
Herbehereak	31,7 (2,5)	32,5 (1,9)	39,3 (2,0)	53,2 (2,1)	63,9 (2,4)

- ✓ Irakurketako errendimendu mailen arabera ikasleen banaketatik ondorioztatzen da errendimenduko edozein mailatan kokatzen diren ikasleen artean, antzeko ehuneko batek ez dituela erabiltzen edo oso gutxi erabiltzen dituela **prestatze**-estrategiak. Erabilerak ez du garrantzi handirik; izan ere, errendimenduko maila guztietan horiek gutxi erabiltzen dituen ikasleen ehunekoa antzekoa da herrialde guztietan.

**PISA 2009. Irakurketa-errendimenduko maila bakoitzean, ikasten ari direnean *prestatze-estrategiak* maila baxuan erabiltzen dituztenen ehunekoa**

	1 maila eta 1 maila baino baxuagoa	2. maila	3. maila	4. maila	5 maila edo altuagoa
Luxenburgo	40,5 (1,8)	43,0 (2,1)	43,5 (1,5)	43,7 (1,8)	40,3 (3,5)
Frantzia	52,5 (2,4)	50,7 (2,2)	50,7 (1,8)	46,5 (1,8)	46,9 (2,8)
Espainia	49,6 (1,5)	48,7 (1,3)	45,3 (1,2)	41,1 (1,5)	31,9 (2,7)
Alemania	52,5 (2,1)	53,4 (1,7)	52,6 (1,7)	53,3 (1,8)	46,8 (3,1)
<b>ELGA</b>	<b>52,0 (0,4)</b>	<b>55,4 (2,3)</b>	<b>51,3 (1,4)</b>	<b>48,1 (1,7)</b>	<b>36,2 (2,0)</b>
Finlandia	55,5 (3,4)	43,3 (2,2)	39,9 (1,6)	41,4 (1,7)	45,8 (2,4)
Erresuma Batua	46,0 (1,8)	44,8 (1,8)	44,8 (1,6)	42,0 (2,5)	38,8 (2,7)
Italia	44,3 (1,0)	46,5 (0,9)	47,0 (0,9)	42,9 (1,1)	34,7 (1,8)
Herbehereak	50,6 (2,8)	53,8 (2,2)	55,2 (1,6)	53,1 (1,9)	43,1 (3,0)

- ✓ Ikasleen irakurketako errendimendu mailen arabera banaketatik ondorioztatzen da gehienez 1. maila lortzen duten ikasleek (% 60 edo gehiago aukeratutako herrialdeetan) ikasteko garaian ez dituztela erabiltzen edo maila baxuan erabiltzen dituztela **kontrol-estrategiak**. 5 errendimendu maila edo maila altuagoa lortzen duten ikasleen artean kopuru batek (% 25 eta % 30 artean) ez ditu kontrol-estrategiak erabiltzen. Egoera hori gertatzen den estrategia mnemotekniko bakarra da, irakurketan errendimendu ona lortzeko ikasleek erabiltzeak edo ez erabiltzeak garrantzi handiena duena.

**PISA 2009. Irakurketa-errendimenduko maila bakoitzean, ikasten ari direnean *kontrol-estrategiak* maila baxuan erabiltzen dituztenen ehunekoa**

	1 maila eta 1 maila baino baxuagoa	2. maila	3. maila	4. maila	5 maila edo altuagoa
Luxenburgo	64,0 (1,7)	52,2 (1,9)	44,5 (1,6)	38,4 (2,1)	28,9 (3,0)
Frantzia	76,1 (1,9)	60,8 (2,1)	48,9 (2,3)	35,3 (2,0)	24,6 (2,4)
Espainia	66,3 (1,2)	54,2 (1,3)	42,4 (1,3)	31,0 (1,7)	21,4 (3,4)
Alemania	59,6 (2,4)	51,7 (1,8)	44,4 (1,8)	35,4 (2,0)	25,2 (3,2)
<b>ELGA</b>	<b>66,7 (0,4)</b>	<b>57,2 (0,3)</b>	<b>48,0 (0,3)</b>	<b>38,1 (0,3)</b>	<b>28,2 (0,6)</b>
Finlandia	64,2 (3,2)	58,4 (2,2)	50,3 (1,6)	39,6 (1,5)	27,6 (2,2)
Erresuma Batua	65,6 (1,9)	56,7 (1,7)	46,9 (1,5)	38,4 (2,2)	28,4 (2,8)
Italia	62,4 (1,1)	49,7 (1,1)	41,3 (0,9)	33,8 (1,0)	27,2 (1,8)
Herbehereak	59,7 (3,2)	56,5 (2,2)	45,0 (2,0)	34,9 (2,0)	23,7 (2,7)